

Joxe Ramon Zubimendi

# Txerokiak denbora pasa



Joxe Ramon Zubimendi

# **Txerokiak denbora pasa**

---

**Auspoa Liburutegia**  
**333**

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (1952-)

Txerokiak denbora pasa / Joxe Ramon Zubimendi. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2016.

153 or. : ir., argk., mapak ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 333)

Aurkibidea

LG SS 668-2016. - ISBN 978-84-7907-750-1

I. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. II. Izenburua. III. Saila.

821.361-31"20"

*Azaleko argazkiak:* Indalezio Ojanguren, Iñigo Baena Etxebeste  
*Barruko argazkiak:* Joxe Ramon Zubimendi

*Egilea:* Joxe Ramon Zubimendi

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

ISBN: 978-84-7907-750-1  
Legezko Gordailua: SS-668-2016

Maketazioa eta azala: Imanol Tapia  
Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8.  
Andoain (Gipuzkoa)

Joxe Ramon Zubimendi

# **Txerokiak denbora pasa**



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua

Donostia, 2016

# Aurkibidea

---

Atariko oharra .....	9
1. Dagoenean, bonbon; ez dagoenean, egon .....	11
2. Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu .....	19
3. Sasiak ere belarriak .....	27
4. Balitz eta balego goseak hil ziren .....	31
5. Hasiak egina dirudi; eginak urre gorria .....	39
6. Nahi eta ezin .....	47
7. Lagunak nolako, ezagunak halako .....	59
8. Durango, Durango; izan eta izango .....	71
9. Arian-arian, zuloa harrian .....	83
10. Hitzontzi, hutsontzi .....	95
11. Dakienak badaki, ez dakienak baleki... ..	103
12. Zenbat buru, hainbat helburu .....	113
13. Hamaika txorok jaten du ogia .....	121
14. Hasiak egina dirudi; eginak urre gorria .....	129
15. Ezer ez, eta festa .....	141
16. Txerokiak denbora pasa .....	145
17. Gero gerokoak .....	151

## Atariko oharra

---

– *Txanpaina, nobela honek txanpaina dik irudi!* –esan zidan adiskide onak.

Adiskide ona, ardo ona eta xanpain ona, urtetakoak, irakurle.

Nobela-eleberri hau, XX. mendeko azken hamarkadan idatzia da eta, azkenean, XXI. mendeko bigarren hamarkadan atera da argitara. Beraz, denbora askotxo pasa du lozorroan eta, bitarte horretan gauza asko gertatu diren

arren, ez ahal zen  
iraungiko kontakizunaren mamia!

Idazleak asmatuak dira hemen aipatzen diren pertsona, leku, erakunde, gertaera eta abar gehienak. Horietako askok benetakoak dirudite, bai; halabeharrez, jakina.

Xanpaina irudi omen duen nobela honen kortxoa badoa, irakurle. *Danba!* Atera xanpaina beldurrik gabe! Txerokien festa hastera doa *zirtzart* txinpartaka.

## 1. Dagoenean, bonbon; ez dagoenean, egon

---

Desagertu egin zaiola senarra, eta emazteak Ikermanengana jo du laguntza eske, erreguka, desagertu zaión gizona bilatzeko eta bilatzeko, harik eta aurkitu arte.

–Alde batera, bake ederra ematen du etxetik falta deanean –esan dio emakumeak–; baina hau ez da gizonaren buruzpidea. Bost egun hauetan ez dut senarraren berririk, eta kezkatuta nago. Martin ez da horrela eta besterik gabe desagertzeko bezain axolagabea. Beldur naiz parte txarreko zerbait gertatu ote zaión.

Ikermanek badaki ohikoa dela berrogei urte pasatxoko gizonzokoren bat edo beste desagertze hori, eta badaki ezkonduak izaten direla «desagertutako» gizonzoko gehienak: nork bere etxea, familia, lana, lagunak eta denak utzi, eta bizimodu berri baten ametsetan joaten omen dira: antza, urrutiko intxaur bila.

–Bakarrik al zen? –galdetu dio, beraz, andreari.

–Neska gazteren batekin ez, behintzat, horretara baldin bazoaz. Nork hartua aukeran daukala uste al duzu? Ez, ez; nire senarra ez da ipurbero-usainean ibiliko bost egunez. Ezta nahita ere! Etxeko lanak egiten nahikoa lan!

«Bai, hirekin ez duk giro izango!» pentsatu du Ikermanek, aurrean daukan emakumeari ezmezean bezala begiraturaz. «Lorerik ederrena aspaldi galduko huen; baina sa-soikoa eta mardula hago, alazankoa!»

–Ez al zaizu iruditzen?

–Zer?

Ikerrek beste nonbait zeukan burua, eta orain ez daki nondik erreparatu zehazki galderari; baina andrea ez dago jolaserako.

–Ez dabilela onez. Ez al zaitu iruditzen zeozer gertatu zaiola?

–Nik zer esatea nahi duzu, ba, emakumea? Baina ziur-ziur al dakizu desagertu egin dela?

–Baietz, ba! Bost egunotan ez dela etxeratu! Txukuna ibiliko da, honez gero! Kuxidade ederrekoak, alkandora eta enparauak! Gainera, nora joango zen, ba, ez diru eta ez miru?

«Tabakoa eroatera, beharbada» dio Ikermanek bere baitarako. «Horixe egin omen zian, aspaldian, Oihangurenako nagusiak ere: tabako bila zihoala esanez irten etxetik, Zubietatik Pasaiara joan, alde zurretik eresia zuen bidaiaria txartelari esker itsasontziratu, eta Hego Amerikara alde egin, bere emazteari eta alabatxoari *Hor konpon!* ere esan gabe».

–Parrandan ote dabil, ba, adiskideekin? –galdetu dio, hala ere, emakumeari, sagardotegitik irten ere egin gabe ia aste osoa ematen duen lagun-koadrilarik geratzen omen dela gogoratuz.

–Parrandazalea da, bai, zoritxarrez. Hamaikatxo aldiz haserretu izan natzaio, bere ditxosozko afariak eta lagunarteko topaketak direla eta. Alferrik, ordea; Martinek ez baitio amore ematen nire sentimenduari: hark berea egiten du, eta nik aspaldi etsi nuen. Baina nire gizonak badaki zer eginkizun duen etxeko nagusia den partetik, eta horrelakoetan ez du huts egiten: beranduenik ere biharamunean etxean izaten da parranda ostean. Hobe du!

–Irteera luzeagorik ere egingo du, ba, inoizka?

–Etxean ezer esan gabe joandakorik ez, egundaino –erantzun dio, zorrotz, andreak.

–Ertzaintzaren polizia-etxera joan beharko duzu, orduan, parte ematera.

–Ezta pentsatu ere! Arriskutsua litzateke; horregatik etorri naiz zuregana. Oraindik ez dut salatuko desagertpena, badaezpada ere.



Ikermanek zitzada bezalako bat sentitu du bere barruan. «Kontu eman, txo! Adi egon eta erne ibili, txikito!». Horixe pentsarazi dio zitzada modukoak.

–Politikari ezagunen bat-edo al da zure senarra? Bahitu egin ote duten, alegia.

–Ez, ez; Martinek ez luke etsiko inongo alderdi politikotan. Ezta buruzagi izanda ere! Horixe bakarrik falta zitzaidan!

–Dirua eskatu asmoz eramanez ote dute, ba?

–Dirua? Neroni ere eskatzeko hobea nago, emateko baino. Ez gara dirudunak, ez; Martini loteria egokitu ez bazaio behintzat.

–Jokatzen al du? –galdetu dio Ikermanek, buruan pasa berri baitzaio Martin delakoa diru pila on bat kobratu eta Kuban-edo dagokeela, lasai asko.

–Ez du sekula dirurik jokatzen, ez loterian eta ez beste ezertan; berak esaten du dirua morroi ona dela, baina nagusi txarra. Eta horretan arrazoia ematen diot; beti-beti ez, baina...

–Orduan?

–Esandakoa: etxetik senarra falta zaidala. Eta ez dakit besterik.

–Ulertzen ez dudana da zergatik ez duzun joan nahi ertzainengana. Zer duzu, ba, desagerpena salatu nahi ez izateko? Ez al zara fio ertzainekin?

–Ertzainekin, hor nonbait... baina Martinekin ez, ordea, honelakoetan! Batek daki zer-nolako saltsan sartu den oraingoan! Auskalo! Ez dugu gauza onik! Bila ezazu, mesedez, eta aurkitu lehenbailehen. Mesedez eskatzen dizut! Etxean ume guztiak aita non ote duten galdezka dauzkat, eta nik ez dakit zer erantzun oraintxe. Auzoko bizilagunak ere ohartu dira dagoeneko, eta etxetik ateratzeko lotsaz bezala nabil.

Isilik geratu da emakumea, bere baitan daraman korapiloaren eraginez, noski. Gogorra izaki, ordea; eta ez zaizkio begiak busti.

–Azaltzen ez bada, zer esan behar diet gure seme-ala-bei? Zer esan behar diot herriko jendeari? Eta, batez ere, zer esan behar diot neure buruari?

Orain bai, orain malkoek gainezka egin diote emazteari, aurpegian barrena isuri zaizkio, masailetan behera bixi-bixi, ezpainetaraino. Ikermani kresalaren gazia gogoratu zaio, eta malenkonia apur bat gailendu. Esku-keinu batez uxatu du gandu hori, euli gogaikarriak uxatzen diren bezalaxe.

–Tira, tira, txukatu malko horiek, ez da horrenbestera-ko izango eta! Gainera, ez dakigu ziur bere gogoz kontra desagertu denik ere. Ea, esaidazu zer den ertzainen kontu hori! Zeren beldur zara?

–Ez baitakit neronek ere! –erantzun dio andreak, eta eskuko poltsatik zapitxo dotore bat aterata, musua lehortu eta mukiak zintzatzeko keinua egin du.

–Zure gizon hori ez da, ba, borroka armatuan-edo ibiliko? Esaidazu egi-egia, mesedez; bestela ezin lagunduko dizut eta!

Emakumeak goitik behera begiratu dio, barruko zokomoko guztiak arakatu nahi balizkio bezala. Ikerman urduri samar sentitu da, ez baitu batere gogoko besteren azterketa zorrozpean pasa behar hori.

–Aspaldiko garai batean bai, aurrera samar ibili zen –esan dio, halako batean, andreak, begiak bere ezkerre-ko eskura eramane eta ezkontzako eraztunari jira eta bira eraginez–. Baina diktaduraren ondorengo amnistiarekin planto egin eta alde batera utzi zituen ibilera haiek. Gero atzendu egin zen, eta Yoyes hil zutenegeroztik, erabat aurka jarri. Esaten du Euskal Herria desagiten ari direla, eta ez dut uste oso oker dabilenik.

Emakumeak, azkeneko hitzok esan, burua jaso eta Ikermani begiratu dio zuzen, honen iritziaren adostasun maila neurtu nahi balu bezala. Ez du oihartzunik jaso, Ikerman harira joan baita.

–Etsikoia al da? Bere buruaz beste egiteko joera dute-netakoa?

–Etsikoia ez izan arren, bere buruaz beste egiten ari da; baina astiro-astiro.

–...?

–Esan nahi nizun, alegia, bateko zigarroa eta besteko parranda, bere osasuna hondatzen ari dela. Gizasemeok ez zarete ulerterrazak: jakin kalterako duzuela, eta segi, hala ere! Ez dut ulertzen nolatan zareten horren astakiloak! –esan du emakumeak, irribarre printzatu batez–. Hortik aurrerakoan, kendu zeure burutik suizidioarena; Martinek ez luke bere burua hilko, maite duen norbaiten bizia salbatzeko izan ezik.

–Horren ziur al zaude?

–Bai, erabat! Ni bezalako emakumeok ez dugu sekula har-tzen bere buruaz beste egiteko joera nabarmena duen sena-rrik. Halakoak ez digu balio gizon izateko, eta hori ez dakien emakumerik ez da... zeharo txolina ez bada, behintzat.

Ikermani otu zaio bestelakoek ere ez dietela guztiz balio izaten gizon izateko. «Astakiloak garela, alazankoa! Samu-rra zegon, ba, zuekin asmatzen! *Nunca se debe intentar contentar a quien con nada se contenta*».

–Martinen lantokiko lagunek ere ez dakite ezer, ez omen dute haren berririk –esan dio apal andreak, burua makur eta negarra begian–. Oso kezkatuta nago eta beldur naiz parte txarreko zerbait gertatu ote zaion. Bost egun etxera gabe! Ez dugu ezer onik oraingoan.

–Zerbait berezirik ikusi edo sumatu al zenion desagertu aurrettxoan?

–Apartekorik ez; bezpera gauean irakurtzen aritu zela berandu arte, horixe. Baina hori ere ez da deigarria Martinengan.

–Ez dakit, ba, zer pentsatu, emakumea! Istripuren bat edo ezbeharren bat izan balu abisatuko zizuten etxera, noski. Aldean eramaten al du nortasun-agiria?

–Bai, bai, aldean eramaten ditu beti paperak; bereak ez bada, besterenak.

–Besterenak?

–Behinola, mugaz bestaldera joateko pasaporteak behar zen garai hartan, Martin deskuidatu egin zen presaren presaz, eta bere pasaporteak hartu orde z nirea hartuta joan zen. Baita muga pasa ere!

–Ez al zioten pasaporteak eskatu?

–Eskatuko ez zioten, ba! Baita gogotik begiratu ere, behin eta berriro. Leihatilako polizia hamaika bider aldatu omen zituen begiak pasaporteko argazkitik Martinen aurpegira, eta alderantziz. Martin, berriz, susmo gaiztoa hartuta, urduri, zer arraio gertatzen ari ote zen asmatu ezinik; baina lasai-itxurak eginez, sano-sano, egoera hartan jaun eta jabe balitz bezala.

Ikermani begietara etorri zaio irudia. Martin, bere autoan gidari, mugan geldirik, isil-isilik poliziari begira, «bere» pasaporteak fitxatuta ote daukaten beldurrez, komando-kideren bat atxilotu ote dioten susmoz, azeleragailua zapaldu eta tximistak egiten muga pasatzeko aukera aztertuz, orduak iruditzen zaizkion minutuak nozitzuz. Polizia, berriz, zur eta lur bere kaxetan: autoaren gidaria, auto horretan heldu den pertsona bakarra, horako bikingo itxurako gizaseme musuzabal, gazte eta sendo hori da, pasaporteak luzatu dion berbera, sudurpean bibote iletsu horaila duena, egundoko idiskoa! Pasaporteak, aldiz, Isabel jartzen du, eta aurpegi fineko emakume beltzaran gazte baten argazkia

dakar. «Ez, hau ezinezkoa duk! Ez huen ongi ikusiko! Ea, begira ezak berriro!» esaten dio poliziak bere buruari. Baina berrizkoan ere, bikingo hura ikusten du autoan, eta neska beltzarana argazkian. «Zer da hau, baina? Gerra psikologikoa? Ea, begira ezak berriro!» Eta horrela hamaika aldiz. Eta bitarte luze horretan, biak isilik, elkarri hitzik ere egin gabe, bakoitza bere mamuekin borrokan.

–Azkenerako, polizia hark onez onean utzi omen zion muga pasatzen, ezertxo ere galdetu gabe –esan dio andreak–. Donibane Lohitzune aldera iritsi arte ez omen zen gelditu ere egin Martin. Orduan aztertu zuen berea uste zuen pasaporte, eta orduan ohartu hanka-sartzeaz. Es-tuasun larri askoa pasa omen zuen egun hartan mugan; baina makina bat algara egin izan dugu, geroztik, pasadizo horren kontura.

Ikermani ere guztiz barregarria iruditu zaio gertakaria, baina barruan eutsi dio barreari; izan ere, aurrean daukan emakumea, begi biak oroitzapenez eta malko lodiz beterik, negar batean hasi baitzaio senarraren galdez, bilatzeko eta aurkitzeko esanez, laguntzeko eta laguntzeko, mesedez.

Ikermanek ez daki nondik hasi ere desagertuaren bila, baina badaki ezin duela jasan emakumeen egiazko negarrik. Horregatik edo, baietz esan dio andre gajoari, bilatuko duela Martin Elustondo, ahaleginak eta bi egingo dituela haren aztarnak aurkitzeko; baina ez diola ezer agintzen, ez dakiela zer atarramentu aterako duen hartatik, zerbait ganorazkoa jakin bezain laster hots egingo diola eta, bitartean, lasai egoteko, Martin bera ere ez dela izango eta, noski, atzo goizeko perretxikoa.

–Eta orain, bazoazke etxera –esan dio, amaitzeko–, arazo hau nire esku utzita. Barkatu, baina presazko zeregin batzuk ditut eta berandutu egingo zait.

Ikermanek lotsati hartu ditu andrearen milaka eskerak. Gero, bakarrik geratu orduko, bere «presazko zeregi-

nei» ekin die patxada ederrean: kafea berotu, zigarrotxoa piztu, eta, bata hartu eta bestea erre bitartean, korapilo hura askatzen hastekotan zein hari-muturri tira behar ote dion oldozten hasi da.

Aurren-aurrena Imanoli deitu dio, Ertzaintzaren koordina-zio-zerbitzuan lan egiten duen lagunari. Etxera deitu dio, haatik, eta, halabeharrez, erantzungailuan mezua utzi.

–Kaixo, Imanol! Zer moduz zihoak DYaren eta Gurutze Gorriaren arteko norgehiagoka? Eta hi, zer moduz bizi haiz, txapelgorri hori? Ondo izango ahal haiz! Aizak, mesede eske natorkik oraingoan ere: ardi galdu baten aztarnak bilatzen lagundu behar didak. Martin Elustondo dik grazia, eta litekeena duk garai batean burdina dantzatu izan izana. Emango al diok begiratu bat zuen datu-base erraldoi horri? Hots egidak lehenbailehen. Gero arte!

Telefonoa eseki eta ordenagailuan fitxa berria betetzen hasi da:

Zioa:Desagerpena

Nor:Martin Elustondo

Ezaugarriak:

## 2. Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu

---

Imanol ertzainaren deiak lanean harrapatu du Ikerman.

–Aizak, Iker! Hik ez al dakik mezuren bat uztean, beste ezaugarririk ezean, heure izena ematen? Bestela, mezua norena ote den asmatu ezinik ibili beharra zeukaat; ahotsak ere ez baititut lehen bezain ongi bereizten. Gorraize pixka bat ere badiat eta...

–Zahartzen ari gaituk eta. Dena dela, egingo nitek hire gorraizea komenientziazkoa dela: nahi duana bakarrik entzuteko aitzakia.

–Nahiago nitek gezur hori egia balitz! Ez, ordea. Hire mezua jasotzean, esaterako, zalantzan geratu nauk. Hala esan zioat neure buruari: «Nor ote da ahots honen jabea: Ikerman ala Okerman?».

–Kaixo, txapelgorri!

–Urte askoan... txapela kaskoan!

–Umoretsu habil, Imanol.

–Hago, hago; oraindik ez diat amaitu-eta lehengo erretolika.

–Hori duk ardaila, hori! Oilo-ipurdia jan duk, ala?

–Oilandarena nahiago... aukeran balego. Etxeko oiloa maiztu samarra baitaukat dagoeneko.

–Hau duk antxumea, hau! Begia bai, luzea, hik; baina esaerak dioena: *Nahi eta ezin!*

–Bai, to! Ez al dakik nik beti prest daukadala pistola? Ez hik bezala, kioak jotako oilarra dirudik eta!

–Hirea jakina zegok, Imanol: *Zerri goseak, ezkurra amets!*

–Egon hadi horretan, Akerman! Egon hadi lo, eta jango duk mehe!

Ikerman aspertuxe da tekela horretan, eta mamira jo du.

–Beno, hi, utzi koplak eta zipoak! Esaidak: begiratu al duk nire ardi galduarena?

–Martin Elustondo. Zer nahi diok, ba? Zer dik?

Imanolen ahotsa atzendu bezala egin da telefonoaren beste aldean: txantxak amaitu diren seinale. Ikermanek badaki orain artean laguna mintzatu zaiola, baina aurre-rantzean ertzainak ere hitz egingo diola: ertzain lagunak edo lagun ertzainak. *Emaidak eta emango diat.*

–Argi eta garbi esango diat, Imanol: Martin hori desagertu egin omen duk. Bere emaztea etorri zaidak esanez, alegia, bost egunotan ez dela etxetik azaldu, eta bilatzeko.

–Baina desagertu, nola? Bere gogoz? Oiloa saldu eta oilanda erosita?

–Ez zirudik gona-kontua denik. Martinen emazteak, behintzat, ezetz eta ezetz esan zidak: senarrak ez diola alde egin inongo neska gazterekin.

–Eta hik zer diok, Iker? Sinistu egin al diok?

–Bai. Oso oker ez banago, egia esan zidak: senarra falta zaiok, seme-alaben aita, eta deusik ere ez zekik haren paraderoaz.

–Eta, zer aurkitu duk?

–Ahaleginak egiten hasi berria nauk eta oraindik ez zekiat ezertxo ere, Imanol. Horregatik deitu diat.

–Putzutik ateratzen lagundu beharko diat, hortaz; aspaldiko zorra diat eta.

Zorrarena esan beharrik ez zeukan, baina Imanolek ongi gogoan dauka Ikermani esker bizi dela. Izan ere, biak mutil koskorrak ziren garaian, Ikermanek atera baitzuen uretatik, estu eta larri atera ere, putzuan itotzeko zorian zegoen Imanol. Horren ordainetan edo, Imanolek, ertzaina denez geroztik, «putzu» txiki askotatik atera izan du Ikerman.



–Gogoan al duk trenaren ziztua tunelean? –galdetu dio Imanolek. Mutikotako oroitzapenak zaharberritu zaizkio, nonbait.

–Bai, motel! Akordatu hutsarekin, hotzikara ere nozitzen diat bizkarrezurrean. Huraxe zuan ezaguera laburrekoak izatea! Bestalde, orduan ez genian ausardia faltarik, horratik!

–Guk genitian potroak, guk!

Mutil koskorretan, igerileku egokiagorik ez eta, mendiaz beste aldeko urtegi batera joaten ziren udan, putzuan igerian egitera. Mendi-bidez joan beharrean, ordea, trenbidez joaten ziren; baina tunela pasa behar, huraxe baitzen lasterbidea. Hasieran, trenaren ordutegia ikasi eta, inolako arriskurik gabe zeharkatzen zuten tunela, trenik ez zetorrela bazekitenean: arriskurik gabe, baina ez oso lasai; beldur baitziren erabateko ilunpe hartan. Gerora, tunelaren barruko berri ikasi zuten, eta lasaiago ibiltzen: besteak beste, horma-zulo haiek aurkitu zituztenetik tunelean (ustekabeen trena etorrita ere, bi lagun babesteko adina leku baitzegoen bakoitzean, tunelaren saihetseko horma-zulo haietako bakoitzean). Azkenerako, babes-zulo horietan sartuta itxoiten zioten trenari, hortzak estututa beldurrari eutsiz, trenaren guztizko zarata sorgortzaileari irrintzika erantzunez, horma-zuloaren atzeko paretari gorputza erantsiz eta trena, tunel hartako jaun eta jabe bakarra, beren arropak harrotuz ziztu batean pasatzean begiak itxiz. Mutikoez bazekiten joko hura hil ala biziko zela, joko zela eta ez jolasa, eta adrenalinaz mozkor-mozkor eginda irteten ziren tuneletik.

Zorionez, trenak ez zuen harrapatu balentria haietan ibilitakorik inortxo ere. Gerora bai, zoritxarrez; trenak tunelean harrapatuta, jo eta txiki-txiki eginda, hil baitzen auzoko gizon gazte bat. Trenak eta minbiziak jota, antza.

–Martin Elustondo honek ez zirudik bere burua botatzen dutenetakoa –esanez eten du Imanolek oroitzapenen haria.

–Ez, noski.

–Begiratu ditiat azken egunotako txostenak, eta hor ez duk ageri hire ardi galdu horren izenik: ez salaketen artean, ez istripua izandakoen artean, ez infartuak jotako artean, ez atxilotuen artean... –pausalditxo egin du ertzainak– eta ez beste inon.

–Nor den ez dakizuenik ba al duzue batere? –galdetu dio Ikermanek, entzun berri duen «eta ez beste inon» horrekin talaian jarririk–. Azken bost egunotakorik, alegia.

–Bakarra. Sasoiko izandako gizaseme bat: autopsia egiten ari zaizkiok une honetan. Baina ez duk Martin Elustondo.

–Ziur al hago?

–Ziur baino ziurrago –erantzun dio Imanol ertzainak–; beltza baita zendua: otsoaren eztarriko zuloa baino beltzagoa. Portuan agertu duk gorpua, uretan.

–Itsasontziren batean ezkutatuta etorritakoren bat.

–Litekeena.

–Gizajoa! Tristeia duk nork bere herrian bizimodua atera ezin eta gizonak horrela ibili beharra ere.

–Bai, Iker, bai; tristeia baino okerragoa duk hori. Baina guk geure danbolinari eragin behar zioagu.

–Hortaz, Imanol, ez duk aurkitu Martin Elustondoren berririk, ezta?

–Azken egunotako txostenetan ez zegok ardi galdu horren aipamenik. Atzerago jo behar izan diat.

–Eta?

–Trafiko sailean bi espediente aurkitu ditiat: bata, auto zaharra derrigorrezko azterketa teknikoa egitera ez erama-teagatik ezarritako isunarena.

–Pobrearen lege-haustea. Eta bestea?

–Bestea, «dultzaineroek» geldiarazi zutenekoa, lagun arteko afari ostean muturra gehitxo berotuta gidatzeagatik.

Ez ziotean isunik ezarri; baina luzaro samar eraduki omen zitean bide bazterrean, ura edanaraziz, harik eta alkohola-ren gandua uxatu arte.

–Larriagorik ez al dik? –galdetu dio Ikermanek, desagertuaren emazteak esandakoa gogoratu.

–Horretara baldin bahoa, Martin Elustondo ez duk ibiltzen ez tabako-kontrabandoan, ez droga-trafikoan eta ez gisakoetan... ertzainok dakigula, behintzat.

–Begiratu al duk burdina-dantzarik edo gitaren duen?

–Badakik borroka armatuarekin zerikusirik duten espedienteak datu-base berezi batean dauzkagula –serio-serio mintzo da ertzaina; serioegi, beharbada–, eta nik ez dudala baimenik hor sartzeko.

–Gure Imanol kikildu, baimen bat gorabehera!? Ez diat uste; makala haiz, ba, atzera geratzeko!

–Bejondeiala, Iker! Ondo ezagutzen nauk, e! –barre antzean ertzainak–. Begiratu ditiat, bai; baina espediente zaharrak bakarrik, oraingoetara sartzeko kode berezia behar baita.

–Eta?

–Ganadu ederra izana duk hire ardi galdua.

–Bota!

–Martin Elustondo hori borroka armatuan ibilitakoa duk, bai; baina ez miliekin eta ez polimiliekin.

–Komando autonomoetan –aurreratu zaio Ikerman.

–Ezta autonomoetan ere, baizik eta komando kulturalan.

–Kulturaren alorrean egin zuela borroka armatua? Bai, zera!?

–Bai, jauna! Agi danean, nazka-nazka eginda zeudean komando militarrekoen nagusikeriaz, eta beren gisa hasi zituan. Horrela sortu omen zitean Txeroki izeneko komandoa.

–Txeroki? –harritu da Ikerman eta filmetako indioak gogoratu zaizkio–. Indio txerokiak bezala, alegia?

–Horixe. Hauek diotenez, euskaldunok omen gaituk Europako indioak.

–Txerokiak, alazankoa! Txerokiak, siuxak, txeieneak, apatxeak... eta indioen leinu-izen gehiago ere ikasi genitian mutikotan. Akordatzen al haiz, Imanol?

–Akordatuko ez nauk, ba! Baina nik gogokoago nian pistolero izan; indioak galtzaile ateratzen baitira ia beti.

–Orain ere pistolero habil behintzat eta! –esan dio Ikermanek ertzainari.

–Bai, eta xerif, gainera! Ez txerokia izan banintz!

–Ez jakin! Aizak, zer duk txeroki izatearen kontu hori?

–Txostenean irakurri dudanez, eurak omen dituk txerokiak, eurak eta eurak bezalakoak direnak. Txeroki izatea ala ez izatea nortasun-kontua omen duk: bahaiz ala ez haiz. Eta txeroki izate hori norberak erabaki behar omen dik bakarka: hitzez eta egitez, asmoz eta izatez.

–Joño, Imanol! Eta besteok, zein leinutakoak gara?

–Ohartuki ala oharkabean, bizitzan aurrera egin aha-lean, norberak erabakitzen omen dik zein leinutakoa den, eta leinu ezberdin guztien artean osatzen omen diagu Euskal Herria.

–Txerokiek eta beste leinuek irokiarren konfederazioa osatzen zuten bezalaxe –erantsi dio Ikermanek, mutikotan hain maite izan zituen komikiak gogoratuz–. Aizak! Kontu horiek denak Martin Elustondoren espedienteaz azaltzen al dira?

–Horiek denak eta gehiago ere bai! Esate baterako, Txeroki komando horrek egitasmo zuen bahiketa baten berri: «bahiketa metafisikoa», euren hitzak erabiliz.

–Metafisikoa? –ahoa bete hortz geratu da Ikerman.

–Hori jartzen dik txosten batean. Nik ez zekiat zer den metafisiko izate hori baina –errepikatu dio telefonoaren beste aldetik ertzainak–. Beste ohar bat ere ikusi diat: txeroki hauek hasi eta buka irakurtzen zutela denek Oteizaren *Quousque Tandem* liburua.

–Polimili batzuek ere irakurria zitean; baina polimilien bahiketak ez zituan batere metafisikoak izaten, batez ere bahituaren belaun-katiluan.

–Polimiliak marxistak zirelako, edo marxista ustekoak. Txerokiak, ordea, ez izaki marxistak; ezta hurrik eman ere!

–Aizak, Imanol! Ba al dakik zer akordatu zaidan Oteizaren eta polimilien kontu horrekin?

–Auskalo.

–Ba, polimili batzuek, Oteizaren eraginez, Lehendakaria bahitu nahi izan omen zutela. Bahitu eta armairu batean sartuta eduki; baina ongi gobernatuta, jakina! Armairuak zulo bat izatekoa zian, eta zulotik Lehendakariak besoa aterako zian...

–...aurkezten zizkioten lege eta dekretu guztiak sinatzeko! Orain ulertu diat! –esan du oihu batean ertzainak–. Txeroki komandoak ere horixe egiteko asmoa zuela irakurri baitut espedientean; baina Lehendakaria bahitu orde... Oteiza bera bahituz! Jo! Hori duk umorea, hori, txerokiena!

Ikermanek ezin du ulertu: sekulako kontraesana iruditzen zaio oteizazale izan eta Oteiza bera bahitu nahi izatea.

–Baina zergatik bahitu nahi zitean Oteiza? Zertarako?

–Zergatik bahitu? Petrala eta ahoberoegia izateagatik: alegia, prentsan agertzen zenean txorakeria ugari esaten omen zuelako, eta gehienetan, bere liburuetan idatzita-koaren kalterako. Zertarako bahitu? Gogoz kontra armairu batean sartuta luzaro egotea zer den probarazteko.

–Adarra jo nahi al didak?

–Ez, Iker, ez –erantzun dio barrez Imanol ertzainak–; Txeroki komandoaren espedienteko txosten batean irakurritakoa berri besterik ez diat egin. Kontu horiek ez dituk nik asmatutakoak; baizik eta Martin Elustondok eta berearekin batera atxilotutako beste txerokiak polizia-etxean adierazitakoak garai hartan.

–Nor duk beste hori? –galdetu dio berehalaxe Ikermanek, bilaketan aurrera egin ahal izateko aztarnaren bat eskuratu nahirik.

–Endika Casares dik izena. Bizi, ez zekiat non bizi den; baina Kemen izeneko lantegian aritzen duk orain.

Eta hor amaitu dira Imanol ertzainak Ikermani emandako berriak: luzeegi jardun dutela, berandutu egin zaiola, hurrengoan emango diola xehetasun gehiago, berak deituko diola...

Belarria bero-bero eta burua gal-gal duela amaitu du Ikermanek elkarrizketa. Telefonoa eseki, ordenagailua piztu eta, desagertuaren fitxa osatu asmoz, idazten hasi da. Baina nola sartu fitxa berean Martin desagertzea, Oteiza bahitzea, txerokiak, polimiliak, komando kulturalako borroka armatua, armairua eta Lehendakaria? Nola arraio uztartu horiek denak elkarrekin?

«Endika delako beste txeroki horrek ba ote daki Martinen desagertuaren berri?».

### 3. Sasiak ere belarriak

---

DNI, Vitoria

DNI (*Departamento Nacional de Inteligencia*) omen da Espainiako informazio-zerbitzu nagusia... eta sekretuen. Militarren esku dago eta goi-mailako militarrek ditu buruzagi nagusi. Menpeko gehienak, ordea, zibilak omen ditu: espioiak, poliziak, axolagabe itxurako funtzionarioak, sasi-politikariak, enpresa handitako teknikariak, kazetari izenekoak, gaizkile arruntak... Zelatariak eta salatariak.

DNIk Gasteizen dauka Hego Euskal Herrirako ordezkaritza bateratua, bertako zelatari guztiek igorritako informazioa bildu eta Madrilera bidaltzen duena. Aldi berean, Gasteizko ordezkaritza horretatik bideratzen dira DNIk Euskal Herrian egin beharreko ekintzak: bai legezkoak eta bai legez kanpokoak (legez kanpokoak ere hamaikatxo eginga baita, kazetariak eta epaile zenbaitek behin eta berriro frogatu dutenez).

Imanol ertzainak uste izan ez arren, berak Ertzaintzaren datu-basera egindako sarkeriaren lekuko bat dago. Ezkutu-ezkutuko lekukoa, gainera: borroka armatuarekin zerikusia izan dezaketenen datu-basera baimenik gabe sartzen den edonoren sarbidea bereizteko, ezagutzeko eta salatzekeo ipinitako mikrotxip bat. Bai azkar eta ongi lan egin ere mikrotxip horrek: bereizi egin du baimenik gabekoa izan dela sarrera, ezagutu egin du Imanolen ordenagailutik eginga dela sarkeria eta, zehazki, Martin Elustondoren espedientea irakurri dela. Eta salatu ere egin ditu.

Mikrotxipek, baina, ez dakite leialtasunaren berri; eta salaketa hori, Ertzaintzaren barruko kontrolera ez ezik, DNIren Gasteizko ordezkaritza ere iritsi da; mikrotxipa

hartarako programatuta baitago birus baten bidez, kontroleko ertzainek birus horren berri ez dakiten arren. Ordezkariek txosten bat prestatu du eta DNiren zentralera bidali, Madrilera.

## ERTZAINZA, Gasteiz

Ertzaintza da Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo saileko erakunde nagusia. Kontu jakina da hori. Jende askok ez daki, ordea, Ertzaintzaren barruan ere badela bertako barne-saila, ertzainak zaintzen dituen polizia edo Herrizaingo saileko barne-saila: euskaraz BARSА deitzen diote, eta gaztelaniaz, *Asuntos Internos*. Esan gabe doa ertzainek eurek maite dutela BARSА, maite, herritarrek polizia adina.

Ikermanekin hitz egin eta biharamunean, BARSАko ertzain-buruaren bulegoan dago Imanol ertzaina, burumakur, bere nagusi horren aurrez aurre. Bete-betean harapatu dute sarkeria informatikoa egiten, eta okerrera da berak ez dakiela nork salatu duen edo nolatan jakin duten debekatuta daukan datu-basera sartu zela. BARSАkoak esan dio, gainera, badakitela Martin Elustondoren espedientera jo zuela; baina ez dakitela zertara.

–Horixe esaidazu –eskatu dio ertzain-buruak–, eta horren arabera erabakiko dugu zure aurka zigor-espedientea ireki ala ez.

Imanolek, inori kalterik egin ez eta zer ezkutatu handirik ere ez eta, argi eta garbi eman dio guztiaren berri: Ikerman nor den, nola mutikotan bizia salbatu zion, nola laguntza eskatu zion Martin Elustondo bilatu ahal izateko, eta abar.

–Horiek horrela badira –esan dio BARSАkoak–, ez zaitugu zigortuko; bai, ordea, lanpostuz aldatuko. Egizu txos-



ten bat esan didazuna idatziz azalduz. Eta gero ez aurkeztu errekurtsorik lanpostu-aldaketaren kontra; badakizu sindikatuek ez dizutela lagunduko horretan eta. Gainera, lantegi-aldaketa soila izango duzu, eta ez lantoki-aldaketa. Bestalde, Ikermanen aurkikuntzen berri jakitea ere komeni zaigu, eta zure laguntza espero dugu horretarako. Ulertu duzu, ezta?

Orain artean lehor eta zorrotz jardundako ertzain-buruak irribarre egin du Imanol irten ondoren. Aldarte onean dago. Imanolen karpeta utzi, beste bat hartu mahai gainetik, zabaldu eta agiri bat atera du. Hemen ere ageri dira Imanolen izena eta Martin Elustondorena, eta horrek eragin dio irribarrea; izan ere, DNiren ordezkariak Madrilerla bidalitakoaren kopia baitauka esku artean.

–To infiltrazioa! Guk ere badakigula ziria sartzan atzeko atetik!

DNI, Madrid

DNiren Madrileko buruzagitzan Gasteizko ordezkariaren txostena jaso du arduradunak, eta Martin Elustondoren dosierra begiratu. Espediente zaharrak aurkitu ditu, amnistiaren aurrekoak gehienak, 1970eko hamarkada-koak, eta bertan, Txeroki komandoa osatzen zuten gerrillakide hauen izenak: Martin Elustondo, alias «Ttak»; Endika Casares, alias «Julian»; eta izen-abizen ezagunik gabeko bat, alias «Lukas».

Laugarren baten aipamena ere ageri da bidenabar: Antonio Astigar, alias «Arluze»; baina esanez komandotik kanpo utzi zutela, eta handik aurrera *Contrafaction* izendatu, auskalo zergatik.

Orain, berriz, Martin Elustondo desagertu egin omen da.

DNIk ez zeukan zelatapean Martin; bai, ordea, susmo-pean, hainbat zurrumurru zirela-eta: *comando Harrapatu, comando Eskapatu, comando Manttala Zikina...* Baina kontu garbirik ez, zurrumurruak denak, tabernako kontuak, ahoberokeria diruditenak. Bada, ordea, txostenetan behin eta berriro ageri den zera kezkarriago bat: *fábrica de armas* delako baten aipamena, eta *zulo* batena.

DNIIn biltzen duten informazio gehiena hutsala izaten dela jakinik, Madrileko arduradunak hor agindu dio Gasteizko ordezkariari ez egiteko ezer, oraingoz, Txeroki kasuan; baina talaian egoteko, eta hartaz iristen zaizkion berri guztiak bidaltzeko.

## 4. Balitz eta balego goseak hil ziren

---

Boxeolaria dirudi orain Ikermanek, kolpe guztiak huts egin dituen boxeolari nekatua. Hala ere, kolperik ez diote itzuli, eta gaitz erdi! Baina nekea, neke.

Hamaika kolpe jo ditu, batera eta bestera, Martinen bila, haren desagertpenaren aztarna bila, arrazoi bila, argibide bila... Baina, kale! Ikermanen kolpe guztiak hutsean galdu dira.

Hamalau kontu jakin ditu, batean eta bestean, Martin Elustondori buruz; baina funtsezkorik bat ere ez, haren emazteak esan gabekorik. Garbi dago, besteak beste, Martin ez dela Kubara joana edo Hego Amerika aldera galdua, ez dela bat-batean aberastua, ez dela gonazale amorratua, ez dela iruzurgile aurkitua, ez dela bahituran eramana, ez dela istripuz zauritua edota hila, ez dela bere buruaz beste egina... Garbi dago, beraz, desagertu egin dela Martin. Baina nora? Zergatik? Zertarako?

–Burua galdu ez badu horrenbeste liburu irakurrita, nonbait hor! Ez harritu noraezean baldin badabil, galduta, nor den ere ez dakiela –esan dio estankoko gizon besamotzak–. Martin hori burutik joaten hasia dagoela esango nuke. Bazeneki zer esaten duen egunkari bila etorri eta egunean eguneko albiste nagusiak ikustean!

–Zer esaten du, ba? –galdetu dio Ikermanek, argi-izpi bat atera ustean.

–Zer ez du esaten! Lehengo Aita Santuari txotxoloa deitzen zion, behintzat-eta, eskiatzera joaten zelako. Eta Irakeko gerrakoak eta. Behin hala esan zidan: denok ere burua estalita ibili behar genukeela, ez baitakigu zer eror dakigukeen hor goitik.

–Nondik?

–Zeru-sabaitik, alegia. Hor goian jira eta bira omen da-biltzan satellite horietaz ari zen. Burutik joaten hasia dago, gizajoa!

Horretan ez dio amore eman Ikermanek; bera ere aski kezkatua baita satelliteak direla medio. Besamotza, ordea, beste orbita batera pasa da:

–Euskara batuaren kontrarioa da, gainera. Martinek dioenez, kontu sekretuak bakarrik hitz egin behar dira euskaraz. Horretarako omen da euskara: haurtzaroan hizketan ikasteko, etxean hitz egiteko, bihotzez kantatzeko eta sekretu nagusiak adierazteko.

–Eta zein dira Martinen sekretu nagusi horiek? –jakin nahi izan du Ikermanek.

–Berari galdeiozu, ikusten baduzu –erantzun dio estankariak, irribarretxo maltzurra eginez–. Eta eskumuinak emazkiozu nire partetik.

Beso motza gora jasoz esan du azkeneko hori, eta Ikermani iruditu zaio besoan falta den eskua ikusten duela, eta esku hartako hatz bat luzatuta dagoela, eta hatz hori erakuslea dela, eta atea erakusten diola, esanez bezala baduela handik alde egiteko garaia eta hanka egiteko, atea kanpotik itxiz irtetea.

«Ttotoaren salara bidali nahi hau estankari besamotz honek! Hau duk azala hau!» esan dio bere buruari, apur bat harrituta. «Ez, ez; irudipenak dituk horiek» pentsatu du gero. Baina segituan ohartu denez, ttotoaren salara ez ezik, zakurraren ipurdira joateko esaten ari zaio, hitz bestez, estankaria:

–Oraindik hor al zaude? Martxa horretan ez duzu behalakoan aurkituko Martin!

«Urde zerria! Nazkante zikina! Besamotz zitala!». Ikerman nekatuaren marmarra, eta estankoko atearen dan-

batekoa, biak bateratsu: bata ahopeko erretolika; bestea, eztanda ozen laburra. Biak ere alferrik. Beste kolpe huts bat, beste kale bat.

Kale gorrian doalarik, hor etsi du. Ikusi du Martinen herriko ingurumaria hartatik ez duela ezer garbirik aterako, eta beste hari-muturrari tiraka hastea erabaki du, beste ikerbideari ekitea, beste txeroki harengana joatea: Endika Casares bilatu eta berarekin hitz egitea.

Esan eta egin, ordea, ez izaki biak bat. Ikermanek ez daki ezta Endika nongoa den ere: ez zein herritan bizi den eta ez ezer.

–Hau marka duk, gero! Gizon baten bila nabilelarik, orain beste baten bila hasi behar! Martxa ederra, lanak azkar bukatzeko!

Egonarri handia hartu eta, banan-banan deitu du telefono-aurkitegi guztietara Endika Casaresen galdez, eta ezetz: euren zerrenda informatikoetan ez dela ageri izen-abizen horretako bezerorik.

–Eskuko telefonoa erabiliko dik, noski, erabiltzekotan; izenik eman gabe erosten ziren horietakoa.

Klandestinitate-garaiko jokaerak, antza. «Hala bada, lantegi zaila egokitu zaik, Iker!».

–Lantegia! Hori duk eta! Imanol ertzainak esan ez zian, ba, Endika hori Kemen izeneko lantegi batean aritzen dela orain!?

Ikerman hor hasi da, berriro, zerrenda informatikodun telefono-aurkitegietara hoska, deika, ea Kemen izeneko bezerorik ba ote duten galdezka; eta baiezkotan, zenbakiaren eske.

Hamalau Kemen agertu dira telefono-zerrendetan, eta Ikermanek den-denen zenbakiak idatzi ditu, salbu Kemen Perez del Palomar delako norbaitena. Beste hamahiru zenbakieta banan-banan deika hasi denean, orduan berretsi

du munduaren erdiak ez dakiela nola bizi den beste erdia; izan ere, hamaika lanbide eta zeregin desberdinetakoak baitira izen horretako enpresak: Kemen alfonbra-denda, Kemen argitaletxea, Kemen burdingintza, Kemen ezteibidaia, Kemen garbiketak, Kemen garraioak, Kemen ile-apaindegia, Kemen karatea, Kemen makineria hidraulikoa, Kemen psikoterapia eta Kemen txori-denda. Horietara guztietara deitu du Ikermanek, baina alferrik; inon ez baitute ezagutzen Endika Casaresik (nahiz eta txori-dendan ba omen duten, salgai, Endika izeneko loro bat; baina abizenik gabekoa).

Beste enpresa batean, «Kemen elektromekanika» delakoan, ez diote telefonorik hartu, eta gero berriro deitzekotan utzi du Ikermanek.

Zorte hobea izan du «Kemen zeure baitan» izeneko belar-dendan, han, Endika Casares ezagutu ez ezik, bezero baitute, eta lagun. Baina hortik aurrerakorik ez diote berritu nahi izan telefonoz, eta Ikerman bertara abiatu da. Joan eta joan, iritsi da, eta zera: belar-denda uste zuena baserria izan, Aranotz herrian.

Baserriak, kanpotik, xahar itxura dauka; baina atari bildua, garbia eta atsegina: lorea, landarea eta belarra ugari izan arren, hormetan margotutako huntza igokariak ere ez ditu gutxi. Atarian, ardi-zakur salatari bat *-Toz* izeneko, Ikermanek laster ikasi duenez-, zaunka bai, baina hozkarik egiten ez duten horietakoa. Atalburuan, kristalezko *ying-yang* handi samar bat, gorri-urdina.

Ate guztiak zabalik daude eta, txakurraren zaunkak gorabehera, etxe barrura sartu da Ikerman, «Hots!» oihu eginez. Barrutik ere xaharra da etxea; baina txukun-txukuna, goxoa, sosegu handikoa, bakerosoa, hormetan oihalak esekita dituen, frutaz eta fruituz betetako sukaldea, estresak jo gabeko hiruzpalau katu mardul, euskaraz idatzitako iragarkiak (sukaldea, komuna...) dituzten ateak, aulki ordez

etzalekuak dituen sala atsegina erdi ilunpetan, eta huntza margotuak non-nahi, etxe barruan ere.

Ustekabean, fraide frantziskotar bat agertu zaio, besotik helduta daramala gaixo-itxurako gizaseme gazte bat, buru-soildu berria, kolore oso zurbilekoa eta ibilera ahulekoa.

–*Aloe vera!* –esan dio fraideak Ikermani, beste eskuan daraman landarea erakutsiz–. Minbizia sendatzeko erre-medioa.

Ikermani diosala egin diote biek (fraideak irribarre garbiz, gaixoak neke etsipenez) eta, kanporantz doazela, atez beste aldean desagertu aurretik, fraideak burua itzuli eta hala adierazi du:

–Jende ona duzu etxe honetakoa! Ez dira parte txarrekoak. Etxekoandrea belargina duzu, XII. mendiaz geroztiko *beguina* haietakoa; baina moja izan gabe. Begina, jatorriz, belargina baita.

Nagusi-etxekoandreak ikusi orduko, gazteak biak, kalekume hutsak iruditu zaizkio Ikermani. Biak zuri-zuri jantzita, goitik beheraino, burutik oinetaraino. Etxekoandreak («etxekoandrea ez ezik, berau izango duk, noski, etxeko nagusia ere») Indiako jendeak bezalako arropa darama soinean, baina den-dena zuri-zuria, Indian luto-kolorea omen den zuria.

«Kalekumeak –pentsatu du Ikermanek lehen begiratuan–, kalekume gorriak dituk hauek. Auskalo zer nahaste-borraste duten buruan, auskalo zein haizek jo dituen, mendi-mendiko bailaratxo honetara etortzeko bizi izatera».

–Leku honek liluratuta gauzka –esan dio, gero, gizon gazteak–. Iritsi orduko, ezagutu orduko, liluratuta utzi gintuen leku honek. Horregatik erosi genuen etxe hau. Eta liluratze hori ez da esaera soila, ez da esateagatik esandako hitz polita; egi-egia baizik: lilura, magiazko lilura bizi dugu hemen.

Ingeniari agronomoa omen da, eta zuhaitzak maite dituen: hagina, bereziki. Jakin badaki Gipuzkoako armarriko hiru haginek zer esan nahi duten: hor aipatu ditu hilezkortasunaren sinbolismoa, Ernioko borroka erromatarren aurka (Lekobideren eta gainerakoen legenda erromantikoa), haginaren zuraren nobletasuna...

–Gipuzkoako herri askok eta askok –esan du, ondoren-  
arbola dute armarriko ezaugarri nagusi. Eta Bizkaiko armarririen ere zuhaitza da nagusi, eta Gernikako arbola eta...

Gizonaren poza, horiek esatean! Euskara ere maite omen du gizon gazte horrek. Gogotik ari omen da ikasten, eta euskarak ere erdi-liluraturik omen dauka. Eta mendiak.

–Mendizaleak izaki eta, Anbotora igo ginen lehengusua eta biok, hura beste lan gabe erdalerritik etorrita. Anbotoko gailurretik begira jarrita, han ikusi nituen, urrutian, Aizkorri eta Aralar. Begira-begira nengoela, sekulako zirrara sentitu nuen bat-batean. Zer zen hura! Egundaino ez zait berriro gertatu halakorik! Argi eta garbi ikusi bainuen, ikusi, Aralar arra dela, eta Aizkorri, emea.

–Aizu, eta Endika Casaresen zer berri? –galdetu dio Ikermanek, mendien sexu-bereizketaren bidetik urrutitxo joango zaion beldurrez.

–Laguna dugu, oso, hasierako galdeketa hura egitera etorri zitzaizkigunetik.

–Galdeketa? Zer galdeketa?

–Ikusketa metafisikoa deitu zioten beraiek –erantzun dio besteak, begiak barrez-barrez–. Behar bezala ari ote ginen begiratzera edo ikertzera etorri zitzaizkigun.

Zer esan ez dakiela dago Ikerman. «Metafisikoa!? Zer arraio ote da ikusketa metafisikoa? Ez zirudik, behintzat, Osakidetzak egin ohi dituenetakoa. Eta, gainera, zer funtzionario-mota arduratzen ote da alor metafisikoaz?».



–Funtzionarioa al da, ba, Endika? Jaurlaritzakoa edo? –galdetu du Ikermanek, eta galdetu orduko damutu egin zaio galdetu izana.

–Ez, ez! –erantzun dio, irribarrez, bere solaskideak– Elektromekanika du lanbide; baina guri egin ziguten bisitak ez du zerikusirik horrekin, esan dizudan bezala.

–Zertara etorri ziren? Zenbat ziren? Zein ziren haren lagunak? –galdetu dio Ikermanek, itzulinguruak utzita–. Azalduko al didazu, mesedez, Endika Casaresen etorrera? Ez bainabil inoren kaltean.

–Hara! Gu Aranotzera etorri, hemen lanean hasi eta bi hilabetera, neguko ilunabar batean, hiru gizaseme agertu zitzaizkigun ate joka. Sartzeko baimena eskatu ziguten, gurekin hitz egin behar zutela eta. Sarrarazi genituen, suntuondoan eseri, eta beren buruak aurkeztu zituzten. Hiru-retako bat Endika zen.

–Eta beste biak? –galdetu dio, urduri, Ikermanek–. Go-goan al dituzu beste bien izenak?

–Ez zaizkit sekula santa ahaztuko haien izenak: «Euria Begian» eta «Basajaun».

Ahoa bete hortz geratu da Ikerman. Ez zuen horrelakorik espero.

–Endikak berak ere ez zigun bere burua aurkeztu Endika izenez; baizik eta bere izen txerokia erabiliz: «Txakur Txikia». Gerora ikasi genuen Endika zeritzola.

–Txerokiak? –esan du Ikermanek, eta hor gogoratu zaio Imanol ertzainak esandakoa bat datorrela beste honek dioenarekin.

–Bai, Euskal Herriko txerokiak omen dira hirurak: Txakur Txikia, Euria Begian eta Basajaun. Eta Euskal Herria zaindu beharrak ekarri omen zituen guregana. Horretarako egin ziguten galdeketa, eta horregatik erantzun genizkien argi eta garbi galdera guztiak. Bisita pozgarria izan genuen huraxe, gogor samarra baina!

–Zer jakin nahi zuten, ba? Zeren beldur ziren?

–Jakin nahi zuten argiaren seme-alabak ote garen; beldur baitziren ilunaren morroi ote ginen. Adierazi genien gure jardunbidearen nondik-norakoa, gure sendabidearen zer-nolakoa eta gure etorreraren zergatikoa eta zertarakoa. Oso ontzat hartu zuten hori guztia, eta esan ziguten txerokien zeregina eta jokaera oso bestelakoak direla gurearen aldean; baina onezko bide guztiek badutela lekune Euskal Herrian, eta ezberdin izatea onerako dela. Gero, bukaeran, elkar agurtzerakoan, Euria Begian delakoak esan zigunez, denontzako adina leku bada Wakan Tanka-ren baso-zelaietan. Nik erantzun nion baietz, eta badugula harremanik hor goiko komentuko frantziskotarrekin. Orduan, Basajaun delakoak, begi-keinu bat egin eta esan zidan: *De mendicantes predicadores, líbranos, Señor!*

–Antiklerikalak al dira? –galdetu dio Ikermanek–. Apaiz-jaleak?

–Ez eta gutxiagorik ere! Baina esaten dute gizonak, izatekotan, lekaidea izan behar duela, monjea, eta ez fraidea. Fraideek, edan aurretik, atzaparra sartzen omen dute eta basoan.

–Zer esan nahi du horrek?

–Ez dakit, Basajaun hori adarjotzaile samarra baita. Badakit, ordea, Endikak esanda, lagunak dituztela Lazkao-ko beneditarrak, eta oso egokitzat daukatela haien *Ora et labora* delako jokabidea.

–Hau al da Basajaun? –galdetu dio Ikermanek, Martin Elustondoren argazkia erakutsiz.

–Ez –erantzun dio ingeniari agronomoak, desagertutako gizonaren argazkia eskutan hartu eta arreta biziz begiratu ondoren–, erretratuko gizon hau ez da Basajaun; baizik eta beste txerokia: «Euria Begian» delakoa.

## 5. Hasiak egina dirudi; eginak urre gorria

---

Desagertutako Martin Elustondoren beste aztarnarik ez eta, haren adiskide Endikaren lantokiko telefono-zenbakia eman dio Ikermani Aranozko ingeniari agronomoak. Zenbaki horixe omen da, hain zuzen, txeroki bataz eta besteaz daukan informazio material zehatz bakarra.

Laster dantzatu du telefonoa Ikermanek. Bai garai onean deitu ere, nonbait; berehala entzun baitu ahots maiztu baten sarrerakoa:

–Kemen elektromekanika. Bai, esan?

–Kaixo! Endika Casaresekin hitz egin nahi nuke, aizu!

–Itxoin pixka bat, mesedez! –eta Vangelis taldearen musika sintetizatua igorri dio burmuinera telefono-hariaren beste aldetik. Ikerman hor hasi da Endikari galdetu beharrekoak errepasatzen. Bat-batean, beste zerbait otu zaio: «Lantoki horretan ba ote dakite Endikaren izen txerokia Txakur Txikia dela?». Eta, sintetizagailua lagun, elektromekanikan aditua den txakur txiki bat irudikatzeari ekin dio; baina ez du ikusi ahal izan marrazki biziduna besterik.

–Aizu? Aizu? –maiztuko zaio, berriro ere, ahotsa telefonistari!

–Bai, bai, hemen nauzu –erantzun dio, ohartu orduko, Ikermanek–. Barkatu.

–Endika Casares ez da etorri. Oporretan omen da.

–Oporretan!? Urte-sasoi honetan!? Oporrak ez al dituzue abuztuan egiten, ba?

–Bai, baina... Endikak gaur zortzi hartu zituen oporrak.

«Gaur zortzi! Martin Elustondo desagertu zen egun be-rean! Hauxe besterik ez genian behar!» gal-gal batean dabil Ikermanen burua, surik gabe dirakiela.

–Enkarguren bat-edo utzi nahi badiozu –dio telefonistak–, neuk emango diot opor ostean.

–Beranduegi, beranduegi –etsitzen hasia da Ikerman–. Ez duzu jakingo, noski, non bizi den?

–Ez. Beterri aldean, nonbait; baina ez dakit non.

–Eta haren etxeko telefonorik edo?

–Ezta. Gainera, debekatua daukagu etxeko telefonoak-eta ematea bezeroei. Arazo teknikoren bat baldin baduzu, Endikaren bulegoan aurkituko dizut nork lagundua.

–Ez, ez; ez baita lan-kontua. Hau zoritxarra!

–Zer gertatzen da, ba? –jakin nahi izan du telefonistak, orain ahotsa biziago duela.

–Endikaren laguntza behar dudala lehenbailehen, familia baten nahigabea arintzeko. Eta ezin esango dizut besterik.

–Beharbada, Lazkaoko beneditarretan jakingo dute haren berri –dio telefonistak–. Guk osaba daukagu han, eta badakit, osabak esanda, Endika maiz samar izaten dutela bertan. Hementxe daukat osabaren telefono-zenbakia.

Bai Ikermanek azkar asko idatzi ere zenbakia. Baita eskerrak emanez agur esan ere telefonistari.

Lazkaora deitutakoan atezainak esan dio Endika han izan berri dela, bai, baina denbora gutxiko; eta monasteriora iritsi bezain laster bertako liburutegira jo zuela. Hortik aurrerakoak ez direla telefonoz hitz egitekoak.

Ikermanek Lazkaora joatea erabaki du, baina orduari berandu iritzita, biharamunerako utzi du.

Etixerako itzulbidean, bere autoan gidari, bor-bor eka-ri du burua. Etxera iritsi, ordenagailua piztu eta Martin Elustondoren fitxa osatzeari ekin dio, nekez bada ere.

Ikermanek ez du ulertzen zer gertatzen den. Hobeto esan, ez daki zer gertatzen den; beraz, ezin ulertu. Ezer

gutxi daki, egia esan; baina zerbait badaki. Badaki Martin desagertu egin dela, eta badirudi bere gogoz desagertu dela. Badaki Endikak oporrak hartu dituela Martin desagertu zen egun berean. Badaki Martin eta Endika elkarren adiskide zaharrak direla. Badaki biak Txeroki komandoko kide izanak direla. Badaki bahiketa metafisikoa egiteko asmoa izan zutela, duela urte mordoa. Badaki Aranotzen izanak direla, duela bizpahiru urte, ikusketa metafisikoa egiten. Badaki Basajaun delako batekin izan zirela Aranotzen, eta txeroki gisa agertu zituztela beren buruak, eta izen txerokiak eman: Euria Begian (Martin), Txakur Txikia (Endika) eta Basajaun (...?). Badaki liburu zaleak direla hirurak. Badaki Lazkaoko beneditarrekin harremanetan daudela, eta Endika izan berria dela bertan. Badaki Lazkaoko beneditarren biblioteka oso ona dela, Gipuzkoako aberatsena, noski. Badaki beste kontu asko ere; baina konturik garrantzitsuena ez daki.

Ez daki non dagoen Martin eta zer dabilen. Ez daki Endika eta biak elkarrekin dauden ala ez. Ez daki nor den Basajaun eta hasieratik ote dabilen beste biekina Txeroki komandoan. Ez daki zer dabiltzan berrogei urtez gorako gizonak «ikusketa metafisikoak» egiten, horretarako aginpi-dea eta eskumena balute bezala. Ez daki zertara datorren horrenbeste metafisika eta horrenbeste bitxikeria, izen txerokiarena barne.

–Inondik ere, hauei ez zieran onik egin Oteizaren *Quousque Tandem* liburuak –dio Ikermanek bere ordenagailuaren aurrean, arestiko ohar horiek denak idazten amaitu duenean.

–Imanol deituko zioat –erabaki du ondoren, hausnarean bezala jardun eta geroxeago–. Ea zer berri daukan txapelgorriak!

Etxean harrapatu du Imanol, baina ez oso gozo.

–Aizak, Iker! –esan dio berehala ertzainak–. Ahaztu hadi nitaz bolada batean. Utz nazak bake-bakean. Ez baintz bezala, putzu hartan ito izan banintz bezala. Aditu al duk?

–Motel, motel! Ondo petrala habil, horratik! Hori al duk lagunei hitz egiteko modua? Zer duk, pistola beratu egin al zaik edo? A, ez! Bazekiat! Emazteak zigortuta hauka etxean!

–Hoa popatik hartzera! –dio, zakar, ertzainak.

Hor bukatu dira Ikermanen txantxak.

–Barka ezak, Imanol! Ez haut nekarazi nahi; baina Martin Elustondo aurkitu ezinik nabilek eta...

–Nik laguntzea uste baduk, bahago pixka baterako! –haserre dago Imanol ertzaina, hats erre–. Zigortu egin naitek aurrekoan hiri laguntzeagatik. Lanpostuz aldatu naitek. Lanpostuz aldatu eta mehatxu gogorra egin. Hiregatik, jakina! Ibiliko hintzen bala-bala hizketan, eta izorra dadila Imanol!

–Aizak, hi! Nik ez zioat hitz erdirik ere esan inori! Inozoa naizela uste al duk?

–Nolatan jakin ditek, orduan?

–Nik esanda ez, behintzat, Imanol. Eta sentitzen diat hire zigorrarena.

–Jakina: hik sentitu, baina nik nozitu.

Isilik geratu dira biak une batez.

–Kontuz ibil hadi, Iker, oso kontuz ibil hadi! –dio Imanol, baina lehengo garrantasunik gabe–. Bazirudik ur handitan sartu haizela eta.

–Txeroki komandoa ibili dabilen susmoa zeukaat. Martin desagertu zen egun berean, besteak, Endikak, oporrak hartu zitian. Eta litekeena duk hirugarren kidea ere tar-tean ibiltzea.

–Lukas? –galdetu dio ertzainak.

–Lukas!?! Zein Lukas? Nor da Lukas hori?

–Ez zekiat; baina nik irakurri nuen txosten zaharrear, Lukas izenordeko bat aipatzen zuan.

–Txeroki komandoko hirugarren kidea?

–Bai, noski. Baina ez zitean jakin nor zen Lukas hori, eta ezin izan zitean atxilotu. Dena dela, orain hogeiren bat urte pasatxoko kontuak dituk horiek, Iker.

–Orain ere bazebiltzak zer edo zer, Imanol. Hala uste diat.

–Usteak erdia ustel, eta beste erdia, niregatik, hor konpon!

–Tira, tira, Imanol! Kendu beroarena!

–Zer beroarena eta zer otxokuarto!

–Haserre hagoelako mintzo haiz horrela; baina hi ez haiz axolagabea. Desagertutako gizaseme bat aurkitu beharrez nabilek. Aita familiako baten bila.

–Ez diat ezertxo ere jakin nahi horretaz; beraz, ez egidak deitu bolada luze batean. Bale? Ahaztu hadi nitaz. Orain lotara niak, bai?, eta ni ere ahaztu egingo nauk hitaz eta txeroki horietaz. Hor konpon! –esan eta telefonoa eskegi dio ertzainak.

## ERTZAINZA, Gasteiz

Biharamun goizean, BARSako ertzain-buruaren bulegoan dago, idatziz, Imanol ertzainak Ikermanekin hitz egindako hori guztia. Zelatariak ez dira lo egon.

Ertzain-buruak azkar batean irakurri du elkarriketa, eta irribarre egin du bi aldiz: aurrena, «Nolatan jakin di-

tek?» galderarekin; eta azkena, Imanolen bukaerako purrustadarekin.

Beste pasarte batzuek, ordea, ez diote batere graziarik egin, eta fluordun berdez nabarmendu ditu:

«Martin Elustondo aurkitu ezin...»

«Txeroki komandoa ibili dabilen susmoa...»

«Martin desagertu zen egun berean, besteak, Endikak, oporrak hartu...»

«hirugarren kidea ere tartean...»

«Lukas izenordeko bat...»

«orain hogeiren bat urte pasatxoko kontuak...»

«Orain ere bazebiltzak zer edo zer...»

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko barne-sailaz arduratzen den ertzain-buruak, berak nabarmendutako zati horiek behin eta berriro irakurri ondoren, ofizio hauxe bidali du ikerketa-bulegora:

«Duela hogeiren bat urte pasatxoko Txeroki komandoa orain ere zerbait ba ote dabilen susmoa dago. Komando horretako kide izandako Martin Elustondo desagertu egin zen joan den astean. Egund berean, desagertu bezala egin omen zen bigarren komando-kidea, Endika Casares. Hirugarren kidea, Lukas izenordeko bat, ezezaguna dugu.

Oso litekeena da kontu hori guztia hutsaren hurrengoia izatea; baina, hala ere, adi egon».

DNI, Vitoria

Laster, goizeko hamarretarako, Espainiako informazio-zerbitzu nagusia ere jakitun dago. Bai, DNiren Gasteizko ordezkartzako arduradunak bere mahai gainean dauka ertzain-buruak bidalitako idazkiaren kopia.



Bistan da DNik morroi leial bat daukala (bat, gutxienez) Ertzaintzaren Ikerketa sailean, eta badirudi txapelgorrien barne-sailak ez dakiela sator hori badenik ere (are gutxiago, sator horrek egiten dien azpijanaren berri).

Madrileko arduradunak agindu bezala, Gasteizko ordezkariak egoitza nagusira bidali du, segituan, Txeroki komandoari buruz jaso berri duen informazioa.



## 6. Nahi eta ezin

---

Eguerdi-eguerdian agertu da Ikerman Lazkaon. Beneditarren monasterioko txirrina jo ez jo, zalantzan egon da pixka batean, lurralde ezezagun batean sartzerakoan bezala.

Ez du txirrina jo beharrik izan; neska gazte eder batek ireki baitu kristalezko sarrerako atea. Neskak irribarre egin du Ikermanek txirrina ukitzeko beldurrez luzatuta daukan hatza ikustean, eta bularrera bildurik daramatzen liburuak-eta besarkatuz, «Agur!» esan dio pasieran, eta plaza aldera irten da, airosa asko, sorbaldatik behera darion ile luze txirikordatua gaztetasunaren pendulua balitz bezala bere joan-etorrian dantzatuz.

Ustekabean harrapatutako Ikermanek ahopean totelka erantzun dio agurrari eta, sarrerako ateari bizkar emanda, neskari begira geratu da liluraturik, bere baitan pentsatuz aingeru xarmagarriak ere badirela monasterioetan: ikustea egokitu behar!

Barre-algaratxo batzuk entzun ditu Ikermanek bere gibelean. Itzuli da sarrera aldera, eta hamaika neska-mutil ikusi ditu, denak sasoikoak, denak liburuak-eta daramatzatenak, denak geldirik eta denak berari begira, irribarrez. Ez da gutxiagorako; aho zabalik baitago Ikerman atariaren erdi-erdian: ahoa bete hortz eta gazte haien irteera oztopatzen!

Ahoa ixtea eta alde batera kentzea, biak batera egin ditu orain. Baita lotsagorritu ere, pixka bat, babo-itxura hartuz bere buruari.

–Barkatu.

Pasabidea libre ikusi orduko, hor atera dira gazteak atea betean, aingeruari jarraiki, kontutxoak esanez elkarri eta barreari eutsi ezinik. Neska batzuek, ibilian-ibilian

atertu ere egin gabe, burua jira eta Ikermani begiratzen diote, orain zeharka, beraiek ere ez dakiten indar misterio-  
tsu batek eragingo balie bezala.

–Unibertsitateko ikasleak dira. Euskaldun berriak. EGA ateratzeko prestatzen ari dira euskaltegian.

Horrela mintzatu zaio Ikermani, monasterioko ezkarat-  
zetik, irribarre gozoko gizaseme heldua, ondotxo heldua,  
soineko beltzez jantzia. Bertako lekaidea, noski. Zaharra  
ez ezik, gizon zuhurra dirudi eta arduratsua. Harrera ona  
egiten iaioa, gainera.

–Jainkoak egun on! Atezaina nauzu. Ongi etorri! –dio  
orain, kristalezko ateari zabalik eutsiz Ikerman sartzen den  
bitartean.

–Eskerrik asko.

–Eta? Zer nahi zenuke?

–Endika Casaresen bila nabil. Atzo telefonoz deitu nizun  
haren galdez, eta hemen izan berria zela esan zenidan.

–Bai, jauna. Gaur zortzi-edo hemen zen. Sartu-atera bat  
egin zuen. Denbora gutxiko kontua.

–Liburutegira etorri omen zen.

–Baita. Monasteriora iritsi bezain laster, nirekin hitz bi  
egin eta bibliotekara jo zuen. Etxekoa bezala dugu-eta, ez  
zuen izan nik bidea erakutsi beharrik.

–Ez duzu jakingo, noski, zer eginkizun zuen liburute-  
gian? Zeren bila zebilen edo?

–Ez dakit, eta ez dagokit jakitea –erantzun dio patxadaz  
lekaideak–. Bakoitzak bere lanak, eta ez besterenak. Bai-  
na, gure araudiak dioen bezala, «anaien artean, aurrea har  
bezaio batak besteari atseginak erakusten».

–Ez nuen muturra sartu nahi. Barkatu.

–Ez da bekatu.

Bertsolari-puntua dauka lekaideak, dirudienez. Eta irribarre sendoa. Baita Ikermanentzako borondatea ere.

–Deituko al diogu liburuzainari? –galdetu dio atezain horrek.

–Bai, mesedez.

Atalondoko bere gelara sartu eta, telefonoz deitu ordez, hor hasi da lekaidea txirrin-joka: txirrin, trin, trin, txirrin. Dirudienez, txirrinaren hotsa monasterioko bazter guztietara iristeko modua egina dute; baina ordutegi jakinean bakarrik erabiltzen omen dute sistema hori.

–Hori da liburuzainari deitzeko kodea: luze, labur, labur eta luze –dio lekaideak–. Nonahi ari delarik ere, bibliotekan, inprentan nahiz baratzean, laster duzu hemen.

–Baratzean ere egiten al duzue?

–Ez gutxi ere, Jainkoari eskerrak! Bertatik sortzen dugu etxerako adina barazki, fruitu eta fruta urte guztirako. Hegazti eta abar ere badugu, eta pozik horrenbestez, Jainkoa lagun. Lan eginez bizi gara: *Ora et labora*, otoi-tza eta lana.

–Eta inprenta?

–Inprentako lana ere geure-geurea dugu beneditarrok –dio lekaideak, ganoraz egindako lanarekiko euskaldunak erakutsi ohi duen harrotasun garbiaz–. Orain, informatikak ekarri dituen berrikuntzak direla-eta, ez dugu jarduten lehen adina, baina...

–Jakina, informatika ez baita katekesia! –bota dio Ikermanek. Azkarregi esan ere, nonbait.

Kankailukeria hori entzutean, irribarre berezia agertu da atezainaren ezpainetan, apustua irabazia daukala badakien baserritararena bezalakoa.

–Gure anaietako bi, bi baike, informatikan adituak dira –dio, batere harrokeriarik gabe, gozo-gozo, lekaideak.

Hor lotsagorritu zaigu, berriro ere, Ikerman; baina oraingoan aingerurik ez da izan tarteko.

Lekaideak, gizon zuhurrak, burua apaldu eta hizketan segi du:

–Oso garesti joko liguke, gure adituek diotenez, berrikuntza informatiko horiek denak eskuratzeak, eta ohiko inprentarekin segitzen dugu. Alemanak ditugu makinak, sendoak eta seguruak. Horiei esker argitaratzen dugu, besteak beste, geure aldizkaria. Baita zabalkunderako behar diren guztiak ere: geuk idatzi eta geuk inprimatu. Martxa polita daukagu, Jainkoari eskerrak.

–Liburuak eta lekaideak elkarren adiskide zaharrak gara, adiskide minak –dio, atalondotik, Ikerman askorik ohartu gabe heldu den beste lekaide batek–. Egun on Jainkoak!

–Baita zuri ere –erantzun dio Ikermanek.

Etorri berri hori omen da liburuzaina. Ikermanek atezainari eskerrak eman ondoren, ezkaratza zeharkatu, eskailera zabal argi bat igo eta bibliotekako irakurgelan jarri dira biak.

–Gipuzkoako liburu-bildumarik aberatsenetakoa duzu hemen, zeure eskumenean –hasi zaio lekaidea, eta bibliotekaren edukia azaldu dio atseginez–. Badituzu larrutxak: alegia, abere-larruan idatzitako pergaminozko liburuak. Badituzu inkunableak: alegia, inprenta asmatu eta 1500. urte bitartean argitaratutako liburuak. Badituzu liburu gotikoak: alegia, idazkera gotikodun letra-moldeak erabiliz XVI. mendean-eta inprimatutakoak. Badituzu orduz geroztiko liburu-bilduma nagusiak ere, bereziki klasikoen lanak eta eliz gurasoenak.

Soka luzea, lekaideak.

–Badituzu euskarazko liburu gehienak, zaharrak eta berriak. Badituzu, baina ikusteko bakarrik, XX. mendean

Euskal Herriko kaleetan ipini izan ziren kartel-iragarki asko eta asko. Badituzu aldizkari-bildumak, batez ere Jainkoari nahiz Euskal Herriari buruzkoak. Badituzu...

–Aizu, barkatu, baina... –luzetsita, Ikermanek eten egin dio azalpena–. Endika Casaresen berri jakin nahi nuke.

–Zer?

–Endikaren bila nabilela. Agi danean, hemen izan zenuen gaur zortzi, eta zuri galdetzea otu zait.

–Aa, Endika! Bai, joan den astean etorri zen, bai, Axularren *Gero* liburua dela-eta.

–Axularren *Gero*-ren berri jakin nahi al zuen?

–Bai, jauna –dio lekaideak–. Oso-osu interesaturik agertu zen liburu horren bigarren zatiarekin. Ez da harritzekoa, oraindik inork argitu gabeko misterioa baitugu hor.

Ikermani irakatsi zioten, ozta-ozta ikasi bazuen ere, Axularren *Gero* dela euskaraz hitz lau idatzitako lehen liburua: lehenengoa eta egundainoko onenetakoa. Adierazi zioten Joanes Leizarragaren *Testamentu Berria* zaharragoa dela, bai; baina, itzulpena denez, liburu hori ez dela euskal literaturan sailkatzen, baizik eta euskal testuetan. Esan zioten *Gero* liburuaren mamia zein omen den ere: luzamendutan ibiltzeak dakarren kaltea, egitekoak geroako gerorako uzteak dakarren galera gogorra. Baina irakasleek ez zioten esan Axularren liburuak inolako misteriorik zuenik.

–Zer misterio? –galdetu dio lekaideari, *Gero* inoiz irakurri ez izanaren damu apur batez.

–Hasteko, Axular ez zen gizon bat bakarra izan; bi baizik.

–Bi gizon?

–Bi gizon, bai. Biak elkarren osaba-ilobak, biak apaizak, biak Sarako erretore izanak, eta biak izen-abizen berekoak: Pedro Agerre.

–Eta biak idazleak?

–Baita. Hor ere bada misterioa, baina bada bestelako deigarrik. Izan ere, liburuaren izenburu osoa da *Gero, bi partetan partitua eta berezia*; baina liburu bakarra baizik ez da ezagutzen. Jakitunek diote bi parteak batera ageri direla liburuan, biak nahasian; baina hori ere ez dakite ziur.

–Liburua ikusita ez al dago jakiterik?

–Ez. Liburuak, guk ezagutzen dugun *Gero* liburuak, bi zati bezala ditu, bai; baina lehenengo eta bigarren zatien arteko desoreka ez da normala: bata 44 atal ditu, besteak 16 besterik ez. Gainera, lehenengo zatia omen den horren bukaera ez dago konklusorik; zati nagusi hori bukatu gabe bezala ageri da.

–Zergatik ote?

–Ez dakit, baina baliteke adinagatik izatea. Egizu kontu Axular 1556. urtean jaio zela (Atsular baserrian, Urdazubin, Nafarroan) eta 1644an hil (Saran, Lapurdin). Beraz, 88 urte-edo zituen hil zenean.

–Oso adin handiko gizona, garai hartarako.

–Hortxe dago koska! Izan ere, Axular hil baino urtebete lehenago argitaratu baitzen *Gero* liburua, 1643an; hain zuzen, Axular 87 urteko agurea zelarik. Bestalde, inork ere ez daki ziur-ziur nork inprimatu zuen liburua.

–Ez al zuen, ba, Axularrek berak inprimatu?

–Bai, baina zein Axularrek: osabak ala ilobak? –galdetu dio lekaideak, eta ikusirik Ikermanek ez dakiela zer erantzun, pausaldi baten ondoren, bere iritzia agertu du liburuzain horrek:

–Ez dakit, baina, nik esan behar banu, esango nuke ilobak inprimatu zuela liburua, ordurako osaba oso zahartua zelako, agian ezindua. Gehiago esango dizut: nire iritzi laburrean, ilobak idatzia da guk ezagutzen dugun *Gero* liburuaren bigarren zatia, 16 ataleko hori. Baina lehenengo zatia, 44 atalekoa, hori osabak idatzia da, eta horregatik





Axular, deabruari ziria sartu zion euskal idazlea, itzal-errainua galdu zuena

ez dauka konklusiorik: zati nagusi hori bukatu gabe utzi zuelako, noski, zahartzaroko gaitzek eragindako ezinaren ezinez.

Teoria polita, mamitsua eta argigarria: izen bereko bi idazle, eta liburu bakarra, bien izenekoa. Izen bat eta izan bi. Eta biak Sarako erretore izanik, elkarrekin bizi zirenak.

–Hori argitu nahirik zebilen, beraz, Endika? –galdetu du Ikermanen, lana aurreratu duen ustean.

–Ez –erantzun dio, ordea, liburuzainak–. Nik esan gabe ere, Endikak bazekien hori eta horrenbeste.

«Joño! –txunditua da Ikerman–. Txeroki hauek, Oteiza-rena ez ezik, Axularren misterioa ere ikasia ditek. Hik ere hasi beharko duk espabilatzen, Iker!».

–Joanategiren koadernoaz galdezka etorri zen Endika –esan dio orain lekaideak.

–Joanategirena?

–Bai.

–Eta nor da Joanategi?

Liburuzainak Ikermani begiratu dio eta, hitzez erantzun ordez, hiztegi bat atera du apalategitik. Ireki du hiztegia, bilaketa azkar egin, zabaldu eta, 931. orrialdean ipiniz hatz erakuslea, Ikermani eman dio. Honek ozenki irakurri du besteak erakutsitako testua:

**joankor.** *izenondoa.* Gutxi irauten duena, berehala bukatzen dena. *Okinaren ogia joankor da, etxe-ogia jori.*

Ikermanek, jolasti, ezkerreko begia kliskatu dio buru-eraginka ari zaion lekaideari. Txantxaz ohartu da beste hori, eta irribarre egin du, harik eta Ikerman bigarrengoz irakurtzen hasi den arte.

**Joanategi, Basilio.** Euskal idazle eta erlijioso behe-nafarra (Isuritze, 1837 – Lazkao, 1921). Apaiz beneditar zelarik, Belokeko

monasterioan apaizgaien irakasle izan zen (1880). Jazarpen erlijioso medio, alde egin behar izan zuen eta Lazkaon finkatu zen (1903).

–Ipar Euskal Herritik, Beloketik, ihes etorritako gure anaia beneditarren fundazioa duzu Lazkaoko monasterio hau –esanez eten du lekaideak Ikermanen irakurketa–. Eta Joanategik sortua duzu gure biblioteka.

–Eta koadernoak?

–Koadernoak aldean ekarri zuen, altxor bat bezala, Beloketik ihes etorri zenean. Egia esan, Joanategi bera baino berrehun urte zaharragoa da koadernoak; XVII. mendekoa baita.

–Zer koaderno da, ba, hori?

–Eskuizkribua da, dena eskuz idatzitako testu zaharra. Eta non eskuratu zuen jakin nahi baduzu, segi irakurtzen.

–Hemen ez du hori jakiteko moduko konturik aipatzen –dio Ikermanek, hiztegia itzuliz lekaideari.

–Beste honetan, orduan –eta hiztegi bata jaso, bestea atera, hitza bilatu, aurkitu, testua gainbegiratu, buruaz baiezeko keinua egin, Ikermani begiratu, eztarriko lakarrak kendu eta hor hasi da ozenki irakurtzen liburuzaina:

**Joanategi** (...) Apaiz egin zen 1862an (...) eta 1880an Belokeko monasterio beneditarrean sartu zen.

–Herriko apaiz izan zen Joanategi, hemezortzi urtez –dio lekaideak, irakurketa etenez–. Gerora sartu zen gure anaidian, orduan 43 urteko gizasemea zelarik. Baina ordurako aspaldi samar eskuratua zuen koadernoak; apaiz egon zen estreinako herrian eskuratu baitzuen, bera bizi izan zen erretore-etxekeo ganbaran.

–Non? Zein herritako apaiza izan zen Joanategi?

–Hiztegi honek badakar horren berri –esanez, lekaideak Ikermanen begi aurrean ipini du testua. Baita honek gotik irakurri ere.

**Joanategi** (...) Apaiz egin zen 1862an. Saran erretorearen laguntzaile (...) izan zen lehenik.

–Saran? Sarako erretore izan ez zen, ba, Axular? –Ikermanek.

–Bai, jakina.

–Eta Sarako erretore-etxean idatzi zuen *Gero* liburua.

–Bai, horixe.

–Berrehun urte beranduago Joanategi bizi izan zen etxe berean.

–Hain zuzen.

–Eta Joanategiren koadernoak erretore-etxe horretan zegoen eta garai hartakoa da.

–Hala dirudi.

–Beraz, baliteke eskuizkribu hori Axularrena izatea.

–Esango nuke.

–Axularrena al da!?

–Bai, noski.

–Ez da, ba, izango *Gero* liburuari falta zaion zatia!?

Joaldi luzea egin du txirrinak orain, joaldi bakarra.

–Hara! Ordu bata bost gutxi! –dio liburuzainak–. Barkatu, baina presaka naiz orain. Zoaz atezainarengana. Hark esango dizu zer egin.

Ikerman ustekabez ustekabe dabil-eta, bibliotekako atean topo egin du atezainarekin. Bila zetorkion, nonbait.

–Zatoz nirekin! –dio lekaideak–. Eta gogoratu monasterioko legea: isiltasuna nagusi. Ez hitzik egin inori, ezinbestean ez bada.

Hor doaz biak, dia-dia oinez, pasabide txukun askoak ibiliz, Ikermanek nora ez dakiela. Ez da beldur, badaki leku onean dagoela. Gauza batekin dago harrituta, ordea.

–Nork esan behar zian txerokiak literatura-kontuan zebiltzanik!

Ozenki atera zaio, oharkabean-edo, burutazioa. Le-  
kaideak hori entzun, gelditu, urrikaldu eta, isiltasunaren  
araua hautsiz, deblauki esan dio:

–Ai, gizajoa! Endika eta horiek literatura grinaz dabil-  
tzala uste baduzu, ederki jaioa zaudel!

Jota porru eginda utzi du Ikerman, bi lagunaren desager-  
penaren zioa aurkitua uste zuena.

–Sartu –esan dio lekaideak, ate bat zabalduz–, eseri eta  
itxoin.

Eta paperezko orri bat eskuratu dio.



## 7. Lagunak nolako ezagunak halako

---

Non eseria aukeran dauka Ikermanek, eliza huts-hutsik baitago. Atetik gertueneko bankuan jarri da, eserleku luzearen ertz batean, kanpoko atetik gertueneko ertzean.

Elizan inortxo ere ikusten ez duenez, inolako hotsik entzuten ez duenez, egongiro ederra dagoenez, aulkian lasai-lasai jarri eta aldare gaineko irudiei erreparatu die Ikermanek bere jarlekutik, arretaz begiraturaz, banan-banan begiraturaz gizaseme-alaba santuen hango irudiei.

Aukeran, bi irudi bereizi ditu. Bata, erretaularen erdi-erdian dagoena, nagusiena, emakumea da, baina ez erregina: emakumeak liburua dauka ezkerreko eskuan, eta uso zuria eskuineko sorbaldan. Bestea gizaseme bizarduna da, baina ez jauna: zazpi oineko makila dauka eskuineko eskuan, eta bele beltza ezkerreko sorbaldan. Beleak ogi osoa dauka, mokoia betean, gizon bizardunarentzako ekarria. Honek ere badu bere liburua, Ikerman oraintxe oihartu denez. Emakumea eta gizaseme bizardun hori ez daude elkarri begira, ezta gutxiagorik ere; emakumea gora begira baitago, eta bizarduna, aurrera begira.

«Urruti samar zegok eta ez diat garbi ikusten, baina... Bizardun hori hiri begira zegok, Iker!».

Irudipen horiek uxatzeko esku-keinada bat egin du Ikermanek, eta hor ikusi du oraindik eskuan daukala atezainak eman dion fotokopia. Ahaztuta zeukan. Zer ote den irakurtzen hasi da:

*Jaun indartsu, egiazko Jaungoiko,  
Zuk eratzen duzu denboraldia,  
Zuk apaintzen argi berritan goiza,  
bero-girotzen duzu eguerdia.  
Itzal gugan borrokaren sugarra,  
ken gugandik bero kaltegarria;  
emaiguzu gorputzeko osasuna,  
sor bihotzetan bake-eguzkia.*

Horixe irakurri du Ikermanek, eta horixe kantatuz hasi dira otoitzean lekaide guztiak batera. Ikerman ohartu ere egin gabe sartuak dira denak elizan, beste ate batetik, eta erretaularen azpiko aldean elkarri erantsitako zur landuzko jarleku sendoetan banaka jarrita, zirkulu erdia osatu dute denen artean, biribil erdia, denek ere bizkar emanaz absideko hiru hornei, denek ere aurpegi emanaz aldare nagusiari eta eliztar jendeari.

Orain, baina, eliztar jendea, jende guztia, lagun bakar bat baino ez da: Ikerman, hain zuzen.

Lekaideak kantu gregorianoa abesten hasiak dira, bi taldetan, txandaka, aurrena alde batekoak eta gero beste-koak, bertso edo ahapaldi bana kantatuz, talde batak besteari erantzunez.

Koru horretatik aparte samar dago-eta, Ikermanek ezin du garbi ulertu zer ote dioten kantuz; baina, tarteka-marteka aditzen dituen hitz bakanak lagun, badaki euskaraz ari direla.

«Kantu gregorianoa euskaraz, alajaina! Ez nian asko uste! Ondo ari dituk, gainera!».

Laburra izan da eguerdiro-eguerdiroko otoitzaldi hori: kantu eta guzti, hamarren bat minutu. Eta ondoren, otor-dua.

Jangela handia dute monasterioan, luzea batez ere, eta argitsua, berebiziko leihoduna, urruti gabeko mendi aldera.



Sabaiaren alderik alde, zurezko gapirioak, sarri, trintxaz dotore asko landutako irudi ugaridunak. Ikermanek, bere buru gainean egokitutako irudietan, hor ikusi ditu sagarra, oilarra, udarea, txerria eta molde askotako lauburuak eta izarrak.

Mahaia, berriz, ezteietakoa bezain luzea, U letraren gisa eratua, hain zuzen, inork bizkar ez emateko beste inori, denak elkarren aurrez aurre jartzeko. Mahaiaren beso luze bien tarteko hutsunea, metro pare bateko zabalgunea, zerbitzari-lana egiteko txanda duen lekaidearen joan-etorrietarako ibilbidea da. Mahaiburuan, hiru lekaide, abata jarri delarik beste bien erdian.

Abata hasi eta lekaide guztiek batera, kantuz bedein-katu dituzte mahaia eta mahaikoak, jan-edariak eta jatun-edaleak, bazkaria eta bazkaldarrak, Jainkoari eskertuz gosea eta asea.

Eseri dira denak, mahai-zerbitzaria ez beste guztiak; baina inor ez da bazkaltzen hasi, eta Ikermanek laster atzendu du ogia hartzeko luzatua zuen eskua. Inork ez du hitzik egiten, ez orain eta ez lehen, eta isiltasun bake-tsu horretan argi eta garbi entzun da abatak jo berri duen txilina. Txilin-hotsaren oihartzun gardena uhinka galdu orduko, lekaideetako bat, bere bazkaria gerorako utzita, ozenki irakurtzen hasi da jangelaren beste muturretik: *Carta abierta de las comunidades cristianas de Colombia a la Iglesia Vasca*. Berehala heldu da zerbitzaria janariarekin, eta mahaikide guztiak bazkaltzen hasi dira.

Atsegina da horrela bazkaltzea, lasai, isilik. Irakurlea ozenki ari da; baina Ikermanek egiten dion jaramonagatik, ahuntzaren gau erdiko eztularen pareko dira horko *situación, grave, necesidad, ayuda, miseria, narcotráfico, autoridades corruptas, desesperanza, rebeldes* eta enparauak. Zer urrun dagoen Kamerun!

«Bai eltzekari goxoa! Amarena bezalakoa, eztiro-eztiroan egosia lapikoan. Odolki-muturra ere primerakoa. Hau duk mauka, hau!».

Matrailezurrak dantzatu, trago bat ardo egin eta gizon-berritu.

*Txilin*, berriro ere. Ikerman ohartu da berak ez beste guztiek bukatua dutela bazkaria eta beraren zain daudela. Oso-osorik irentsi du azken sagar puska. Kostata, baina pasarazi du zintzurrean behera.

Irakurleak, Hego Amerikako ardaila utzita, San Benitoren erregela aldarrikatu du:

### **3. Atalburua: Anaiak batzarrera deitzeaz**

Elkartegian joan-etorri handiko gauzak diren bakoitzean, dei beza Abatak anaidi osoa eta ager beza zer den jardungai. Eta anaien iritzia entzunik, iraul beza bere buruan, eta egin beza hobekien derizkiona. Batzarrera anaia guztiak deitzeko esan dugu; izan ere, askotan, Jainkoak gazteari agertzen dio hoberenik dena.

*Txilin*, azkenekoz, abatak. Denak zutitu, aulkiak-eta bildu, esker onez kantatu, txandan-txandan eta isil-isilik irten jangelatik, eta hor sakabanatu dira lekaide guztiak. Bazkalosteko atsedenaldea dute eta siesta-giro ezin ederragoa dago (eta noiz ez?) goizean goiz jaikita dabiltzanak lo-kuluxka egiteko, nahi duenak behintzat.

Ikerman bakar-bakarrik geratu da, zer egin ez dakiela; baina berehala heldu zaio atezaina. Hitzik ere esan gabe, ezkaratzera lagundu dio, kristalezko sarrerako atalondora.

–Sartu –berriro lekaideak, beste ate bat zabalduz–, eta itxoin.

Eta paperezko orri bat eskuratu dio, arropa beltz artetik aterata: beste fotokopia bat. Ondoren, bostekoa eman eta joan egin da.

Egongela edo harrera-gela gisako batean dago Ikerman. Bi leiho handi kalera, kristal-beira bikoitzeakoak, kanpoko zarata moteltzeko horietakoak. Zurezko aresak bazterretan, mahai lauki sendo bat erdian, eta dozena erdiren bat aulki.

Ateaz beste ertzeko aulkian eserita, atezainak eman berri dion paperari begiratu dio Ikermanek. Euskal hiztegi baten lehenengo liburuko 398. orrialdearen fotokopia da.

Axularri buruzko sarrera du nagusi, orrialdearen hiru laurdenak, eta Ikermanen begiak zuzen-zuzen joan dira atezainak fluordun beilegiz nabarmendutako pasarteetara:

**Axular, Pedro** (...) Predikari handi bezain jakintsua, Saran idatzi zuen *Gero* liburua eta bertan gorpuztu zen herri gogoak gorde duen Axularren irudi erdi mitikoa: Axular, kristau jakituriaren eredu, Salamancan eta deabruaren eskolan ikasi ondoren deabrua garaitu zuen apaiza da. (...) Idazle oparoa eta didaktikoa izaki, Axularren obrak ez du mistizismo apurrik ere erakusten. (...) Erudizio maila handia du.

Ikerman harrituta geratu da atezainak bereziki azpimaraturatutako zazpi hitz horiekin. Horko deabrua gorabehera!

Harridura areagotu egin zaio, bestalde, oraintxe ohartu denean azkeneko ordubete osoan, hitzik egin gabe daraman aldi honetan, ahaztuta eduki dituela txerokiak eta gainerrako kezkarriak.

Ixo! *Klink-klink-klink*... Ezkaratzetik datoz klinkateko horiek, eta pauso-hotsak ere bai. Ikermanek korrika eta presaka ezkutatu du fotokopia, badaezpada ere.

–Kafea hartzea gustatuko zaizula pentsatu dugu eta... –esanez sartu da lekaide bat, azpila bete ontzi dakarrela.

–Zalea naiz, aizu! –Ikermanek–. Eskerrik asko!

–Ttantta ttipittoa ere on da –abatak, bestearen atzetik sartuz, azpilean klinka-klinka dakartzan botilak eta edalontziak ereriko zaizkion beldurrez.

Horiek denak segurtatu ondoren, elkar agurtu, eta hor antolatu dute mahaia: hango kikera, kafeontzi, esneontzi, azukre-ontzi eta abar. Laster da beltz kikeren hondo zuria, eta laster, ostera zuri.

–Mmm! Hau kafearen goxoa! –dio abatak.

–Bai! –tentatu du Ikermanek–. Honelakoak behar dute izan kafeak eta emakumeak: beltzak, beroak eta gozoak.

Kontrako eztarrira joan bide zaio kafea abatari, eta hor hasi da eztulka, arnasari buelta eman ezinik. Jaiki da, bizkor, beste lekaidea eta, *Jesus! Jesus!* esanez, eskua zabaldua, zartako galanta eman dio bizkarrean bere nagusiari. Zirti-zarta!, berriro, bizkarreko galantak, *San Blas, San Blas! Ito arte arnas!* esanez.

Abatak, musua gorri-gorri, begiak malkotan, bizkarra bero-bero... nahikoa lan badu bere onera etortzen. Arnasarik gabez hitzik ere ezin eta, esku-keinuka hasi da zerbait adierazi nahirik; baina oker adierazi du, ezinbestean, bere nahia. Izan ere, beste lekaide prestua jesuska eta zartaka hasi zaionean ostera, abatak salto batean zutitu eta ihes egin baitio gelatik, azkar baino azkarrago.

Ikerman bakarrik geratu da beste lekaidearekin: biak bakarrik eta biak isilik.

–Estuasun larriak izaten dira horiek, zera! –dio, serio-serio, lekaide zartako-emaileak. Serio-serio, baina begiak ñir-ñir.

Ikermanek baietz dio buruaz, ezpainak estu-estu eginda barreari eusteko.

Biak ere, antza, barre egiteko gogoari eutsi ezinik; oso itsusia baita inoren ezbeharra barregarri hartzea. Baina sa-beletik datorren barregura ezin menperatu guztiz buruak, eta hor hasi dira ahopean barrez, kur-kur-kur. Elkar horrela ikusteak, gainera, are eta barrezale handiagoa ematen die biei, eta ez da giro, oraintxe, Lazkao alde horretan.

–Ene, ene, ene! Ito ez naizenean! –esanez itzuli zaie abata, eta hasperen nabarmen askoak eginez, malkoak txukatu bitartean. Hortxe lehertu dira beste biak. A zer barre-algarak! Aurrena, Ikermanek eta lekaideak: abatari

begiratu, gero elkarri, eta segi barrez, hesteak bota behar-  
rean. Hurrena, berriz, abata bera bihurtu zaie algara-kide.  
Gizon jakintsua, bere buruari barre giten dakiena.

Barruak baretu dituztenean, sosegatu dira hirurak. Ez  
berehalaxe, horratik! Eta, Ikermanek inondik ere espero  
ez zuena, abatak eskerrak eman dizkio Jainkoari umore  
onagatik.

«To! Barreari dagokionean, ezberdin askoa zuan *El nom-  
bre de la rosa*. Bestelakoetan bai, antza gogorra: hau ere  
monasterioa duk eta hauek ere beneditarrak. Eta bibliote-  
kako misterioa».

–Axularren koadernoak ikus al dezaket? –dapa!, Iker-  
manek.

Elkarri begiratu diote beste biek, batere aztoratu gabe.

–Ez dakigu ziur Axularrena denik –dio abatak.

–Nornahirena delarik ere, ikus al dezaket?

–Ez dago gure esku. Endikak dauka.

–Eta Endika, non da?

–Martin Elustondorekin –danba!, abatak–. Baina ez da-  
kigu non.

Biak elkarrekin diren ustean dago Ikerman; baina us-  
teak, erdia ustel. Abata, ordea, ez dabil ustezko kontuekin,  
ez da zalantzaz mintzatu, baizik eta ziur-ziur.

–Nolatan dakizue Endika eta Martin biak elkarrekin  
direla?

–Endikak berak hala esan zigulako hemen izan zenean,  
joan den astean.

–Onez al dabilta?

–Bai, noski; geroztik ezbeharrik gertatu ez bazaie,  
behintzat.

–Onez badabilta, zergatik ez dira ageri, ez bata eta ez  
bestea, aspaldi honetan? Nolatan desagertu dira?

–Horixe ez dakigu –dio abatak–. Egia esan, ez genekien desagertuak zirenik ere. Atzo jakin genuen.

–Atzo? –Ikermanek.

–Atzo, bai, atzo. Martinen emazteak esan zigun, zu zarelata eta.

–Ni naizela eta? –harrituta, Ikermanek.

–Bai. Atzo, zuk Endikaz galdezka deitu ostean, guk ere zerbait susmatu genuen. Baita telefonoa dantzatu ere batera eta bestera. Orduan jakin genuen biak desagertuak direla. Martinen emazteak esan zigun, gainera, zuri laguntzeko, ahalegina. Horregatik eman dizu liburuzainak Joanategiren koadernoaren berri eta Axularren *Gero* liburuaren inguruko gorabeheren berri.

–Mesedez eskatzen dizugu –dio beste lekaideak Ikermani– ez esateko inori, ezta inortxori ere, koaderno hori Axularrena denik.

–Axularrena al da, ba?

–Uste horretan gaude, baina ez dakigu ziur. Dakigun bakarra da Joanategik, Sarako apaiz izan zen garaian, alderatu egin zituela koadernoko idazkera eta Axularrena (Sarako garai hartako eliz liburu zaharretan azaltzen diren ezkontza-agiri, bataio-agiri eta abarretako Axularren idazkera), eta biak berdin-berdinak aurkitu omen zituela.

–Zer dio Axularrek koaderno horretan?

–Ez dakigu.

–Ez dakizuela!? Ez al duzue irakurri?

–Irakurri, bai; baina ezin ulertu izan dugu askorik.

–Zergatik ez?

–Idazkera zahar-zaharra da, eta paleografoa behar da ulertu ahal izateko.

Ikerman isilik geratu da, bere buruari galdezka zer makina-mota ote den paleografoa.

–Ez badakizu ere –dio lekaideak–, paleografoa da antzinarako idazkerak eta idazkiak aztertzen jakin badakien pertsona. Baina, euskal kultura gehienbat ahozkoa izan denez, ia ez dago paleografo euskaldunik: euskal testu zaharren berri ongi dakien aditurik, ia bat ere ez.

–Horregatik –darrai abatak–, Endika lehengo astean etorri zitzaigunean esanez paleografo on bat aurkitu zuela, eta koaderno eskatuz hari eramateko, pozik utzi genion.

–Esan al zizuen nor ote den paleografo euskaltzale hori?

–Ez, eta ez dakigu emakumezkoa dela besterik.

–Nongoa denik? Non aurkitu zuenik? Izenik?

–Ezta ezertxo ere.

–Zergatik eman zenioten koaderno bera? Fotokopiatzea asko zenuten.

–Beldur ginen papera hondatuko ote genuen; oso zaharra baita. Atera kontuak: Sarako erretore-etxekeo ganbaran nolabait egona, saguen menpe-eta, berrehun urtez; gero Beloken eta Idiazabalen; eta azkenaldian, ehun urte egin ditu hemen, Lazkaon.

–Eta orain, desagertu egin da, Endika eta Martinekin batera.

Isilik geratu dira hirurak. Bi lekaideak, burua makur antzean dutela; eta Ikerman, haiei begira.

–Koadernoko orrialdeen mikrofilm edo argazkirik ere ez duzue izango, noski?

–Ez; zoritxarrez, ez.

–Horren gauza baliosa uzteko adina konfiantza ba al duzue Endikarekin?

–Bai –erantzun dio abatak, zalantzarik gabe–. Aspaldidanik ezagutzen dugu, ezagutzen ditugu. Adiskideak ditugu eta etxekeo bezala. Gizon jatorrak dira, bihotz garbi-

koak, bila dabiltzanak, saiatuak, hitzekoak, euskaltzaleak, Euskal Herri zaleak, eskuzabalak, jazarpena nozitutakoak, luzaro etsi gabe aurrera egiten dutenak...

«Eta txerokiak» pentsatu du Ikermanek, pixka bat harrituta; ez baitzuen espero horrelako gorespen sendo-ugaririk.

–Errukitzen dakitenak dira –dio beste lekaideak–. Barkatzen dakitenak: nor bere buruari nahiz besteri barkatzen badakitenak.

–Gudariak dira –abatak, berriz–; biziaren gudariak. Horien bidea eta gurea, lekaideona, ezberdinak dira; baina aldi berean oso elkarren antzekoak. Nolanahi ere den, elkarren senide gara.

–Barkatu honen gordin esatea –Ikermanek, gainezka–, baina horiek ere izango dute, ba, ipurdian zuloa?

–Zuk ez, ala? Zuk ez al duzu akatsik? –bizi-bizi, beste lekaideak.

–Jakina baietz!

–Beharrik, ez baikara aingerukiak.

–Axularren koaderno dela eta –hitz beste egin du abatak–, bada bertan, idazkeraz gainera, beste zera ulergaitzik.

–Zer?

–Eskuizkribuan tarteka-marteka ageri diren zenbait ikur. Ez dira alfabetoko letrak, ez gureak eta ez besteren alfabetokoak: ez dira latinoak, ez grekoak, ez zirilikoak, ez arabiarrik, ez hebraitarrik, ez feniziarrik eta ez beste inongo alfabetotakoak, guk dakigunez behintzat.

–Sinboloak dirudite, sistema antolaturen bateko sinboloak; baina ez dakigu zein sistematakoak, ez baita horrelakorik ez fisikan, ez matematikan, ez musikan eta ez bestelakoetan.



–Eliza erromanikoetan, Nafarroako Eunate-eta, bada esanahi ezezaguneko ikurrik asko –dio abatak–; baina horiek ere ez dira Axularren koadernoan ageri direnetakoak.

–Ez horixe! –dio beste lekaideak–. Eunatekoen aldean, guztiz ezberdinak dira Axularrenak.

–Ez ote dira marrazki soilak? –galdetu die Ikermanek.

–Ez, noski. Ikurrak dirudite, eta Axularren eskuizkribuan ageri diren bezala, zerbait esan nahi dute. Baina ez dakigu zer.

–Begira zer-nolakoak diren! –esanez, ikur ezezagun horien marrazkiak erakutsi dizkio Ikermani abatak.



Ikermanek ere ez die ezeren tankerarik eman. Aurreneko biak zenbakiak iruditu zaizkio, bia eta hirua; baina besteak ez, inondik ere ez.

Txirrinak joaldi bakarra egin du, joaldi luze-luzea, aspaldi hartan isilik zegoen eta nagjak atera nahi izan balitu bezala.

Zutitu dira bi lekaideak, eta mahaia jasotzen hasi.

–Barkatu, baina lanera goaz –dio abatak Ikermani–. Eraman marrazkiak, agian beharko dituzu-eta. Tori! Beste hau ere zuretzat da! –eta monasterioan argitaratzen duten aldizkaria eman dio.

–Aldizkariaren ezaugarritako txoriak eta labirintoa Martinek erantsiak dira –dio beste lekaideak–. Azaleko argazkia, berriz, Aralarko Saltarri, hori Endikak egina duzu.

–Eskerrik asko denagatik; eta bereziki zuen harreragatik.

–Berrizko ere, hementxe izango gaituzu, Jainkoak nahi badu.

–Agur, beraz –Ikermanek, bostekoa eman ez biei.

–Hau burua! Ia ahaztu zitzaidan! –abatak. Eta paper-mutur bat eman dio, esanez Endikak monasterioko erantzungailuan mezu horixe utzi zuela desagertu zen egunean.

Arreta biziz irakurri du Ikermanek mezu laburra:

«Durangon eta Hendaian, elizaz kanpoko aldean dago argibidea, eta bertara goaz».

–Zer esan nahi du honek?

–Ez dakit –erantzun dio abatak–. Eta ez dakit «bertara» hori Durangori dagokion ala Hendaia. Edo biei. Badakit, besteak beste, naziak bonbakatu zutela Durangoko eliza, eta Hendaia, Bitxintxo izenekoa, Euskal Herriko zaharretakoa omen dela, on Manuel Lekuonak zioenez.

–Eta zer?

–Besterik ez dakit. Banoa, berandu baino lehen; monasterioko nagusia naizenez, besteren eredu izatea baitagokit. Agur, eta izango dugu elkarren berri!

Eta hor joan da, Ikermani bostekoa emanda atarian.

## 8. Durango, Durango izan eta izango

---

–Durangoko eliza!? Zein eliza? Hemen baditugu hiru eliza: Andra Mariaren eliza hau, Santa Anakoa eta San Pedro, Tabirakoa. Badugu, gainera, San Faustoko ermita. Eta hiru komentu, eliza banarekin: San Agustin, San Antonio eta Santa Susana.

Santu gehiegi Ikermanentzat, ez baitaki zeren bila dabilen.

–Egingo nuke San Agustineko elizaren bila zabiltzala –erantsi du aitonak, Ikerman galduta ikusita–; kulturaren zabalkunderako erabiltzen baita, gaur egun, eliza izandako hori.

–Ez, ez; kultura ez!

Hori entzutean, barretxoan egin du aitonak, eliz atarian erratza pasatzen ari zen aitonak.

–Orduan, hauxe duzu Durangoko eliza nagusia, parrokia, bere izenez, Uribarriko Andra Mariaren eliza deritzona. Ni neu, berriz, hemengo sakristauri laguntzen aritzen naiz. Jubilatuta nago eta, hementxe dihardut, ahalegina egiten.

–Urte askoan! –dio Ikermanek.

–Zerua ikustera etorri al zara?

–Zer?

–Hau barregura ematen didate atsoek! Denek zerura joan nahi... baina ahalik eta beranduen! Inork hil nahi ez! Je! Gure eliza honetan, ordea, hil beharrik izan gabe ere ikus daiteke zerua.

–A, bai? Nolatan, ba?

–Erraz! Koruaren aurreko aldean izarrez josita baitago sabaia, alboetan eguzkia eta ilargia ageri direla. Ikuskizun

ederra! Pozik erakutsiko nizuke; baina orain ez, jendea me-  
zatan dago eta.

–Beste batean beharko, beraz –Ikermanek, lasaiago.

–Nahi duzunean –aitonak badu borondatea–. Orain, zuk  
itxaron hemen, kanpoan, meza bukatu arte. Nik jakinara-  
ziko diot apaizari hemen zaudela, eta laster helduko zaizu.  
Hark ere badauka aldizkari hori: *Jaunaren deia*.

Lazkaoko beneditarren aldizkaria ezagutu egin du ai-  
tona horrek, Ikermanek eskutan dakarrena, ahaztuta ba-  
zeukan ere.

Durangoko eliz atarian edo zimitorioan bakarrik-edo  
geratu denean, bertako estalpe itzela mirestu du Ikerma-  
nek. Beti gustatu izan zaizkio zurezko egitura zaharrak:  
horren sendoak, horren ederki eginak, horren zuhurki ka-  
tramilatua.

«Ingeniaritza-lan bikaina, eta erraldoia, den-dena zu-  
rezkoa. Hau edertasuna!»

Eliz atariko estalpe itzelean, jendearen pasabide on-  
doan, adineko andre zabal bat dago bere saltokian: gozo-  
kiak, jostailu merkeak eta umeentzako litxarrerriak salgai.

Saltokiaren atzeko aldean, ohatila baten gainean ese-  
rita, indioak eta hinduak bezala zangoak bilduta jarrita,  
berrogeita hamarren bat urteko gizaseme bat etengabe-  
ko marmarrean ari zaio bere buruari, bere gisa ahopetik  
hizketan, imintzio eta keinu nabarmenak eginez. Eria da,  
gizajoa!: eria, elbarria, atzeratua edo zoro otzana, antza.

Saltokidun andre zabalak zaintzen du eria, ama batek  
bere seme tontoa bezala, goxo baina sendo begiratzuz. Ba-  
liteke, gainera, andre zabala eta gizon eria elkarren ama-  
semeak izatea ere. Zer bestela?

Amak, beharbada, seme eri hori mantendu ahal izateko  
saltzen ditu gozokiak eta litxarrerriak. Hemen, eliz atari ho-  
netan, egunero, eguraldiaren aldarte guztiak nozituz, uda

eta negu, hotz eta bero, euri eta ateri, haize eta sargori... beti besteren haurrak dituelarik bezero. Eta besteren seme-alabak osasuntsuak izaki, ongi jantziak, gehiegikerian heziak.

Ikermanek, burua jira eta, elizaz kanpoko aldeko horma-zuloko Andramari gotiko ederrari begiratu dio, jainkozko semea magalean duen harrizko irudi garbiari, naturaz gaineko ama distiratsuari. Ostera burua jira eta, aurrean duen litxarrerria-saltokiko ama-semeei begiratu die gupidaz, maitasunez edota errukiz, eta malenkoniaren behe-lainoa sumatu du bere baitan.

–Zer nahi zenuke? –galdetu dio andre zabalak, ama bihoztiak, salgai daukan jenero zirtzil guztia begietaratuz esku-besoan keinu adierazkor batez.

Hodeietatik bat-batean lurrera eraitsia duten hegalaria balitz bezala, Ikermanek ozta-ozta asmatu du erantzuten.

–Ezer ez, eskerrik asko! Begira nengoen, besterik gabe!

Eta saltoki ondotik urrunduz, aterpearen itzulinguru guztian dagoen harrizko petril luzean eseri da, apaizaren zain.

Andre zabala, susmati-edo, zehar begira dauka-eta, Ikerman hor hasi da Lazkaoko abatak oparitutako aldizkaria begiratzen, saltokiko andreari bere burua ezkutatzu paperaren ostean.

Estalgarri hutsa zen aldizkaria, ordea, erakargarri nagusi gertatu zaio orain. Izan ere, halabeharrak zabaldu dion orrialdean, Martin Elustondok sinatutako artikulua azaldu baitzaio, begien aurrean!

«To! Hi bila habilen txerokia duk hori, Iker! Ea zer dioen!»

Aldizkariko artikulua horretan, Martinek zera dio: Arantzazuko Ama Birjina Aralarren agertu zela lehenik, Igara-

tzan; eta agertu, hiru aldiz agertu zitzaiola artzain zebilen mutil gazte bati, eta hiruretan aterpe eske mintzatu zitzaio-la amezketar horri, esanez:

«Aita zurea arotza da eta,  
itun bat egiozu:  
HIRU latatxo, ZAZPI teilatxo,  
orain askoko dituzu».

Baina Amezketako herriko jendeak batere aterperik egin nahi izan ez ziolako, horregatik joan zela Arantzazura, salto batean joan ere (gaur egun, oraindik, Amabirjin Harria deitzen zaion horretan bere oinatza utziz), eta Arantzazun azaldu zela gero.

Aranozko ingeniari agronomoak esandako *Aralar arra, Aizkorri emea* etorri zaio gogora Ikermani; baina kontu hori alde batera utzi du, hain zuzen ere, artikulua berean Martinen gaztelaniazko testu honekin topo egitean:

Un anciano príncipe tibetano explicó al profesor de geología, explorador y escritor ruso Ferdinand Ossendowski, autor de *Beast, Mens and Gods* (1923), que, hace miles de años, un hombre santo desapareció bajo tierra conduciendo a su tribu, sin que aquellas gentes volvieran nunca más, y que el lugar adonde fueron, llamado Agharta, que nadie sabe dónde está, se halla alumbrado por una luz especial que permite el desarrollo de las plantas, y «produce la supervivencia humana».

Unos años antes, allá por el año 1917, el sacerdote y antropólogo vasco Don Jose Migel Barandiaran escuchaba un relato casi idéntico a unos pastores de nuestra sierra sagrada de Aralar (...)

Este repliegue subterráneo no debe confundirse con inferior, ya que, en las culturas megalíticas, lo subterráneo suele localizarse en lo alto, en el interior de las montañas, y está asociado al culto de la caverna y del «lugar central».

# LA LEYENDA DE NUESTRA SEÑORA DE IGARATZA

*«Un anciano príncipe tibetano explicó al profesor de geología, explorador y escritor ruso Ferdinand Ossendowski, autor de 'Beasts, Mens and Gods': Bestias, Hombres y Dioses (1923), que, hace más de sesenta mil años, un hombre santo desapareció bajo tierra conduciendo a su tribu, sin que aquellas gentes volvieran nunca más, y que el lugar adonde fueron, llamado AGHARTA, que nadie sabe dónde está, se halla alumbrado por una luz especial que permite el desarrollo de las plantas y "produce la supervivencia humana".»*

UNOS años antes, allá por el año 1917, el sacerdote y antropólogo vasco D. Jose Miguel de Barandiaran escuchaba un relato casi idéntico a unos pastores que apacentaban sus ganados en las estribaciones occidentales de la sierra (sagrada) de Aralar. Contaban que, en tiempos antiquísimos, cuando no llovía, ni se habían visto nubes en el cielo, andaban los "gentiles" distraídos en juegos y diversiones en el prado de Argaintxabaleta cuando vieron aparecer por el Norte la primera nube: una misteriosa nube luminosa que se precipitaba sobre ellos, y todos se asustaron mucho. Había entre ellos un anciano de cuatrocientos años que vivía retirado en su cabaña y fueron a sacarlo de allí para que viera el extraño fenómeno; pero el anciano no lo veía porque no podía abrir los ojos. Entonces los su-

yos le separaron los parpados con unas horquillas de haya. El anciano abuelo al ver la nube, dijo: *Gazteak, nere umeak! Gure denbora joan duk: KIXMI mundura jaiio duk eta gu galkduak gaituk!* (Hijos míos, esta perdida nuestra raza.) Dicho esto, corrieron todos despavoridos por el bosque de Intzesao y desaparecieron por las simas o "entradas" de Arraztaran, donde todavía existe un dolmen con el nombre de Jentillamí.

Este relato, según opina el mismo Barandiaran, no deja de ser científicamente cierto, pues todo él tiende a conmemorar dos acontecimientos históricos: La venida de Jesucristo y la destrucción de los "gentiles" y de su cultura. Este repliegue subterráneo no debe confundirse con inferior, ya que,

en las culturas megalíticas lo subterráneo suele localizarse en lo alto, en el interior de las montañas y está asociado al culto de la caverna y del "lugar central". Teniendo presente la asimilación de la caverna a la cavidad del corazón, considerado como centro del ser o huevo del mundo.

Pero a pesar de las deformaciones producidas por el tiempo, este relato transmitido por tradición oral, todavía refleja un tiempo y un espacio muy determinados. Evidentemente un tiempo ya olvidado. La ausencia de lluvia y de nubes solo permite pensar en un pasado muy remoto, antediluviano, cercano a la Creación, a una armonía natural del mundo y de sus habitantes, pues estos "se divertían en juegos", es decir, un tiempo de existencia inocen-

Téngase presente la asimilación de la caverna a la cavidad del corazón, considerado como centro del Ser (...)

¿Qué significan estas desapariciones en masa, estos acontecimientos sorprendentes que marcan un cambio fundamental en la existencia de una humanidad? ¿Desapariciones masivas que relatan el fin de una civilización o, si se prefiere (ya que hablamos de lo vasco, y para que nadie se ofenda) la desaparición de una cultura, de una etnia? O, ¿por qué no decirlo?, comunican la desaparición de un mundo.

Estos acontecimientos (y otros antecedentes tanto o más significativos) no dejan de estar relacionados con las numerosas estaciones prehistóricas diseminadas por toda la sierra de Aralar...

–Harri horiek ikustera etorriko zinen, noski? –galderak eten dio irakurketa.

Aitonak esandako apaiza heldu zaio Ikermani, bostekoa emanaz. Ikermanen burua, ordea, ulertu ezinik dago nola arraiotan ikus ote daitezkeen Durangon Aralarko harriak: trikuharriak, zutarriak, Saltarri, Amabirjin Harria...

–Barkatu, baina ez dut aditu zer esan didazun.

–Harri horiek ikustera etorriko zinela pentsatu dut –apaizak, bigarrenkoz.

–Zein harri, baina?

–Labirintoa.

–Zer labirinto!?

–Oinpean daukazuna, gizona! Durangoko labirintoa! –dio apaizak, harrituta Ikermanen harriduraz–. Hona hemen, zure eta bion oinpean Durangoko labirinto bikoitz erraldoia. Gainera, esku artean duzun aldizkarian ere labirinto bat ageri ez da, ba?

Halaxe izan ere, aldizkaria hartuta berehalaxe erakutsi dionez. Zuzen egoki apaiza; baina ezjakin ibilki Ikerman.



–Horregatik pentsatu dut harri horiek ikustera etorriko zinela –apaizak, azkenekoz.

Ikermanek begiratu ditu oinpeko «harri horiek» eta hor ikusi du ibilbide bat erakusten dutela, ibilbide luze eta korapilatua, labirinto bat osatuz, eliz atariko aterpe guztiaren harrizko zorua oso-osorik hartzen duen labirintoa, horrela, begiz jota, 33 metro-edo luze eta 11 metro-edo zabal dituen labirinto erraldoia.



Chartres-eko labirintoaren marrazkia

–Aldizkarian ageri dena Chartres-eko katedraleko labirintoa omen da, munduko ospetsuena –dio apaizak–. Horren aldean, Durangoko hau askoz ere handiagoa da, eta bikoitza, gainera. Eta eder askoa, ikus dezakezunez.

–Ez nekien honen berri –aitortu dio Ikermanek.

–Ez da harriztekoa; Durangon labirintoa badugunik ere ez daki ia inork-eta, ezta bertako jendeak ere. Ez dakit zeren zain dauden Gerediaga elkartekoak-eta. Altxor honek merezi du.

–Noizkoa da? Zer dakizu honetaz? –dio Ikermanek.

–Nik ez dakit ezer labirintoaz, ez bada 1938. urtean berregin zutela, bonbaketak desegindako labirinto zaharra-

ren ordez –dio apaizak–. Baina, aditzera dudanez, labirinto zaharra ezberdina zen.

–Nolakoa?

–Gaur egun inork ez daki esaten nolakoa zen edota zer-nolako irudiak zituen. Guztiz bikaina zela diote, aparta; baina besterik ez dakigu, zoritxarrez.

–Bonbakatuz apurtu al zuten labirintoa!?

–Bai, bonbaz eraso baitzioten Durangoko herri osoari! Zoritxarreko zozomikoteak haiek, 1937ko martxoko azken eguna eta apirilaren hasierako haiek! Franco jeneralaren agindupeko hegazkin faxistek behin eta berriro bonbakatu zuten herria eta herriko jende soila, bostehun lagunetik gora hilez. Munduan inoiz inork egin gabea zuen, artean, horrelako sarraskirik. Eta Durangok nozitu zuen; eta ondoren, Gernikak. Eta Gernikakoa are eta okerragoa izan zen, horratik!

Oihu egin dio apaizari, eliz ataritik, norbaitek. Lehengo aitona da, oraindik ere erratza eskuan daramala, eta berori airean astinduz, dantzatzuz, zirimolak eginez, apaizari deika.

–Banoa! –erantzun dio honek. Eta gero Ikermani– Bar-katu! ETBko lan-taldea zain daukat, nonbait; datorren igandeko meza grabatu nahi baitute, telebistaz emateko.


–Bai, bai; segi lasai, eta eskerrik asko!

–Ez horregatik. Agur, eta Durangoko berri gehiago jakin nahi baduzu, galdetu museoko arduradunari, hura jakitun dago eta.

–Gogoan izango dut –erantzun dio Ikermanek–. Baina zoaz lehenbailehen, Makila-kiski haserretu baino lehen.

Hor datorkie aitona, izan ere, erratz dantzaria aurretik duela.

–Banoala, gizona, banoala! –esan dio apaizak aitona presatiari.



Durangoko labirinto bikainaren plano zehatza

–Zerua erakutsi nahi izan dit lehen –barrez, Ikerma-  
nek.

–Txilibistro ederra dago hori! –barrez apaiza ere–. Baina,  
ez badakizu ere, egia da zeru polit-polita daukagula eliz  
barruko sabaian. Agur!

Eta hor joan da apaiza, Ikerman labirintoan utzita.

Alde batera eta bestera ibiliz, labirintoko ehunka eta  
alehunka harrik osatzen duten irudiaz jabetu da: irudi  
simetrikoa da guztiz, ardatzaren alde bietako irudi erdiak  
elkarren berdin-berdinak dituena. Ardatza, ardatz iku-  
sezina, kaletik zimitoriorako sarbidetik hasi eta elizako  
ateraino doan bide zuzenaren marra da. Hego aldetik ipar  
alderako norabide zehatza markatzen duen marra berbe-  
ra, noski. Bai. Marra ikusezin horrek zimitorioaren erdi-  
erdian dagoen harrizko lauki handi bat zeharkatzen du,  
zuzen-zuzen, erdi-erditik. Laukiaren alde bietan, zortzi  
izpidun izar bana eta borobil bana. Guztira, lauki bat,  
zortziko izar bi eta zirkulu bi: denak harriz marraztuak,  
den-denak irudi geometriko zehatzak, denak sein metro  
luzekoak edo... Eta denak elkarri uztartuak milaka harriz  
marraztutako pasabideaz. Etengabeko pasabide hori (ba-  
karra, bat eta bera) alde guztietara hedatzen da irudien  
multzo osoa bere baitan biltzeraino eta eliz atariko zorua  
oso-osorik hartzeraino. Durangoko labirinto erraldoiaren  
bikaina!

Ikerman labirintoko bide meharra ibiltzen hasi da,  
urratsez urrats, oina oinaren aurrean jarririk, pasabide-  
tik saihestu gabe, ertzetako harriak zapaldu gabe, alboko  
kontrabidera pasa gabe, buru-belarri, arreta guztiz, bidea  
galtzeko beldurrez.

Orain zuzen doa, orain zortzi izpiko izarretik zirkulura  
darama pasabideak, orain borobil horretan barrura doa zu-  
rrunbilo batean bezala, orain barrutik kanpora ibiltzea ego-  
kitu zaio zirkulutik irteteraino, orain kanpoko aldeko pasa-

bidea hartu eta zimitorioaren beste alderaino joan beharra egokitu zaio, labirintoaren beste muturreraino, gero...

Halako batean, bigarren zirkuluko kiribilean sartuta dabilelarik, zerbaiten susmoa hartu du Ikermanek: bere atzetik norbait ote dabilen edo. Orain arte burua makurtuta etengabe lurrera begira ibili bada ere labirintoan ez galtzeko, orain gelditu, burua jaso eta atzera begiratu du. Bai, badu bidelagun bat, bada beste norbait Ikermanen ibilbideari jarraiki labirintoan barrena dabilena isil-isilik eta poz-irudian: gozoki-saltzailearen seme tonto-elbarria.

Ikerman harrিতuta geratu da aurrena, lotsatuta bezala hurrena. Areago lotsatu da, ordea, jende mordo begira daukatela konturatu eta haietako batzuei barre-irudi gaiztoa ikusi dienean ezpainenetan.

Labirintoko berezko irteera aurkitu beharra bertan behera utzita, Ikermanek zuzenean alde egiteko bidea hartu du bizi-bizi, jende artetik pasatzean burua zutituz, baina inori begiratu gabe.

Horiek horrela, Ikerman ez da ohartu gizon eriari sortarazi dion larritasunaz, ez ditu entzun seme elbarriak ama zabalari egin dizkion negar-oihu saminak, ez ditu ikusi giza-joak armiarma-sare erraldoi uste duen labirinto horretatik irten nahi eta ezinik egin dituen estuasunezko keinuak.

Ikerman ez da jabetu ez jendearen barreez eta ez ama sendoak, dia-dia etorrita, seme tontoari eman dion belar-rondokoaz. Zapla!

-Txatxu hori! -dio andreak ozen-ozenki, dagoeneko al-dendua den Ikermani begira-. Ezer erosi ez, baina bazter-rak nahastu, bai! Bestela ere nahikoa lan ez bagenu bezala! Txorora! Txorora alaena! Txorogaiztoa, ez besterena!

Jendea barrez, Ikermanen bizkar eta andrearen kontu-  
ra; baina ama horri, bost axola.

-Eta hi, txo, hator hona gizajo hori!

Hori esanik, andre zabalak, mantal-aurreko patrikatik atera berri duen fantasiatzko mukizapiaz aurpegia estali dio bere seme tontoari, sudurzuloak urratzeraino zintz eginarazi dio eta mukiak kendu.

Ondoren, eriaren malko ugariak txukatzeko astirik hartu gabe, galtzarbetik heldu dio eta bere saltoki ondora eramandu, erdi arrastaka, trepete inguruko mutikoak goxolapurretan hasiko zaizkion beldurrez.

## 9. Arian-arian, zuloa harrian

---

Asper-asper egin da Ikerman oraintxe: aspertu, nekatu, goibeldu, gogotxartu, ernegatu, gogaitu, nazkatu, haserretu, amorratu eta etsipendu.

«Zer habil, batera eta bestera, haizea harrapatu nahirik bezala? Zer katramila da hau? Zer misterio dago hemen, zer ezkutuki, gero eta ilunagotzen ari zaiana, gero eta korapilatzenago? Egiten duan urrats bakoitzeko, orduan eta urrutiago bezala hago helmugatik, labirintoan bezala».

Labirintoa bururatu izanak, labirinto hitz hutsak, he-bainduta bezala utzi du Ikerman, jo eta porru eginda bezala. Berehalaxe, ordea, telefonoaren zintzarria hoska:

–Egun on, Iker! Lazkaotik deitzen dizut!

Monasterioko liburuzaina da, Axularren koadernoaren berri-eta eman zion lekaidea.

–Hendaiako argibideaz zerbait aurkitu dut. Hori dela eta deitu dizut, abataren aginduz.

–Eta, zer berri duzu? –galdetu dio Ikermanek, gogora ekarriz Endikaren azken mezua: «Durangon eta Hendaiain, elizaz kanpoko aldean dago argibidea, eta bertara goaz».

–Hendaiako gurutzea.

–Hendaiako gurutzea... zer?

–Ez al duzu aditzera Hendaiako gurutzea, herriko plazakoa?

–Ez –Ikermanek–. Bestela ere, nahikoa gurutze daukat nik neure buruarekin.

–Nork ez? –lekaideak. Eta barre egin du (ala barre egin dio?).

–Bota!

–Hendaiako gurutzea elizaz kanpo dago, eta mezu bat dauka.

–Hori esateko deitu al didazu? Nik baino hobeto dakizu, noski, gurutze askotan daudela idazkunak.

–Jakina! Baina ez Hendaiako gurutzekoa bezalakoak.

–Zer du, ba, berezirik?

–Testuaren eraketa. Begira! Idazkun horrek dio *OCRUXAVES PESUNICA*. Alde batera, ulerterraza da *O crux ave spes unica* hori: alegia, «Oi, gurutzea! Agur, esperantza bakar!». Oso erraza, baina... Zuk latinez ba al dakizu? Gramatika eta...?

Horixe behar zuen Ikermanek une honetan: gramatika!

–Kontua da –dio liburuzainak– oker bat omen dagoela esaldi horretan. Izan ere, Fulcanelli hermetista ospetsuak dioenez (Fulcanelliren liburu batean aurkitu baitut Hendaiakoa), *unica* horren lekuan *unicus* maskulinoa behar luke, ondo izatera.

–Eta zer?

–Okerra dirudiena zuzen omen dagoela: alegia, nahita idatzi zutela horrela, berariaz. Hortaz, goiko *spes* hori *pes* irakurri behar da, «esperantza» hitzaren ordez «oina» itzuliz: gurutzearen oina.

–Zer du Hendaiako gurutzearen oinak horren bakana izateko?


–Lau alderdi ditu: lauak, irudidunak. Batean, eguzkia ageri da, izar artean. Bigarreanean, ilargia. Hirugarrenean, izarra, zortzikoa, zortzi izpidun izarra...

Arestian aitona Txilibistrok erakutsi nahi izan zion Durangoko zerua otu zaio Ikermani.

–Bestean, berriz –dio orain lekaideak–, biribil antzeko bat ageri da, erdian daukan gurutzeaz lau zati berdinean, eta zati bakoitzean A letra bana.



Idazkuna Hendaiaiko gurutzean



–Zer esan nahi du horrek guztiak? –Ikermanek.

–Nik ez dakit, baina esango dizut zer irakurri dudan.

–Esan, ba!

–Hermetisten jakituria baliatuz ateratako ondorioak dakartza Fulcanellik.

–Ea, ba, zer ondorio diren horiek.

–Hasteko, Hendaiaiko gurutzearen beste aldeko *INRI* idazkunak esanahi bi dituena. Batetik, ohiko *Iesus Nazarenius Rex Iudaeorum*: alegia, «Jesus nazaretarra juduen errege». Bestetik, eta hau kontu berria da, esan nahi omen du *Igne Natura Renovatur Integra*.

–Euskaraz, mesedez.

–«Suak Natura Eraberrituko Osorik» –itzuli dio lekai-deak.

Bonba atomikoa, gerra nuklearra eta apokalipsiko irudiak etorri zaizkio burura Ikermani, ozono-geruzako zuloa, planeta gehiegi berotu izana eta klimaren aldaketa bortitzak eragindako arriskuez gainera.

–Fulcanellik dio, gainera, beste mezu bat ere atera daitekeela, baldin eta frantsesez irakurtzen bada latinezko testua, bere adiera sekretu eta guzti. Bigarren mezua hauxe omen da: *Il est écrit que la vie se réfugie en un seul espace*. «Idatzia dago bizitza leku bakar batean babestuko dela».

–Eta zein da, Fulcanelliren ustez, bizitzaren babesleku bakar hori? Non dago?

–Gutako bakoitzak bilatu behar omen du leku hori. Aurkitzen duenak, horrek bakarrik salbatuko omen du bere burua.

–Hori kontu zaharra da, gizona, zuk eta biok ongi dakigunez.

–Hendaiaiko gurutzea ere bai –dio lekaideak–. Azkenaldion, 1842. urteaz gozotik, elizaren ondoan dago, herriko

plazan. Baina XIX. mende erdi arte, hilerrian omen zegoen, kanposantuan.

–Bai kokaleku egokia, munduaren bukaerako gurutzearentzat!

–Bai, ezta? Baina, jakizu, ironia eta iseka guztiak gora-behera, munduaren bukaera ez dela txantxetakoia izango. Ikusi besterik ez dago San Joanek zer dioen Apokalipsi liburuan: zazpi zigiluak, lau zaldunak, Babiloniaren hondamendia, Jerusalem zerutiarra...

–...mendiek elkar joko dute, su hartu eta surtan kiskaliko dira, eta abar –Ikermanek ere badaki liburu horren berri-. Baina zuk sinistu egiten al duzu kontu hori?

–Kristau fededuna naiz, eta lekaide beneditarra –erantzun dio liburuzainak-. Horixe sinesten dudala Ebanjelioak dioena!

–Hendaiako gurutzeaz ari nintzaizun; hobeto esan, Fulcanellik dioenaz. Sinesten al duzu hori?

–Ni ezjakina naiz, baina Jainkoagan dut uste on.

–Eta Endikak eta Martinek, sinesten ote dute?

–Ni ez naiz nor erantzuteko. Baina Hendaiako gurutzea aipatu zutenerako, zer edo zer izango da. Eta gizon horiek ez dira jolasean ibiltzen honelako gaiak tarteko direnean.

–Munduaren bukaera badator, beraz –Ikermanek, sinestegaitz.

–Hori Jaungoikoak beste inork ez daki –dio lekaideak.

–Ba al da gertakari izugarri hori badatorren aztarnarik, zantzurik, seinalerik?

–Gure zaharrek ziotenez, eta hau aspaldi-aspalditik ahoz aho etorritako euskal tradizioa da, azken aldia heldu izanaren ezaugarri batzuk nabarmen-nabarmen ikusiko dira: atean-atean denda edo taberna, bide zabalak noranahi joateko eta bidegurutze ugari...

–Horiek behintzat ageri asko ditugu Euskal Herrian  
–aitortu dio Ikermanek–. Bada, oraintxe, denda eta taberna  
ia ateoro; eta bidea, zer esanik ez!

–Beste aztarnarik ere iragarri ziguten arbasoek: lur zati  
guzti-guztiak mugarrituta egongo zirela, gizonak suzko gur-  
dieten ibiliko zirela...

–Baita! –harrituta, Ikermanek–. Horiek ere bete dira.

–Baina oraindik bete gabeko iragarpenik ere bada, nik  
dakidala behintzat –dio orain lekaideak.

–Eskerrak! –ez zegoen lasai Ikerman–. Esan!

–Haurrak zuhaitzetan sortuko direla, eta arbolak ihartu  
gingo direla, eta...

–Kristalezko ontzietan sortzea adinakoa izango da, bai.

–...eta gizasemeek, emakumeengandik iheska, arbola  
gainetara igo beharko dutela.

–Horixe polita! Gustura ikusiko nuke! –barrez, Ikerma-  
nek. Baina ez du barre luzerik egin. «To! Ondo pentsatuz  
gero, ez ote da jada gertatzen ari? Ez baita giro oraintxe  
emakume sutsuekin!».

–Beste euskaldun zahar batzuek zioten, agi danean,  
hari sendoz eutsia dagoela gure mundu hau, eta hari ho-  
riek eten-edo egitean, orduan amaituko direla hemengo  
kontuak eta komediak.

–Baina nondik atera zituzten iragarpen horiek? Zer ote  
zekiten gure arbasoek guk ez dakigunik? Zer funts dute  
uste horiek?

–Batek daki! –erantzun dio lekaideak.

–Zu, behintzat, ondo jakitun zaude!

–Eta zertan aritu naizela uste duzu azken ordu haue-  
tan? Zuri lagungarri gerta dakizukeen zernahi bilatzen li-  
burutegian, gure nagusiaren aginduz. Horrela aurkitu dut  
Hendaiako gurutzearena.

–A! Orduan, eskerrik asko zuri eta abatari, bioi.

–Beste zerbait ere aurkitu dut. Beste bi jakingarri.

–A, bai?

–Bata, euskarazko liburua da, Teresio Elorrieta delako fraide karmeldarrak idatzia eta Larrean argitaratua 1986an.

–Zer liburu da hori?

–*Mendatako profeta* izenekoa.

–Bizkaiko Mendatakoa? Gernika gaineko herri txiki politekoa?

–Bai, jakina. Hangoa baitzen Eulalio Intxausti Gomeztegi, «Mendatako profeta» esaten ziotena. Mendatan jaio zen 1819. urtean (laster dira berrehun urte), eta bertan bizi izan zen, Mendaturo auzoko Etxebarri baserrian.

«Horrenbeste xehetasun dakarrena ez duk ipuin hutsa izango».

–Eta zer da profeta izanaren kontu hori?

–Esango al dizut nondik zetorkion? Liburua hementxe daukat eta, nahi baduzu, zatitxo bat irakurriko dizut; gizon horri gertatua gauza harrigarria baita. Eta egia omen da.

–Bai, bai; esan, esan –erantzun dio Ikermanek–. Nik pozik entzungo dizut, eta telefono-enpresako akziodunak ere ez dira triste izango.

–Hori besterik ez bada, adi! –dio lekaideak, eta bizkaierazko pasarte hauxe irakurri:

«Beiñola Santiagotan, erri-jaietan oitura zanez, gure Eulalio Kortezubira joan zan, ezkonduta egoan bere arreba-  
ren Salbide baserrira. Lasai ta polito an igaro eban eguna,  
ta gabaz etxera etorteko beranduegi egin yakon. Mendata  
urruntxu egiten zan, eta bertarako bide zidorra, beresi edo  
zugazti usu-illunetatik be igaro bear izanagaz, bildurgarria  
egiten zan.

–Geratu adi bertan biyar arte –esaten eutsan arrebeak eta beste senitartekoak be bai. Baiña berak Jaungoikoaren bildurra baiño besterik ez eukola ta, ezetz eta ezetz erantzuten eban, kaskallu egiñaz. Gaberdi inguruan urten eban Salbidetik.

Ugaldeko Santa Ana baseleiz aurretik igaroteko, ez dakit Eulaliok aitiarenik egin baeban, baina konturatu zaneke, “Gabon” esan eutsan eleiz ostetik andra batek.

–Gabon, zeuri be –erantzun eutsan Eulaliok bildurtu baga.

–Nora zoaz? –diñotso andreak.

–Ni Mendatara noa –dirautso Eulaliok.

–Ba, neuk be, ortixek igaro bear dot. Bidean alkarren lagun izango gara –eta lagun jarri yakon andrea Mendaturirarte.

Pozik artu eban Eulaliok biderako laguntasuna; baiña bereala konturatu zan arek andreak asko ta larregi ekiala. Bidez-bide joan-da-joan, ixildu baga izketan ziarduela; bakan eta ikaragarritzko jazokizunak iragartzen eutsazan, geroago jazo zireanak. Arriturik eta siñestu ezinean entzuten eutsozan Eulaliok andreari bere iragarpen eta esate guztiak, eta buruan kakotuta lez geratzen yakozan esakun guztiok».

–Sorgin-kontua dirudi –esanez irakurketa eten dio Ikermanek lekaideari.

–Zaude, zaude beste pixkatxo batean! Entzun zer gertatu zen banandu zirenean! –eta irakurtzen jarraitu du lekaideak.

«Alkarri “Gabon” esanaz agurtzean, Eulaliok bere etxerantza egin eban eta andreak aurrerantz. Baiña Eulaliok bereala biurtu eban bere begia andreak norantza egiten eban jakin gurarik, eta... ez eban ezer ikusi, ez andrazkorik ez aren oñatzik!

Ez ikuste orrek biotz-ikara aundia emon eutson Eulaliori, bestelako susmo ta asmaketak bere buru ta gogoan sortuaz. Etxeratutean be bere gela, lo-tokia, eguna-laxe argi-argi ikusten eban eta egite onek be gehiago larritu eban».

–Hortik aurrerakoak jakin nahi badituzu, eta bada ha-  
maikatxo jakingarri –dio orain lekaideak–, liburua irakurri  
beharko duzu.

–Aizu! Barkatu, baina –dio Ikermanek– ez duzu, ba,  
uste izango ipuin horiek sinesteko bezain inozoa naizenik,  
ezta?

–Gizonak ez du izan behar ez sinesbera eta ez sines-  
gogorra.

–Baina zuk sorginekin-eta sinesten al duzu, ba?

–Nik, ez; jakina ezetz! –erantzun dio barre antzo lekai-  
deak–. Esaera zaharrak dioena egiten dut nik: «Ez sinistu  
badirela, ez esan ez direnik!».

–Banengoen, ba!

–Dena den, eta zerbait izango da, Mendatako baserritar  
haren bizitza arrunt aldatu zen orduz geroztik. Andre hari  
entzundako iragarpenak adierazten hasi zen, eta hortik  
datorkio profetarena.

–Ez dago zaila geroko gerorako, auskalo noizko, iragar-  
penak egiten: epe oso luzera egin, hizkera iluna erabili, izen  
zehatzik gabe, eta abar. Eta gero, sasi-iragarlea hil eta gero,  
harrapa ezak euli hura buztanetik!

–Mendatako profetaren iragarpenak bete egin dira, or-  
dea.

–A, bai? Esate baterako, zein?

–Bakarren batzuk baizik ez dizkizut aipatuko –eran-  
tzun dio lekaideak– liburuak dakarren 30 iragarpeneko  
zerrendatik:

«Bide zabal barriekaz bide-gurutzez beterik geratuko da  
Bizkaia; etxe barriak uste ez diran tokietan egingo dira.

Oñestua lez arin egiten ibiliko dira burdiak.

Gizonaren berbea edo itza mundu guztian entzungo da.

Argiak, ipurtargiak lez, argi egiten egongo dira, ta ori toki guztietan izango da.

Aidezko txorik agertuko dira, baiña an barrukoak, gizonak izango dira.

Emengoak bestiakaz nastau egingo dira.

Aidezko txoriak Gernika erreko dabe, lau alderdietatik sua emonda. Prusianoak izango dira.

Bilbon, txindurri-metan lez, kalean alkarri oztopo egiten ibiliko da jendea.

Jakitura jakituri gainean etorriko da, ta orduan txarto ibiliko da mundua.

Gizona, bere izakeran, len baiño txikiagoa izango da».

–Orain dela 150 urte egin zituen iragarpenok Mendatako profetak. Jakina da bere garaiko jende askok zorotzat hartu zuela, euren ustez erabat ezinezkoak ziren gauzok iragartzegatik –dio lekaideak–. Baina zuk zeuk epaitu, bete diren ala ez.

Ikermanek ez dio ezer erantzun. Badu zer epaitua, baina ez dago zaila epaitzen; bistan dagoenak ez baitu ispilurik behar.


–Jakizu –dio orain lekaideak– Mendatako profetak ez zuela hitz erdirik ere esan munduaren azkenaz.

Telefonoaren alde bietan, batean txit ozenki eta bestean apalki, monasterioko txirrinaren hotsa entzun dute: luze, labur, labur eta luze. Liburuzainari dagokion kodea.

–Deika ari zaizkit –esan dio lekaideak Ikermani–. Joan baino lehen, beste kontu bat, azkenekoa. Eskumenean al duzu Axularren eskuizkribuko ikur multzoa, abatak eman zizuna?

Eskumenean ez ezik, begien aurrean dauka Ikermanek, eta hala adierazi dio, marrazkiei erreparatuz berriro.






Ikermanek ez die ezeren tankerarik eman oraingoan ere, baina lekaideak zerbait aurkitua du.

–Ikur horietako baten esanahia topatu dut, batere uste-kabea, *Dictionaire mytho-hermétique* delakoan; eta liburu hori beneditarren batek-edo egina da, Dom A. J. Pernéty delako batek, eta 1787an argitaratua.


–Segi.

–Ikusten duzu hirugarren ikur hori, ezkerretik hasi eta hirugarrena?

–Zein, ezpata baten gainean ziztatuta dagoen zortziko etzana?

–Horixe eta bera. Ba, horrako  hori kobrearen ikurra da, dirudienez.

–Kobrea? Metala, metal gorria?

–Bai, hor ageri den bezala, kobrea esan nahi du hermetista, alkimista eta abarrentzat; baina marrazki horixe buruz gora ipiniz gero, orduan polbora esan nahi omen du. 

–Esanahi bikoitza du, beraz?

–Bai. Agur, joan beharra daukat! –eta telefonoa amatatu du lekaideak.

–Kobrea eta polbora. Polbora eta kobrea.

Ez da, ez, eguneroko kontua hauxe; Ikerman telefonoz ari baita bakarrizketan.

–Kobrea eta polbora. Axular eta alkimia. Hendaiako gurutzeta eta Durangoko labirintoa. Munduaren azkena eta herri osoak lurpean ezkutatzeta. Txerokiak eta... Hau zoramena!



## 10. Hitzontzi, hutsontzi

---

«Zer egin behar duk orain, Iker? Nola askatu korapiloa?»

«Zein da korapiloa? Zein da auzia? Martinen desagerpena?»

«Bai eta ez».

«Zeren bila habil, Iker? Martinen bila. Martinen eta En-dikaren bila, biak elkarrekin desagertuak baitira, antza. Biak elkarrekin eta biak beren borondatez, noski; orain artekoan ez baita ageri gogoz kontra dabiltzan aztarnarik, alderantziz baizik».

«Txeroki horiek, zeren bila dabilta? Hor zegok koska, Iker! Bai, hortxe zegok koska, bazekiat hortxe dagoela koska, bazekiat; baina ez zekiat zer arraioaren bila dabiltzan!»

«Axularren koadernoak eskuratu ditek, bai; eta eskuratu ez ezik, irakurri eta ulertu ere egin ditek, antza, paleografo ezezagun baten laguntzaz. Beraz, orain bazekitek zerbait, orain bazekitek munduan beste inor gutxik dakien zerbait. Eta dena delako zera hori guztiz garrantzitsua duk, inondik ere, bi txeroki horien desagerpena eragin duenerako».

«Baina zer da, zer ote da zera hori? Zer? Zer ote dakar ditxosozko koadernoak horren garrantzitsua?»

«Agian, *Gero* liburuaren bigarren zatia, aditu-jendeak galdutzat ematen duena».

«Agian bai. Horrela bada, beste era batera egingo diat lehengo galdera berbera: zer berri ote dakar *Gero* liburuaren bigarren zatiak horren garrantzitsua? Eta, mesedez, utzi alde batera literaturaren aldetik duen balio handia: txeroki hauek orain ez zebiltzak horren peskizan eta! Gainera, nola uztartzen dituk ikur alkimikoak eta euskal literatura? Zertarako zitian Axularrek kobrea eta polbora?»

«Auskalo! Batek zekik! Kobreak, beharbada, dirua esan nahiko dik; Axularren garaian kobrezko txanponak ere izango zituan eta».

«Jakina! Eta polborak esan nahiko dik Axularren garaiko dinamita edo... Tira, tira! Ganorabako burutazioak dituk horiek!»

«Goma 2! Kontuan hartu Axularren garaian polbora zer zen eta gaur egun goma 2 zer den! Biak ere hortxe-hortxe, biak ere lehergai biziak! Eta txerokiak borroka armatuan ibili zituan, ezta?»

«Bai, baina aspaldiko kontua duk hori! Eta gainera, Martinen emazteak esan ez zian, ba, Yoyes hil zutenez gezortik erabat borroka armatuaren aurka jarri zirela txerokiak?»

«Egia, izan ere! Hortaz?»

«Ez zekiat, baina ez zaidak iruditzen bide horretatik ezer garbirik aterako dugunik. Bestalde, nolabaiteko lotura egin beharra bezala sumatzen diat, nolabait batera beharra Fulcanelliren interpretazioa eta Martinen artikulua».

«Bizitza leku bakar batean babestuko omen dela ziok batak; baina Martin bestela ari zuan, lurpean edo kobazuloan beren buruak gordetako antzinako euskaldunez».

«Aralarko tradizioaz, hain zuzen. Eta horixe jakin behar diagu: ea horrelako ezkutaleku erraldoirik ba ote den hemen».

Telefonoa hartu eta Arantzadi Zientzia Elkartera hots egin du Ikermanek. Desgaraiz, nonbait.

–Orain ez dago inor hemen Espeleologia taldekorik –esan dio bulegariak–; baina ni neu oñatiarra naiz izatez, eta badakit badela kobazulo erraldoi bat Aizkorrin, hor Gesaltza eta Arrikutz aldean. Luzean ba omen da hamabost kilometro luze.

–Eta Aralarko berri ba al dakizu?

–Jakin, jakin... hemen bidenabar entzundako kontuak, besterik ez, eta horiek berak ere erdizka. Sentitzen dut argibide gehiago eman ezina.

–Zuk dakizunez, ba al da Aralar mendian halako hai-zulo edo barrunbe handi-handirik?

–Bai horixe! Luzean, ez dut uste Arrikutzekoa bezain luzerik badenik; hamabost kilometroren bidea izugarri luzea baita lurpekoa izateko...

–Esango nuke!

–...baina aditzera dudanez –segi du Arantzadiko bulegariak–, Aralarren ere badira kobazulo luze askoak. Sakonean, berriz, hortxe dira leizerik sakonenak: bata, Nafarroa aldeko Ormazarretakoak, ia 600 metrora omen dauka hondoa. Oraintxe ari dira aztertzen beste bat, Gipuzkoa aldeko Lizurritzetakoa, eta beste leize-zulo hau sakonagoa omen da Ormazarretakoa baino.

–Leizeak ez ezik, amildegi izugarriak dirudite horiek!

–Halaxe izan ere bakarren batzuk. Bestalde, Aralarko kobazulo luzeetan ba omen dira barrunbe zabal-zabalak eta eder askoak. Lurpeko katedralak diruditela esaten du Basajaunek, eta beroietan badela herri oso-osoak sartzeko adina leku. Haitzulo horietan ezkutatu omen ziren jentilak, antzinako ipuinetakoak. Basajaunek hala dio behintzat, eta litekeena omen da.

–Basajaun!/? Nor da Basajaun delako hori? –galdegin dio, erne, Ikermanek, talaian jarrita.

«Adi, Iker! Basajaun izena ezarria zioan bere buruari Martinekin eta Endikarekin batera Aranotzera joan zen hirugarren txerokiak. Orduko Basajaun hura berbera ote? Ez harritu, Iker! Tira hariari!»

–Irakaslea edo ez dakit zer den. Aldian behin etortzen da hona, eta Basajaun esanda aditzen dugu beti; berak ere

horrelaxe deitzen baitio bere buruari. Baina izen-abizenik eta ez dakit, ez baita gure Zientzia Elkarteko kidea.

–Eta zertara etortzen zaizue Arantzadira?

–Baimen eske, hizlari eske, gidari eske...

–Zertarako baina?

–Ekaingo kobazuloa bisitatzeko baimen eske etorri izan zaigu, Aralarko trikuharriak-eta ikuskatzeko gidari eske, Aralarren bertan dagoen Gizabete izeneko mintegirako hizlari eske... Aldez aurretik erabakita ekartzen du nor zertarako nahi duen, eta niri galdetzen dit zer-nola dabilen hemengo jendea ordutegiz-eta.

–Eta mintegi hori, non dago?

–Aralarren, noski.

–Baina ez dakizu zein herritan edo non?

–Horixe ez dakit, aizu! Badakit, ordea, egunotan han izan bide direla; hemengo lagun bat ere bertara joatekoa baitzen artzaintzaren garaiko kulturaz hitz egitera.

–Jakiteko modurik egin ahal bazeneza...

–Deituko dut gure kide horren etxera, nora joan den galdetuz, eta etxekoek zer erantzuten didaten berrituko dizut gero, baldin eta zeure telefono-zenbakia ematen badidazu.

–Eskerrik asko! –dio Ikermanek, bere zenbakia emanez–. Eta agur! Oso lagungarri gertatu zaizkit zure argibideak.

–Horretarako gaude.

–Gero arte, beraz!

–Zaude! –dio bulegariak azken unean–. Oraintxe gogoratu zait badudala hemen artxibaturik Gizabete mintegiaren izenean Basajaunek egindako eskabideren bat edo beste.

–Primeran! Ea izen-helbiderik badakarren!

–Unetxo bat, mesedez, bilatu egin behar dut eta.

Bilatu ez ezik, aurkitu ere bai, azkar baino azkarrago, bulegariak. Tamalez, ordea, eskabide hori ez izaki uste eta nahi bezain zehatza.

–Eskatzaile gisa Gizabete mintegia ageri da. Aralarren datatua dago, bai; baina leku-izenaren beste xehetasunik ez dakar –dio bulegariak–. Basajaunen sinadura hau, berriz, guztiz ulergaitza da, izen-abizenik gabea.

–Lastima!

–Hara! Hauxe gauza bitxia! Oharkabean nengoen!

–Zer duzu, ba? –dio Ikermanek–. Zerk harritu zaitu?

–Orriak beheko barrenean dakarren idazkunak. Oso letra txikiz dator eta... –hor eten da bulegariaren azalpena, eta harriduraren zergatia nabarmendu–. Ezinezkoa da! Inprentako akatsa izango da, noski.

–Zer hori?

–Bi akats lerro bakarrean, alajaina!

–Esango al didazu, mesedez, zertaz ari zaren hizketan? Zer dio orriaren barreneko idazkun horrek? –Ikerman urduritzen hasia da orria bera ikusi gabez–. Zer akats dira horiek?

–Letra kontsonanteak trukatuta dauzka esaldiak, inondik ere. Baina nahi gabe gertatutako akatsa ote da, ala berariaz idatzia?

–Zer? Zer dio baina? Irakurri hitzez hitz esaldia!

«Euskaldun guztion amerria da Euskal Herria es la patria de todos los vascos».

Ikerman ere zer pentsa ez dakiela geratu da: nahi gabe gertatu ote dira akats horiek biak? Ez, noski; berariaz egingdako aldaketak dirudite. Baina, horrela bada, zer esan nahi ote dute?

–Oraintxe jan dut! –dio deblauki bulegariak.

–Zer!?

–Oraintxe ulertu dudala Basajauni behinola entzun nio-na. Hark esan zuen bera «amertzalea» zela, eta nik «abertzalea» ulertu nion, pentsatuz gaizki ahoskatu zuela. Baina, orain ikusi dudanez, hark ongi ahoskatu zuen «amertzalea»; horixe esan nahi baitzuen: amertzalea.

–Eta zer ote da amertzale izatea?

–Antza denez, eta esaldiaren bigarren zatiari erreparatuta diot hau, euskarazko «amertzalea» eta gaztelaniazko «matriota» biak gauza bertsua dira. Baina niri ez galdetu hortik aurrerakorik, ez baitakit zer esan nahi duten ez batetik eta ez besteak.

Hortxe bukatu da elkarrizketa, agurrak agur.

Hortxe korapilatu da, lehengoaz gain, Ikermanek esku artean askatu ezinik darabilen hari-mataza. Eta berak dioena:

«Hau duk katramila, Iker! Argi-antz bakoitza ilun-antz izaki, argialdi bakoitza ilunaldi, argibide bakoitza ilun-bide, eta argiune guztiak ilunpe. Ez zekiat ez ote hagoen hasieran baino okerrago!»

Imanol ertzainari laguntza eskatzea erabaki du azkenean. Ondo gogoan dauka azkenaldian harengandik entzundako purrustada; baina, beroarena kenduta, lagunei lagun egitea dagokiela uste du Ikermanek, eta badaki lagun jatorra duela Imanol, adiskide min izatera iristen ez bada ere.

Telefonoz hots egin dionean, ordea, Imanolen etxean inor ez eta erantzungailuan utzi dio mezua Ikermanek.

–Kaixo, txapelgorri! Iker nauk. Ez haut berriro nekarazi nahi, baina hire laguntza behar diat. Hago lasai, oraingoan ez baituk bazterrak harrotu beharrik izango. Aurrera ezinik nabilek bilaketan, eta ea zer argibide ikusten duan hik. Labur esateko, eskema moduan azalduko ditiat orain arteko ahaleginean aurkitu ahal izan ditudan aztarnarik nagusienak:



Martin eta Endika, biak egun berean desagertu zitu-  
tuan.

Txeroki amertzaleak bazebiltzak, baina ez zekiat zer-  
tan.

Gordeleku gisakoren bat baditek, edo bila zebiltzak.

Aralar mendian egon zitekek babesleku hori.

Aralarko kobazulo handi batean, beharbada.

Kobreak eta polborak baditek zerikusia.

Munduaren azkenak ere bai, eta ez duk txantxa.

–Horiek dituk aztarna nagusiak, Imanol. Horiek denak  
gogoan erabiliz kontu garbirik ateratzen baduk, ez haiz  
oso makala! Hots egidak ahal duanean –esanez amaitu du  
Ikermanek.

Ez daki asko bere lagun Imanolek ez duela inoiz jasoko  
mezu hori.

## ERTZAINZA, Gasteiz

Laster iritsi da BARSako ertzain-buruaren eskuetara  
Ikermanen mezuaren kopia idatzia. Zelatariek talaian da-  
rraite.

Ertzain-burua kezkatuz doa mezu hori irakurri ahalean.  
Amaitu bezain laster, telefonoa hartu, bere agindupeko ze-  
latariei deitu eta zorrotz agindu die Ikermanek Imanolen  
etxeko erantzungailuan utzitako mezua ezabatzeko, borra-  
tzeko azkar, Imanolek-edo entzun baino lehenago.

Ondoren, idatzi barruko hitz batzuk nabarmendu ditu  
fluordun berdez, eta berriro irakurri du mezua. Ortografia-  
akatsa iruditu zaio eta, zuzendu egin du «amertzaleak» hi-  
tza, «m» letra zirriborratuz eta berorren gainean «b» txiki  
bat ipiniz.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko barne-sailaz arduratzen den ertzain-buru horrek, paper-mutur batean, ohar hau bidali die ikerketa bulegoko bere kideei:

«Txeroki komandoa ibili dabil, antza. Abertzaleak. Komandoko kide ezagun bi, Martin Elustondo eta Endika Caesares, susmagarri. Balizko gordelekua, Aralar mendian, kobazuloren batean. Kobrea eta polbora aipatzen dira, munduaren azkena ere bai».

DNI, Vitoria

Ertzaintzaren Ikerketa Sailean azpijana egiten duen satorrak ere eskuratu du ertzain-buruaren ohar hori, eta DNIren Gasteizko ordezkari izateko arduradunari igorri dio.

Arduradun horrek Madrilera bidali du jaso berri duen informazioa, honako beste ohar hauxe erantsiz:

«Horiek horrela, gogoan izan aurreko txostenen batean aipatu izan dizuegula, gainera, arma-fabrika delako baten zurrumurrua».

## **11. Dakienak badaki, ez dakienak baleki...**

---

Basajaun Nafarroako Araitz ibarrean omen dela esanez deitu dio Ikermani Arantzadiko bulegariak. «Gizabide mintegia»ren kokalekua Aralarko mailope horretan dela, behintzat, bordaren batean edo. Zazpi herrik osatzen dutela Araitz ibarra, eta zazpi horietako batean dela: lurrez Nafarroa izan arren, Gipuzkoako armarriak dituen herri bakarrean.

Ikerman Araitz aldera doa, han berri zehatzago emango dioten ustean.

Tolosatik Iruñerako bidea, errepide zaharra, ibilbide lasai-atsegina da, Leitzarango autobidea egin zutenez geroztik. Orain ez da lehengo trafikoaren hamarrenik ere, zorionez, eta ibilgailuen joan-etorri ia bakarra Tolosa eta Betelu arteko jendearena da, bertako jendearena. Bakantatsun horri esker, patxada eder askoan gidatuz doa Ikerman, udazkeneko koloreen milaka ñabardurez gozatuz, astiro, zuhaitzen hosto hori-nabar-gorriak multzoka ikustean. Araxes ibaiko ur gardenaren etengabeko itsasora beharrak unez une eta urtez urte harkaitz arte malkartsuan landutako ubidearen albotik doa errepidea, eta gidaria bazterrak ikusmiratuz joan daiteke lasai asko, ez badoa abiadura handian; ugariak baitira bihurtuneak, eta batzuk oso-oso bihurriak.

Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugara iristean, Ilarrazu aldean, Ikerman ohartu da, harridura handirik gabe, berriro ere tiroz josi dutela Gipuzkoa iragartzen duen bide-bazterreko seinalea.

«Bala-zuloak dituk, Nafarroa aldetik pistolaz tirata egingakoak. Alumerke horietako batzuk ibiliko zituan, noski, berriro ere! Nor bestela? Ez zeukatek begirune handirik

euskaldunontzako! Ezta lanbidez babestu behar duten le-gearekiko ere! Abere gaiztoa duk gorrotoa, Iker!».

Bidean joan eta joan, luze gabe irten da mendi-zin-zurretik, eta zabalgunere argitsuan sartu. Araitz ibarraren ederra! Aralarko mailotzarra mendebaldetik, horma edo harresi itzela, eta Balerdi mendia ipar muturreko zaindari erne sendoa.

Aralarko mailo aldera abiatu da Ikerman, errepidean gora, burua bete korapilo: dena nahas-mahas, saski-naski eta nahaste-borraste.

Herriaren sarreran bertan bukatu da asfaltozko kamioa. Handik aurrerako bideak hormigoizkoak dira. Beltzetik zurira, eta beti ere gorantz: beharko, bordarik garaienean omen baita Gizabete mintegia!

Herria txikia da. Etxeak, handi-eder-bikainak, harri landua agerian dutela, eta baratze bana. Baita Gipuzkoako armari sendoa ere etxe gehienetan, harri landuzkoa eta nabarmen askoa; baina armarriko kanoiak bi bider sei lerrotan ageri dira denetan, eta ez hiru bider lau lerrotan, beti eta beste nonahi ageri diren bezala. Horixe gauza bitxia; non eta Nafarroan, gainera!

Bazter guztiak ikusi beharrez dabil Ikerman, begiluze, eta, aurrera begira ez joateagatik, ia autopean harrapatu ditu bidea zeharkatzen ari ziren oilaloka eta bere txitak. Susto galanta hartu dute denek ere!

Herria pasa eta berehala, gaintxo batean bidebaztertu du autoa, intxaurrondo baten alboan. Jaitsi eta bi pauso egin orduko, oinpean krask-krask-krask intxaurrak. Makurtu, kraskatutakoak bildu, azala kendu eta jaten hasi da. Oraindik hezeak daude, zokotenetik jaulki berriak. Haruntzaxeagoko beste intxaurrondo banatan, katagorria eta eskinosoa, biak ere intxaur biltzen negurako. Eta askoz gorago, airean hegaka, bele beltzak karranka, beste horiek batere janaririk gabe utziko ote dituzten arduraz bezala.



Nafarroako Gaintza herriko sarrerako bi etxetan Gipuzkoako armarri bana

Ikermani naturaz bete zaizkio begiak, ia gainezka egi-teraino. Hor atzean utzi duen ibarra ikusten du, hiru kilometroz ibili berri duen asfaltozko bidearen ezker-eskuin. Ikusten ditu muino gain eta hegietako baserriak eta borda sakabanatuak, belazeak, hariztiak eta garamenak. Ikusten behorak larrean, beren moxal jostalariekin, eta artalde bat. Eta herriko kanposantua, urtean behin bakarrik erabili behar izaten dena.

Hor beheko beste herri txiki hori Uztegi da, eta han ezkerreko gain hartakoa, Azkarate, Balerdi mendiaren he- galean airoso asko. Urruti-urrutian ageri den beste hura, berriz, Azpirotz.

Aurrera itzuli denean, ordea, burua jaso beharra izan du Ikerman liluratuak. Izan ere, burua jaso ezean, nola ikusi Aralarko mailoa bere handitasun ederrean? Horko mendien goiera, noski! Horko mailoaren bortitza! Horko amildegiak, mendi-lepoak eta gailurrak!

–Irumugarrieta, Aldaon eta Elkomuts dira altuenak –esan dio albotik gizon batek, Ikerman ohartu ere egin gabe etorritako gizon batek–. Balerdi muga-mugan dago, Aldaon Gipuzkoan, eta Irumugarrieta Nafarroan. Hiruretan altuena Nafarroakoa da, beraz; eta Intzeko Dorrea deitzen badiote ere, Gaintzakoak ditu gailurra eta beste.

Elkarri diosala egin eta nork bere burua aurkeztu du. Mitxeto du izena etorri berriak: gazteena izana, baina gizon gordina oraindik.

–Zu ez zara etorri besteren gaitainak biltzera, inondik ere.

–Zertan antzeman didazu? –dio Ikermanek irribarrez.

–Ikusmiran zaude, eta agerian; beste lotsagabe horiek, aldiz, zakua bete eta bete aritzen dira, eta ezkutuan. Me-rezi lukete jo eta botatzea aurreneko ukitian! –esan eta irribarre egin du Mitxeto horrek, errima egokia asmatu duelako edo.



Gaintzako Gipuzkoako armarría, XVI. mendekoa

Atsegina, gizona! Txapela buruan, makila eskuan eta aizkora txikia gerrian.

–Ba al dakizu non den Gizabete mintegia?

–Oraintxe erantzungo dizut egia, / jatorra baita zure aurpegia.

Ditxolaria, gainera, Mitxeto hori: erdi bertsolaria.

–Ni bertara noa, adiskidea, / eta erakutsiko dizut bidea.  
/ Zer iruditzen zaizu idea?

Ikermani primerakoa iruditu zaio ideia, eta autoan sartuta hor abiatu dira biak. Laster, aldapatxo baten buruan, hormigoizko bidea ere amaitu da, eta handik aurrerako guztia harri-txintzar gainean egin dute.

Ikerman zorte oneko dabil, antza; Mitxeto berau baita Gizabide mintegiaz arduratzen den herritarra. Gizon apal ageri da, bere buruari sasi-hargin, sasi-zurgin eta sasi-igeltsero deituz: arotza izana dela, alegia, erretiroa hartu berria badu ere. Arotza eta baserritarra, eta behortzain tre-bea. Gainera, elizako kanpai-jolea ere badenez, berari deitu omen zioten bailarako azkeneko ttinbilin-ttanbalan jotzea egin zenean, 1991. urtean.

–Hori guztiagatik irakasle izendatu ninduen Basajau-nek –eta barre egin du–. Ni, neure ezjakinean, irakasle, alajaina! Ozta-ozta dakit idazten eta!

–Zer da ttinbilin-ttanbalan jotzea? –galdetu dio Ikermanek.

–Hemengo usadio zahar bat, beste asko bezala ia erabat galdua. Lehen, etxea eraikitzeko (berdin zion kale-etxea izan edo baserria), harginak hasten ziren oinarriak eta izkinarriak lantzen eta jartzen. Ondoren, etxearen bi horma nagusiak eraikitzen zituzten, biak elkarren aurrez aurre. Ordurako zurginak etorriak ziren, eta horma horien euskarriak eta etxearen zuraje osoa egiten zuten: haritzezko habeak, hagak, goi-hagak, kontragoi-hagak, astazaldia eta



gailurra. Orduan, etxearen egitura osoa bukatzean, ttin-bilin-ttanbalan jotzen zen, festa edo ospakizun gisa. Baita bazkari ederra egin ere, ardo ona edanez. Horrenbestez amaitzen zen hargintza-lana.

–Egungo teilatua eman osteko gailur-festaren pareko, beraz?

–Ez, ez; gailur-festa gero egiten zen, etxea erabat bukatutakoan. Harginak joatean, igeltseroak etortzen ziren gainerako hormak eta barruko paretak egitera. Eta, zurginekin batera, teilatua bukatzen zutenean, erramua edo lizarra ipini goienean eta orduan egiten zen gailur-festa.

–Bi aldiz festa, hortaz?

–Bai horixe! Zer, ba? Lana besterik ez ala? –dio Mitxetok, irribarrez. Eta, ondoren, hitz beste egin du–. Hara! Jokatuko nizuke ezetz besarkatu gu bion artean horrako gaztainondo horren gerria! Ezta biok besoak zabal-zabalik eta eskuak luze-luze jarrita ahaleginduz ere!

Autoa gelditu egin du Ikermanek bide bazterreko gaztainondo ugarietako bat ikusteko, ikusgarria baita benetan.

–Bikaina, arbola! Zenbat urte ote ditu?

–Auskalo! Ni baino zaharragoa da, eta ni ez naiz atzo goizean sortua, e! Oso emaille ugaria izana da, baina orain gaitz-joa dago gaixoa. Ikusten duzu, hala ere, zenbat morkots daukan inguruan?

–Bai, eta denak hutsak. Non dira morkots barruko gaztainak?

–Zaku eta guzti etortzen diren horiek eramana izango dira alerik onenak. Besteak, berriz, kaskarrenak, ardi, behor, azkonar eta basurdeen janari gertatzen dira.

–Hemen ba al da, ba, horrelako piztiarik?

–Bai, ugari! Piztia ugariago, lanerako laguna baino! Eta denetan okerrena, bi hankadun piztia, arima apartatuta!

Arbolak gureak izaki, geuk inausten otsaileko ilbeheran, geuk ordaintzen zergak... Eta zertarako? Neroni ikusia nago hemendik eramandako gaztaina salgai Lasarteko denda batean! Garesti saldu ere, gainera!

–Lapurreta bizia, alegia.

–Esango nuke! Baina, tira! Goazen, berandu egingo zait bestela, eta ez zait gustatzen ikasleak zain edukitzea.

Abiatu orduko, hor galdetu dio Ikermanek ea zer irakasten duen.

–Dakidan dakidantxoa, ene gizontxoa! –erantzun Mitxetok, lehengo aldarte onera etorriz–. Basoan ibiltzen dira nirekin, ikusiz eta ikasiz: basoko bizitzari antzematen, abereak eta txoriak ezagutzen, landareak eta zuhaitzak zer-nolakoak diren eta zein zertarako bereizten, aizkora zorrotzen eta behar bezala eta behar denean bakarrik erabiltzen, zura lantzen, basoa garbitzen...

–Hara! –eten dio Ikermanek hegazti handi batzuk jirabiraka ikustean beren gainean–. Zer dira horiek? Arranoak?

–Arranoak dirudite; baina putreak dira, saiak. Hemen-txe bizi dira Aralarko putre guztiak: bost dozenatik gora. Hor bizi dira, mailo-malkar horretan. Horiek dira hemengo mendi-garbitzaileak, horiei esker ez zaizkigu kutsatzen erreka urak; izan ere, oso begi-bista zorrotza dute eta... Kontuz hor! Zubia estu samarra da eta!

Begi bakarreko zubi sendoa igaro dute, batere estua-sunik gabe, horrela zeharkatuz mendian behera amilka datorren ur gardenezko erreka bizia. Ondoren, aldapa pikoa igo ahalean, zuhaitz tartetik argigune zabal batera eraman ditu bideak, basotik aterata. Borda bat dago bertan, etxe ederra.

–Heldu gara –dio Mitxetok–. Baztertu autoa horrako lizardi horretara: aparkatu hor.

Esana egin du Ikermanek, eta berehala ohartu da arbolapeko aparkalekuko autoak ez direla inondik ere ageri, harik eta bertara iritsi arte.

–Goiko borda hau duzu Basajaunen etxea, eta bere lagunena –azaldu dio Mitxetok–. Beste hori, berriz, Gizabete mintegiaren egoitza.

Beste borda bat baitago beherago, ehunen bat metrora, harresitxo luze batez inguratua. Baina, ez batean eta ez bestean, Ikermanek ez dakusa inor. Ezta ezer entzun ere, ez bada txorien kantua basoan. Eta erreka uraren hotsa, urrutian marmario.

–Eta jendea? Non da hemengo jendea?

–Beheko bordan izango dira gehienak, bilera-gelan.

–Basajaun ere bai?

–Bai, noski. Hara, zuk itxoin hemen, nahi baduzu, eta neuk emango diot zure berri. Laster duzu hemen. Bitartean, ikusi bazterrak lasai.

Bada zer ikusia, eta ez bazterrak, paraje zabal eder askoak baizik. Mitxeto joan ostean, ingurumaria guztia-ri begira hasi da Ikerman eta naturaren erdi-erdian ikusi du bere burua. Aralarko mailo osoa dauka bertatik bertara, erraldoi harrigarria: mendi gailurrak, goiko larreak, ur jauziak, garamenak, belazeak, hariztiak, gaztainadiak... Beste aldean, han behean, harana, Araitz ibarraren ikusmira ederra: herri txikiak, baserri eta borda sakabanatuak, muinoak, soroak... Eta denen gainean, zerua, ortzia; eta bertan jirabiraka saiak, hegoak zabal-zabalik, zirkinik ere egin gabe ibili eta ibili dabiltzala airean itzulinguruka.

– Ongi etorri! –esan dio Ikermani beheko bordatik heldu zaion gizon batek.

–Eskerrik asko!

–Basajaun nauzu.

–Urte askoan. Eta ni, Iker.

Eta bostekoa eman diote elkarri: sendo, baina ez gogor.

–Barkatu, baina –ausartu da Ikerman– zein da zure izena?

–Basajaun. Esan dizut. Nitaz galdezka etorri ez zara, ba?

–Bai, baina... zeure egiazko izena, alegia; ez izenordea.

–Basajaun dut izena, neure-neurea; hain zuzen, neure egiazko izana zein den ikasi nuenez geroztik. Badakizu, izena eta izana.

–Baina lehen beste izen bat zenuen, ezta?

–Lehen beste gizon bat nintzen eta.

–Lukas, agian? –hor bota dio Ikermanek Txeroki komandoko hirugarren kidearen guda-izena.

## 12. Zenbat buru, hainbat helburu

---

Musean ez omen dira aintzakotzat hartu behar jokoan hasi orduko jotako hordagoak, eta Basajaunek ere halatsu erantzun dio Ikermanen ziztadari: alegia, paso eginez.

–Batek daki Lukas nintzen edo Markos! Eta zuk, ba al dakizu nor den Basajauna?

–Jakin, jakin... –Ikermani lanbro artean bezala gogoratu zaizkio Joxe Migel Barandiaran zenak herriaren ahotik bildutako elezaharretako kontuak–. Euskal mitologiako gizakia omen zen, oihaneko jauna.

–Basajaunak, hain zuzen ere, Euskal Herriko baso-oihanetako nagusiak omen ziren: artaldean begirale, abereen babesle, otsoen uxatzaile. Ekaitza zetorrenean, oihu eginez adierazten omen zieten artzainei arriskuaren berri. Eta ardiak, Basajauna euren inguruan zebilela sumatzean, esker onez, denak batera hasten omen ziren joareak edota zintzarriak astintzen. Bizilekuari dagokionez, baso-basoan ez ezik, mendi gainetako kobazuloetan ere bizi omen ziren.

–Zenbait herritan, aldiz, izaki beldurgarritzat zeuzkatela ere irakurri izan dut.

–Jende askok dio beldur nork bere barruan daraman Basajaunari edo Basandereari: ukatu egiten dute, ezagutu ere egin gabe; horregatik ez dira inoiz iristen nor bere gizabetera. Erdizka hazten dira, axaletik, gure gaur egungo gizarte hau bezala.

–Baina basatiak ziren, ezta? Salbajeak.

–Basatia ez da *salvaje*; baizik eta *primitivo*: antzinakoa, alegia, gure gizartearen legeetatik kanpo hezitako gizona. Edo, beste era batera esanda, hizkuntza idatziak ezarritako pentsamoldea baino lehenagokoa eta, gauza asko-

tan, libreagoa. Bai, horixe da Basajaun: lehenengo gizona, Ekaingo artista, Aralarko pilotaria, artzain bertsolaria, ez-pata-dantzaria, ehizari metafisikoa... Horiek denek diraute bizirik gure baitan, ozta-ozta bada ere.

–Ez dut uste bizi direnik. Horiek aspaldiko kontuak dira.

–Ez pentsa Basajaunen itzala desagertu zaigunik erabat. Nik, behintzat, nabarmen sumatzen dut: basoan sumatu ere, mendian baino gehiago. Eta ez naiz horretan bakarra; ezta gutxiagorik ere, zorionez! Badira, ba, lanetik jai dutenean, mendi aldera joaten direnak perretxiko-aitzakiatan, makila eskuan dutela? Edo ehizera, eskopeta bizkarrean? Edota auskalo zertara, aizkora txikia gerrian? Ez duzu asekada handirik egingo, noski, horiek ekarritako ziza, ehiza eta abarrekin. Ez die axola horregatik, eta ez dituzu triste ikusiko esku hutsik itzuliagatik; ezer gutxi ekartzea aski baitute, berrizko aitzakia izateko adina bada. Basajaunen itzal bila ibili ohi dira, oharkabean bada ere; euskaldun askok nork bere barruan daukagun Basajaun antzinakoa baso-mendietan bakarrik aurki baitezakegu, naturaren baitan, lurraren amatasun sakona arrazoi guttien gainetik ageri den lekuan.

–Zer da kontua, beraz: ekologia?

–Ekologia baino areago. Basajaun gureak bere baitan uztartzen ditu, oreka bete-betean, naturazko izatea eta teknikazko jakitea, ekologia eta teknologia baino areago. Basajaun artzainen laguna da otsoen kontra; eta, Martin Txikiren bidez, nekazarien irakaslea (garia, errota-ardatza); eta arotzen maisua (zerra, soldadura). Horregatik aukeratu zuten, noski, babesletarako gure arbasoek.

–A, bai?

–Jakina! Gipuzkoako armarrria zaintzen ageri diren bi gizandiak ez dira mazokariak, jendeak uste duen bezala; baizik eta basajaunak. Badakit armarrriaren alboko bi ba-

sajaun horiek ez dutela izenik; baina nik Agorra eta Zigorra deitzen diet, itsasontzietako bi aldeei bezala.

–Agorra ez al da, ba, lehorra?

–Baita. Agorra lehorra da, bustia ez dena, itsasoa ez dena; edota antzua, emakumeez eta arbolez ari bagara. Baina, itsasontzietan, marinelek Agorra deitzen diote babe-sean egokitzen den alderdiari; eta Zigorra, aldiz, itsasoaren erasoa nozitzen duenari.

–Izendapen polita da. Gainera, Gipuzkoako armari barruan biak ageri dira: itsasoa eta lehorra, ura eta lurra.

–Hor nonbait.

–Ederki! –amaitu du Ikermanek–. Aizu, ba, izenak izen, nik ere baditut bi izen zuri esateko.

–A, bai?

–Bai: Martin eta Endika. Eta zehatzago esatea nahi baduzu, Martin Elustondo eta Endika Casares.

Basajaun isilik geratu zaio, begira-begira, ezertxo ere esan gabe. Lasai arraio, horratik!

–Nik dakidala –jarraitu du Ikermanek–, Martin eta Endika ez dira basajaunak, ez; baizik eta txerokiak. Eta zu zeu ere txerokia zara, ezta?

–Nolabait, uste horretan nago.

–Usteak uste, litekeena da zu ere Txeroki komandoko kide izan izana izatea, Martinekin eta Endikarekin batera. Bai, oso litekeena da zu izatea behinolako Lukas hura. Ez da hala?

–Batek daki! Nolanahi ere, horiek aspaldiko kontuak dituzu, gizona!

–Bai, baina zure lagunen desagerpena kontu berri-berria da, eta horrexek ekarri nau zugana. Esadazu: non dira Martin eta Endika? Edo, izen-beste esanda, non dira Euria Begian eta Txakur Txikia?

Basajaun, isilik, erreka-aren marmarioak dakarkion mezua aditu nahirik bezala.

–Zer dio Axularren ditxosozko koadernoak? –galdezka segi du Ikermanek–. Eta zer da munduaren azkenaldia datorrelako kontu hori eta babesgunea bilatu beharra? Zer misterio arraio darabilzue?

Basajaunek ez dio berehalakoxean erantzun. Ez dago samurra, noski. Halako batean, ordea, hitz beste egingo balu bezala hasi zaio:

–Baratzea erakutsi al dizu Mitxetok?

Ikermanek ezetz adierazi dio buru-eraginka, bere baitan inola ere uztartu ezinik gizonak desagertzea eta baratze-ko porru-haziak.

–Etorri! –agindu dio Basajaunek, eta baso aldera abiatu da. Beharko joan, zerbait jakin nahi izatera!

Basoko bidea, oinezko bidea, zuhaitz artean doa erreka aldera, lehendik ere milaka pausoz egindako bidezidor beretik. Horko lizar, haritz, hurritz, elorri, astigar txiki, gorosti, zumalakar eta haltza! Pagorik ez dago, bakanen bat izan ezik. Gaztainondoa, ordea, erruz, gerri-jira bikainen inguruan morkots huts mordoak ageri direlarik lur-estali, kirikino bortxatuak bailiran.

Arbola eta Euskal Herria, sarritan bezala, bata bestea-  
ren irudi edo sinbolo gisa ikusi ditu Ikermanek, eta batze horrek ekarri dio gogora Gizabete mintegiko-  
en ikurritza:

Euskaldun guztion amerria

**Euskal Herria**

Matria de todos los vascos

–Zer da amerriaren kontu hori? –galdegin dio Basajauni.

Gelditu egin da bestea, eta goroldio biziak apaindutako zutarri mardul baten alboan gelditzea egokitu zaio, erreka-  
ren ertz-ertzean. Itzuli eta laburki erantzun dio:



–*Aberria* hitza, berez, *aita* hitzetik dator; eta abertzaletasunaren irudia, hortaz, aitaren itzalean sortua eta garatua da: aitaren kerak eta ezaugarriak ditu gehienbat, onerako eta txarrerako, ohartuki ala oharkabean. Guri, berriz, abertzale soil izatea motz samar geratzen zaigu, murriztailea iruditzen zaigu; batez ere, sorterrria naziotzat hartu izanagatik muga gogorrak ezarri zizkigutenez gero.

–Mugak dira arazoa, beraz, zure ustez?

–Ez, mugak behar dira; baina muga berezkoak, ego-kiak eta, batez ere, zabalak, itxikeriarik eta bazterkeriarik gabekoak. Baina bai gizonek eta bai herriek mugak behar dituzte. Bizigune jakinak eta duinak ezinbestekoak dira, baldin eta bakoitzak bere muga-barrutian askatasunez eta erantzukizunez jokatu eta eraiki ahal izango badu. Kaosa mugatu gabe ezin da sortu kosmosa: ezin da ezer sortu.

–Anaien artean ere on da mugarría –dio Ikermanek, aspaldian ikasitako esaera zaharra gogoratu zaiolarik.

–*Amerria* hitza, berriz, *ama* hitzetik sortu dugu –jarraitu du Basajaunek–; baita *amertzalea* hitza ere.

–Zertarako baina?

–Ideologiaren zurrunkeria eta utopien sinplekeria gainditzeko, bizitzaren ugaritasuna onartzeko, Euskal Herriaren aniztasuna bere oparoan bizi ahal izateko, korapilo eta ilunpe eta guzti, edertasun eta zauri eta guzti, sustrai eta adar eta abar. Eta sustrai bila ibili garenean, hor aurkitu dugu, oraindik bizirik eta indartsu, amaren irudia, Mariaren mitoa, ama zabal eta ahaltsua, bere seme-alaba guztiguztiak onartzen dituen, Atarrabi on-argia bezain bere semetzat daukana Mikelats gaizto-iluna, denak bere altzoan hartzen dituen (gizakiak, abereak, landareak, mendiak, urak...), ama maitekorra eta ama haserrekorra, bizi-sortzailea eta heriotza-emailea, ama errukior bezain sendoa, gezurra gorroto duena eta baldintza bakarra jartzen duena:

berari inoiz bizkar ez ematea, baizik zutik eta aurrez aurre begiratzea.

Hitzaldi hori egin orduko, bidezidorra ibiltzeari ekin dio ostera Basajaunek, horretarako erreka zeharkatu behar izan duelarik, harri gain lehorretan pausatuz oin muturrak, dantzariak bezala. Ikermani kosta egin zaio asmatzen zein harri dagoen sendo eta zein kolokan, eta eskuineko oina uretara labaindu zaio, galtza-barrena ere bustiz.

Basajaunek barre egin dio, baina isekarik gabe, eta la-sai asko itxoin dio, Ikermanek oinetakoaren barruko ura hustu eta blai egindako galtzerdia xukatu bitartean.

–Harri bakoitzak badu bere misterioa –esan du Basajaunek gero.

–Misterioa? –dio Ikermanek–. Zuk eta zuek badarabil-zue misterio ugari, eta ez ahaztu Martinen desagertpena argitu beharrez nabilela hemen.

–Goazen, ia iritsi gara baratzerara eta! –esan dio Basajaunek–. Ikusten al duzu harresi horren barruan dagoen eskultura? Barruti hori da baratzea, eta eskultura Oteizarena da. Horixe erakutsi nahi nizun.

Ikermanek berehala ikusi du baratze hori ez dela ortua, baizik eta herriko zuhaitz-mintegia izandako barruti harresitua. Lauzpabost haritz tantai nagusi dira bertan, eta erdi-erdian Oteizaren eskultura hori: alde bakoitzak bi metro-edo dituen kubo edo kutxa hustua.

–Oteizak berak ongi zioenez, hustasunez betetako kutxa duzu hau, kutxa metafisikoa –dio Basajaunek–. Oteizaren lana zertan oinarritu izan zen badakizu: espazioari buruzko gogoetan, espazioa eta bolumenaren arteko harremanean, espazioaren hustuketan...

–Hutsune metafisikoa –gogoratu zaio Ikermani–. Ez dakit garbi zer esan nahi duen horrek, baina nik horixe entzun izan dut beti Oteiza aipatzean: hutsune metafisikoa.

–Hortxe dago koska! Baina Oteiza euskara ikasten hasi zenean, orduan konturatu zen «une» hitzak bi dimentsio dituela: espazioa eta denbora, biak ere «une» direla euskaraz; nahiz eta bata «alde» izan, eta bestea «aldi». Aurkikuntza horrekin pozez txoratzen, berorretan oinarritutako ikerketa-bide berri bati ekin zion. Hauxe duzu ahalegin haren emaitza: eskultura hauxe.

Hori esanda, kutxa huts-beteari begira jarri da Basajaun, adurra dariola.

–Neurri zehatza du kuboak –dio orain–: gizabetea du alde guztietatik.

–Egia esan, ez dakit zer neurri ote den gizabetea –aitortu dio Ikermanek.

–Euskal neurri zaharra dugu: oinarri-oinarrizko luzera-neurria, giza gorputzaren arabera mundua neurtzeko ezin egokiagoa.

–Baina zenbatekoa da luze-laburrean?

–Gizabeteak zazpi oin ditu: 194,6 zentimetro. Ia bi metro.

–Horregatik al du zuen mintegiak ere Gizabete izena?

–Baita; baina gureak, funtsean, norberaren barneko gizonaren tamaina edo garaiera betea du helburu. Gorputzez ez ezik, gizonez ere hazi egin behar baita. Hori guztia ego-kiro-edo adieraziko zuen izena proposatu genion Oteizari eskultura honentzat: *Hutsune eta Gizabete* izena, alegia.

–Eta? Zer erantzun zizuen?

–Oso gogoko zuela izen hori, baina ezetz. Eta zergatikoa ere argi eta garbi adierazi zigun, oraindik ere gogoan dudanez:

«Si algunos títulos pueden considerarse ejemplo de claridad y corrección son los que yo pongo siempre a mis obras, pues con ellos trato de explicar lo que me estoy

proponiendo experimentar. Para mí, la explicación de una obra es más importante que la obra misma».

–Eta zer izen ezarri zion azkenean?

–Orain duen hauxe: *Denbora pasa*.

–Beno, aizu! –Ikerman aspertuxea da berriketan–. Artea eta hori guztia oso jakingarria da, baina... Gatozen harira! Ba al dakizu non den Martin Elustondo edota nora desagertu diren Endika eta biak?

–Ez, ez dakit. Egi-egiaz diotsut ez dakidala non diren edo nora desagertu diren –erantzun dio Basajaunek.

–Orduan, ni bai nagoela denbora-pasa hemen! Ez dakit zertara ekarri nauzun hona! Lehenago esatea asko zenuen ez dakizula ezer!

–Nik ez dizut esan ezer ez dakidanik, baizik eta ez dakidala non diren edo nora desagertu diren. Jakin, zerbait badakit. Hain zuzen ere, dakidana azaltzen hasi natzaizu; baina soka luzea da eta...

Hortxe eten da soka; gizon gazte bat etorri baita, lasterka eta larri, Basajaunen bila. Berri txarrak dakartza, nonbait, ahoa betean.

–Josetxo tirokatu egin dute Amezketan! –dio, arnases-tuka.

### 13. Hamaika txorok jaten du ogia

---

ERTZAINZA, Gasteiz

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko ikerketa-taldeez arduratzen den ertzain-buruari, antza, ez zaizkio pozgarri gertatu Amezketatik heldutako berriak. Muturra okertu du tiroketarena entzun duenean.

«Aitzakiaren bat asmatu beharko diagu, oraingoan ere, kazetari kontakatilu horiek bazkatzeko. Bai. Legez kanpoko ehiztariarena edo. Ez, drogazaletzat salatuko diagu susmagarria. Bai, horixe diagu onena: drogazalearen antzerkia egitea. Eta gero gerokoak. Nor zen eta zer zebilen bagenek, bederen, gaitz erdi».

Horrexek ematen dio amorrazorik handiena: susmagarriak ihes egin diela, mendiz mendi, bere ertzainei. Hauek erne zihozten, jakina!, gerta zitekeelako Txeroki komandoko kideren bat aurkitzea han, Amezketako minetan; nahiz eta meatze horiek itxita dauden joan deneko aspaldian.

«Edo, beharbada, horrexegatik, itxita daudelako aspaldi honetan. Orain ez baita inor ibiltzen lurpeko barrunbe arriskutsu horietan; beraz, zer leku egokiagorik lehergai-luak eta abar ezkutatzeko?»

Baina ertzainek ez dute ezer aurkitu meatze barruan: ez armarik, ez lehergailurik, eta ez bataren edota bestearen aztarnarik ere.

«Hala eta guztiz ere, bazirudik ez dela gezurra Txeroki komando horri buruzko informazioa. Bestela, zergatik egin behar zian ihes ezezagun horrek? Zergatik ez da gelditu ertzainek airera tiro egin dutenean? Zergatik joan duk, bestela, tximistak egiten, Aralarren barrena, Nafarroako

mugaraino, eta mailoan behera jaitsi, bidezidor arriskutsu haietan ausartuz?»

Galdera horiek erantzun asko dituzte aukeran, baina bat bakarra izaki egiazkoa. Esaera zaharra gogoratu ere gogoratu zaio ertzain-buruari: *Aukeraren maukera, azke-nean okerra.*

«Bai, aukera ugari; baina egia bakarra: badabiltzala zerbait kabroi horiek. Gaur kearena egin zigutek, baina bihar beste oilar batek joko ziek kukurruku. Ez ditek asko uste, noski, gu Nafarroa aldera sartzen ausartuko garenik; baina horixe egingo diagu bihar: mugaz beste aldeko mina-zuloan begiratu, nahiz eta legez kanpo jokatu behar izan horretarako. Bai, hire ertzainek barrabiletatik heltzen dietenean, orduan ikusiko diagu zer balio duten txeroki horiek!»

## DNI, Madrid

Ertzainen Amezketako tiro-zalapartaren berri jakin dute, azkar asko, Madrilen. Baita mina-zuloa miatzen ibiliak direla ere, eta esku hutsik itzuli. Albiste horiek denak DNikoek euren aldetik darabilten ikerketaren osagarri gertatu dira. Bertako arduraduna urduri zen, eta orain aski kezkatuta dago. Dokumentazio-alorreko ikertzaileek adierazi dizkioten aurkikuntzek areagotu egin diote egonezina.

–Nafarroa aldetik sarrera duen mina-zuloa, Aralar mendikoa, oso arraroa egiten zait, eta ezezaguna zaigu –dio iker-tzaileetako batek–. Txostenen arabera, mina-zulo horrek bi kilometro luze ditu, Amezketa aldeko norabidean. Lauren bat metro zabal eta hiru metro altu. Bi urtez ari izan ziren lanean, tunelgintzan. Ari zirela, ari zirela, sekulako zuloa topatu omen zuten, sekulako amildegia mendiaren erraie-tan, eta tunela desbideratu egin behar izan zuten. Alde

batera, oso egoki etorri zitzaien zulo hori; bertara hustu baitzituzten, handik aurrera, mendiari kendutako puskak.

–Eta niri, zer? Txosten teknikoak entzuteko nagoela uste al duzu? –purrustaka, nagusia–. Zer du bitxia meatze horrek?

–Bizpahiru gauza –dio, lasai, besteak–. Batetik, dirua errekarra botatzeko negozio ezin hobea dirudiela. Izan ere, zertarako zulatu eta martxan jarri meategi berri bat, baldin eta Amezketa aldetik zegoenak argi eta garbi erakutsia bazuen erabat defizitarioa zela?

–Ergelen baten zakur-ametsak. Nor da jabea?

–Hori da bigarren bitxikeria: jabearen nortasuna. Baina, horren berri eman aurretik, bada beste ohar guztiz jakingarrri bat: meatze horretan ez da inoiz lanik egin, tunelgintzan egindako lana izan ezik.

–Zer sinestarazi nahi diguzu? Bi urtez jardun zutela lanean eta, mendia zulatu ahalean, ez zirela ezker-eskuin ibili material bila?

–Bai, jauna; horixe da egia. Tunela luza eta luza aritu ziren lanean, bertatik trenbidea pasa nahi balute bezala...

–Aralarren trenbiderik ez dago, eta tunela egin!?! Tira, tira!

–Biltegi erraldoia dirudi, gordeleku itzela da: bi kilometro luze, lau metro zabal eta hiru metro altuko gordeleku erraldoia.

–Zer gordetzeko baina?

–Batek daki! Egia esan, *El retorno de los brujos* liburua irakurri nuenez geroztik, etsita nago nazi haiek edozein erokeria egiteko gai zirela.

–Naziak!?! Alemaniako naziak!?!

–Naziak, bai. Enpresa aleman batek erosi baitzituen, 1941ean, meatze-eskubidea eta ingurumaria guztiko herri-

lurrak; eta erosi, Nafarroako Diputazioaren baimen berezi bati esker erosi ere.

–Munduko Bigarren Gerrate Nagusiaren garaian, alajaina!

–Hain zuzen ere, naziak Europa ia osoa menperatua zuten urte berean, orduan erosi zituzten herri-lur horiek; baina handik 20 urtera edo hasi ziren lanean, 1963. urtean. Gaurko bidea orduan egina da, herriko plazatik minarainokoa, berariaz egina.

–Alemanak hasi al ziren?

–Ez, espainol bat agertu zen, 1963an, guztiaren jaun eta jabe: Soriano abizeneko bat, diplomatikoa lanbidez.

–Diplomatiko frankista, jakina.

–Bai, karrera diplomatiko guztia Hego Amerikan egina zuena; hain zuzen, ihes egindako buruzagi nazien gordelekuetatik hurbil. Diplomatikoek harreman mota ugari dituzte, eta diplomatiko frankista batzuk, dakizunez, naziekin harremandu zaleak ziren.

–Jakingarria, oso jakingarria. Eta kezagarria.

–Esango nuke. Kontuan izan, gainera, ez zutela inoiz material apurrik ere atera Aralarko meatzetik. Gero, jabe hori hil zenean, 1965ean, zenduaren semeak bertan behera utziaz zituen lanak. Sarrera erabat ixteko agindu zuen, eta gaur arte.

–Soriano delakoa, diplomatikoa, nola hil zen? Ustekabean?

–Bai. Gaixotuta, agi danean. Berez-berez sortutako gaitzez.

–Ez ote dakigu, ba, ustekabean «berez sortu» eta egun gutxiren buruan gizona hiltzen duten gaitz «naturalen» berri? Itxura txarra, oso txarra, hartzen diot honi guztioni. Erne ibili beharko dugu, beraz; litekeena baita gordelekua





Balerdi mendia hegoaldetik ikusita, Basajaundegitik ikusita.  
Eskuin aldeko lerro zuriak arrakala edo pitzadura adierazten du.

egin izan izana eta, zuloa amaitu eta bete bezain laster, sekretuaren jakile arrotz bakarra hil izana. Hori bezalakorik ez dago, sekretua erabat isilpean edukiarazteko.

–Zer sekretu, ordea? Zeren gordeleku da, izatekotan? Zerez bete ote zuten, baldin eta bete bazuten, mina-zuloa?

–Polboraz –dio orain arte isilik egondako batek–. Lehergaiez.

–Hara bestea! –dio nagusiak–. Eta nondik atera duzu hori?

–Txeroki komandoari buruzko informazioak, labur esanda, bost osagarri ditu: 1) arma-fabrika, 2) kobazuloa, 3) munduaren azkena, 4) kobrea, eta 5) polbora.

–Hau eromena!

–Kontua da bost osagarri horien berri aurkitu dugula, eta bost horien arteko lotura ere bai. Balizko lotura, alegia.

–Kobazulo edo mina-zulo horrena besterik ez dakigu oraindik. Non dira, bada, beste lauak? Non da kobrea?

–Mina-zuloan, horixe baita Aralarko minen emaitza: kobrea. Amezketako meatzetik kobrea atera eta atera ari izan ziren urte askoan. Horixe da, aitzakia izan ala ez, Araitz ibarreko minatik atera nahi omen zuten materiala ere: kobrea.

–Ez nekien; baina, hala ere, kobrearen kontua da gu-txienekoa. Bestalde, ez da oso bizkorra izan behar asmatzeko zer lotura dagoen polboraren eta arma-fabrikaren artean (halakorik balitz). Beraz, eta horiek horrela balira ere, azalduko al didazu bestea, munduaren azkenaldiarena?

–Horixe da, hain zuzen ere, aurkitu berri dugun azken lotura, falta zitzaiguna. Orain den-dena ulertzeko moduan gaude.

–Nik ez dut, ba, ezer ulertzen oraintxe! Zer esan nahi didazu, munduaren azkenaldia delakoa ez dela txantxetako kontua?

–Ez Araitz ibarreko bizilagunentzat. Arrisku gorrian daude.

–Zer diozu?

–Bertako elezaharrak dioenez, Balerdi mendia txiki-mila puska egin eta gainera eroriko zaie azkenaldian.

–Antzinako mitoak! Txorakeriak dira horiek!

–Geologoen ere baieztatu egin dute arriskuarena, eta Geologia ez da Mitologia. Zientzialariak jakitun daude, aztertu dute Balerdi mendiko arrakala, eta aho batez onartu dute elezaharrak dakarren mezuaren funtsa: Balerdi mendia kolokan dago, eta hura desegingo balitz, akabo Araitz ibarra eta akabo hango Beterriko herriak eta jendea!

–Zer arrakala da hori?

–Arrakala, ebaki luzea eta sakona da, irekidura itzela. Balerdi mendiak horrelako pitzadura dauka ekialdetik: ehunka metroko luze-sakonerako ebakia. Arraildutako mendi puska hori eroriko balitz, milaka milioi tona harri libratuko lirateke eta maldan behera piririka jaitsiko, bidean harrapatzen duten guztia aurrean eramanez edota zanpatuz: etxeak eta herri osoak. Akabo Azkarate, Uztegi, Atallu, Arribe eta, beharbada, Betelu bera ere bai!

–Tamalgarria litzateke, baina... Eta guri zer axola digu? Gu ez gaude lurrikarak aurreikusteko; baizik eta, besteak beste, terrorismoa borrokatzeko eta terroristak porrokatzeko.

–Hortxe dago, ba, koska! Izan ere, Soriano hark eragindako mina-zuloa, tunela, arrakalaren alboan dago, oso gertu. Beraz, aski litzateke bertan leherketa handi bat gertatzea...

–... mendi osoa desegiteko! Madarikatu zikinak! Orain ulertu dut! Izugarrizko atentatua egin nahi dute, antza, negoziazioetan abantaila hartzeko! Erotuta daude, burutik joanak!

–Jakina da terroristak erotuta daudela.

–Komunikabideak lagun, gezur hori sinestarazi diogu jendeari. Orain, berriz, badirudi guk ere sinistu egin behar-ko ditugula geuk asmatutako gezurrak. Baina gerra psikologikoa utz dezagun orain. Goazen harira!

–Zer egin behar dugu, nagusi?

–Araitz ibarrean ba al da guardia zibilen kuartelik?

–Ez, duela hogeit hamar urte-edo hustu zen hango kuartela. Orain Lekunberriko guardiek zaintzen dute Araizko jendea.

–Bihar goizean, egunsentian, doala guardia zibil talde bat mina-zulo hori arakatzera! Eta dabiltzala erne, baliteke komando horrekin topo egitea eta!

–Ederki.

–Bestetik, deitu Iruñera eta agindu Nafarroako Babes Zibilari presta dezala, berehala, Araizko jende guztia eba-kuatzeko plana. Armadako helikopteroak ere sar ditzatela baliabideen artean. Baina kontuz! Ohiko maniobra teorikoa besterik ez dela esan behar zaie; bestela, laster dira jakitun kazetariak, eta, kazetarien bidez, Txeroki komandoko terroristak.

–Bai, jauna.

–Ni, neure aldetik, Barne Ministroarekin hitz egitera noa; hark eman behar baititu ongi deritzon aginduak. Defentsa Ministroari ere eman beharko zaio, noski, larrialdi honen berri.

–Ezta gerra hasi balitz ere!

–Bukatu al da inoiz? Ez, noski; ez zaigu komeni eta. Ala, lanik gabe geratu nahi duzu, irabazpiderik gabe?

–Ez, ez.

–Hortaz, badakizu zer egin: gasolinaz itzali sua.

## 14. Hasiak egina dirudi; eginak urre gorria

---

Bila ibili eta aurkitu ez, eta gero, ustekabeen topo egin. Horixe gertatzen zaigu, inoizka, bizitzan, eta horixe agitu zaio Ikermani ere Donostian. Manterola liburutegiaren aurretik pasa denean, zer ikusiko eta, erakusleihoan, beste hainbat liburu zahar eta berriren artean, Jesus Elosegiren *Las minas de cobre de Aralar* delako liburua ikusi ez du, ba?

Ilunabar berandua denez, liburu-denda itxita dago. Hala ere, liburua irakurri gabe ere, Ikermanek orain badauki jakin beharrekoa.

–Kobrea, beraz? Bai. Horra argitu, ustekabeen bada ere, misterio gogaikarri honen gakoetako bat.

Gogaikarria, ez gaia bera aspergarria zaiolako; baizik eta nekatu egin delako horko korapilo katramilatuak askatu nahi eta ezinik: gogaituta dago, gogoa ahituta, gogoa galduta; baina ez nazkatuta.

–Egia esan, Iker, gustura ibili haiz Aralar alde horretan, Gizabete mintegia dela eta. Baina, joder!, argibiderik nagusiena eskumenean huenean, desagerpenen zergati-koaren azalpena entzutera hindoanean Basajaunen ahotik, orduantxe azaldu duk, zera baino larriago, beste mezularia, esanez Josetxo tirokatu egin dutela Amezketan. Etor zitezkean beranduxeago, hik jakin beharrekoak entzun ondoren... Ez, ordea; desgaraian heldu behar zian, desorduan, desegoki, gure mintzagaia desbideratzera, aitorpen-giroa desegitera, desagerpenen kontua desitxuratzerat!

Luzetsita dago Ikerman, ia desesperatuta. Etsipengarria gertatzen zaio etengabeko luzamendu hau: gogaikarria, ahulgarria, akigarria, amorragarria, asaldagarria, ernegarria, galgarria, gorrotagarria, haserregarria, hebaingarria, hisgarria, itogarria, madarikagarria, mingarria, okagarria,

penagarria, samingarria, zapuzgarria... Labur esanda, tamalgarria, kaltegarria eta, batez ere, susmagarria.

Orain, berriz, harrigarria iruditu zaio posta elektronikoz jaso berri duen mezua: oso kezkarria baina argigarria, arriskugarria baina gogoangarria, atsekabegarria baina adierazgarria, atzeragarria baina aztergarria, beldurgarria baina bizigarria, eragozgarria baina bizkorgarria, estugarria baina baliagarria... Honelako zerbait behar zuen Ikermanek suspergarri, ernagarri bezain eragingarri, deigarri bezain erakusgarri, esnagarri bezain ernalgarri, igargarri bezain interesgarri, jakingarri bezain kilikagarri, labaingarri bezain pizgarri eta damugarri bezain tentagarri.

Interneten bidez jaso duen mezu horrek *Argi ibili!* dio izenburuan, eta ez dakar sinadurarik. Edukiaren mamia, berriz, bistan du:

«Ez deitu zure lagun ertzainari, haren telefonoa ziztata daukate eta, erabat kontrolatuta. Inondik ere, hortik jasotako informazioak (zuk emandakoak) eraman ditu ertzainak Amezketako mina-zuloak arakatzerara.

Kontuz ibili Interneten ere. Jakingo duzu, noski, posta elektronikoz bidalitako mezua ere ia normahik irakurtzeko modukoak izaten direla, posta-txartel arruntak balira bezain erraz.

Hartzaileak bakarrik irakurri ahal izan dezan, kodifikatu egin behar da Interneteko mezua, enkriptatu. Horretarako tresna informatiko onik bada: bereziki, PGP izenekoa –oso ona duzu, eta doan–. Baina horrek ere, neurritz kanpo erabiliz gero, badu ondorio txarrik: paranoia, esate baterako. Norberaren esku dago hortik aurrerakoa erabakitzea».

Sinadurarik ez dakarren arren, igorleak gezurrezko helbide elektronikoko hutsala erabili duen arren –*hauезд@egiazkoa.ez*–, Ikermanek badaki nork bidaliko zion mezua: Basajaunek, noski.

Hamaika burutazio erabili ditu gogoan, denak batera, nahasian. Zurrunbiloak ez irensteko, gorputzari ere atsedeen emateko, oheratu egin da, berandu samar. Loak hartu du, azkenean; ederki kostata.

Ez da luzaro egon lozorroan, ezin! Goizeko bostak aldera bizi-bizi jaiki, mendiko arropa eta oinetakoak jantzi, motxilan sartu zira, labana, linterna, prismetikoak, hiruzpalau laranja eta dozenaren bat intxaur, eta Aralar aldera abiatu da, Gizabete mintegia zelatatzera.

Goizeko zazpiak jo dute Arribeko kanpandorrea. Ikermanek garbi entzun ditu zazpi kanpaikadak hango gasolindegitik, autoa aparkatu berritan.

Surtidoreko taberna irekita dago, eskerrak!, eta bezero ugari barruan. Horixe harrigarria, ordu txiki hauetan. Aparkalekuan ere auto askotxo ote dagoen iruditu zaio, bai; baina matrikula zaharren ugaritasuna gertatu zaio deigarriena: NA, BI, 64, VI, 40, SS... denak nahasian, Euskal Herri guztietatik etorritako jendearen autoak balira bezala.

Hogetik gora bezero tabernan, denak ere gosari-legea bukatzen. Ez dira ez kamioizaleak, ez eskulangileak, ez ehiztariak, ez mendizaleak, ez perretxikozaleak, ez parrandatik bueltan dabiltzanak... Denak euskaraz ari dira elkarrekin, denak batera isildu dira Ikerman sartu denean, eta den-denak begira geratu zaizkio, susmati.

Atzendu ere egin da Ikerman, horma ikustezin batekin topo egin izan balu bezala, eta isiltasun trinko hura urratzeko modu bakarra otu zaio: diosala sendoa egitea euskaraz.

–Egun on! –esan die ozenki–. On egin!

Gizalegezko erantzun-zaparradak apurto du izotz-kristalezko isiltasun gogorra. Aurreratu da Ikerman nagusia-ganaino, eta gosari txikia eskatu dio: kafesnea eta mada-lenak.

–Eta urdaiazpiko-tortilla ere bai, ogitartekoa. Eramateko.

Hor zabaldu da, berriro ere, tabernako atea. Lau lagun sartu dira, Mitxeto eta hiru gazte; baina hauen sarrerak ez du inor kezkatu. Denak elkarren ezagunak izaki!

–Akabo nire gaurko zelatari-lanak! –pentsatu du Ikermanek Mitxeto ikustean.

Mitxetok ere zer edo zer pensatu du Ikerman han topatzean; zalantzan bezala egon ondoren, eskua jaso eta ozen mintzatu baita:

–Bakoitza bere aldetik, bada garaia eta!

Hori entzun eta bezero guztiak martxan jarri, dena bat. Hango agurrak, bostekoak eta besarkadak! Laster hustu da aparkalekua ere!

Hortxe konturatu da Ikerman sakabanatu berri diren bezeroen nortasunaz: Gizabete mintegiko jendea, alegia! Baina zergatik ote doaz denak ihes antzean? Bezperako tiroketagatik ote?

Ikerman eta Mitxeto ez beste inor ez da ageri orain tabernan, nagusia sukaldean ari delarik ogitartekoa maneatzten.

–Oso ilun dago oraindik. Ez duzu perretxikorik ikusiko! –esan dio Mitxetok, hurbilduz–. Goiztiar zabilta!

–Ez naiz bakarra –Ikermanek–. Badakizu eskola-maisuaren tankera hartu dizudala, umetxoak etxera bidaltzen dabilenarena? Horiek presak, horiek! Eta hauek garaiak!

–Beharrak agintzen du.

–Onez al zabilzate denok?

–Bai, oraingoz bai; eta ez dadila okerragorik gertatu.

–Amezketako atzoko tiro-hotsen oihartzuna al da hau?

–Bai, Basajaun kezkatuta dago eta etxera bidali du jendea.



–Zer du, ba, horren kezagarri?

–Berak esango dizu, gogoak ematen badio.

–Galdetzeko amorratzen nago.

–Aukera ederrik izango duzu. Bukatu gosaria! Goazen! Baina utzi hemen zeure autoa; nik eramango zaitut, badaezpada ere.

Bidean ez omen dago kontrolik; baina Mitxeto serio-serio dabil, atzo ez bezala. Zerbaiten susmo txarra hartzen dio, antza, oraindik argitu ezinik dagoen egunari.

---

Bedaioke erlojuak zazpiak jo dituenean, Gurbilaundi baserriko zakurra zaunka batean hasi da, salati; Nafarroa aldera oinez doan arrotz taldea usaindu baitu. Ikusi, nekez ikusiko ditu; ingurumaria guztiok estaltzen dituen gau iluna bezain beltza baitute soineko arropa, beltza gerriko pistola, beltz-nabarra eskopeta.

Eskuburdinek, ordea, distira egiten dute argi-printzarik txikiena islatu orduko, altzairuzko distira hotza eta gogorra, inor atxilotu behar izanda ere, badaezpada ere, dakartzaten eskuburdina horiek.

Gorri-gorriak dira (baina ez distiratsuak) taldeko kide bakoitzak bere sorbaldan, ezkerrean eta eskuinean bana, galoi-xingola modura daramatzen haritz-hostoak. Gorri-gorria dute txapela ere, odola bezain gorria, beren lanbidea bezain gorria.

Ertzainak hor doaz, beraz, ilunpetan eta isilka, Nafarroa aldeko muga zeharkatzera. Zazpi lagun dira, eta bide-erakuslea, zortzi. Agindua hartu dute Balerdipeko mina-zuloa ongi arakatzekoa eta, albait arinen, Gipuzkoa aldera itzultzekoa. Inorekin topo ginez gero zer-nola jokatu ere

badakite: *Bakean dagoena, bakean utzi; gerra nahi duenari, hortzak erakutsi.*

---

Ikerman eta Mitxeto gora heldu direnean, Basajaun bakarrik aurkitu dute Gizabete mintegian, eta berau ere kearena egiteko prest; baina mendiko arropaz, Ikerman bezalaxe.

–Bart gauean jaso dut zure mezua –bota dio Ikermanek–, eta horregatik etorri naiz.

–Goiz.

–Goiz jaikita ibiltzeko eguna da gaurkoa, antza. Zuk ere ez duzu lo handirik egin, itxura denez; oraindik eguna argitu gabe, eta dagoeneko jendez hustu duzu mintegia, alazankoa! Amezketako tiroak urruti heldu ziren, dirudienez.

–Hala ematen du.

–Zuk ere hanka egin behar al duzu hemendik?

–Hobe dut.

–Zeren beldur zara, ba? Zerk kezkatzen zaitu? Ertzainak ez dira ausartuko hona etortzera; Nafarroan ez baitute eskumenik, legez. Gainera, etorrira ere, zer dute zuen aurka?

–Batek daki!

–Ez zaude oso hiztuna gaur goizean! Aizu, Mitxeto! Gaurkoan oilo-ipurdia eman beharko diozu Basajauni gosaltzeko!

–Oilandarena askoz nahiago luke, noski, honek ere! –dio Mitxetok–. Banoa! Azken errepasoa egin, atea-eta ondo itxi, eta etxera noa; bulegoan zain izango ditut eta, honez gero.

Mitxeto joandakoan, Ikermanek Basajauni:

–Bulegoa al dauka, ba, etxean?

–Bai, ukuilua; eta behiak ditu bulegari. Hala esan ohi du: bere bulegari guztiak titiak bistan ibilarazten dituela, nahi eta nahi ez.

–To! Ez dauka umore makala!

–Nik orain baino hobea.

–Ez dago zaila.

Isilik geratu dira biak pixka batean.

–Ez zenidan ezer esan kobrearena –ekin dio Ikermanek.

–Ez baitago zer esanik.

–Axularren koadernoan kobrea aipatzen ez da, ba?

–Sinboloak ez dira hitzez hitz ulertu behar.

–Amezketako minak egjazkoak dira, ordea; eta kobrea ematen dutenak!

–Eta? Hemengoak ere halaxe dira, kobre-emaileak. Eta zer?

–Arraioa! Hemen ere ba al da kobre-meatzerik?

–Ez al zenekien!?

–Ez, ba! Nondik jakin behar nuen?

–Hori ez dakienik ez da herrian! A zer ikertzailea, zu! Galdetu izan bazenu, nornahik esango zizukeen, azkar asko, zer den eta non den meatzea, eta nola sarrera itxita daukan aspaldi honetan. Sasiak hartuta dago hura guztia.

–Gustura ikusiko nuke bertatik bertara. Eramango al nauzu?

–Baina, han zer aurkitu uste duzu? Gizona, gizona! Ez duzu uste izango, noski, han aurkitzerik desagertuen az-tarnarik?

–Ez dakit. Nolanahi ere, begiratu beharra daukat. Lagunduko al didazu? Ez baitut ezagutzen bidea.

Basajaun buru-eraginka hasi da, ezezekoan; baina etsita bezala.

–Alferrik da, alfer-alferrik; baina lagundu egin beharko dizut. Hoge minutuko bidea besterik ez dago, oinez. Laster argituko du egunak, eta goizeko bederatzietarako hemen gara ostera.

–Eskerrik asko!

–Baina isilik ibiltzekotan, e! Bidean niri galdezka-edo hasten bazara, bertan behera utziko zaitut; ez bainago berriketarako.

–Konturatu naiz, bai.

Konformatu dira biak eta, egun-txintarekin, tapa-tapa abiatu mina-zulo aldera.

---

Mina-zulo horretara joateko, egunsentiaren zain egondako beste batzuk ere badira: Lekunberriko kuarteletik datozen guardia zibilak. Uniforme berdedunak, bederatziz gizon armatu dira. Hiru auto berdetan datoz, hiruna gizon autoko. Agindu jakina dakarte: mina-zuloa ongi arakatzea. Eta aholku nagusi bat ere eman zaie: erne ibiltzekoa, balitekeelako Txeroki komandoarekin topo egitea.

---

–Kontuz! –dio Basajaunek, hiru auto berdeen motor-hotsa hurbiltzen entzun orduko. Ikermani besotik heldu eta, tiradizo bat eginez, berarengana erakarri du. Bidetik baztertu eta sasi tartean ezkutatu dira biak, kuzkur-kuzkur, geldi-geldi, isil-isilik.

Makurtuta dauden lekutik hamar metro baino alderago pasa zaizkie guardia zibilak. Erne, haiek ere, bazterreta-

ra begira eta armak prest! Baina, zorionez, goizeko argiak iluna urratu berria du, eta oso begi zolia beharko litzateke sasi tarteko bi lagunak ikusteko. Gainera, horrelakoetan, geldigeldirik dagoena ikusezin bihurtzen da; begiak ez baitu forma bereizten, mugimendua baizik.

Pasa dira, bada, txapelokerrak. Aurrera segi dute, astiro-astiro, eta hirurehun bat metrora gelditu eta autoetatik jaitsi egin dira.

–Hortxe amaitzen da bidea, mina-zuloaren sarrerako parean. Hauek ere ikusminez datozela dirudi, Iker! –dio Basajaunek.

Herriko kanpaia goizeko zortziak jotzen hasi da.

---

–Kontuz! –dio talaiari jarritako ertzainak, hiru autoak heltzen eta gelditzen entzun dituenean. Entzun egin ditu, entzun; erabat ezinezkoa baitaio bidea eta bidekoak ikustea, berrehun-edo metro beherago daukan arren. Halako sasi-sastraka dago, izan ere, tartean!

Ertzain lagunak, mina-zulorako sarrera eragozten duten harriak-eta kentze-lana bertan behera utzi, eskopetak hartu eta adi jarri dira.

Ez dute ezer berezirik entzuten, ez bada natura oparoak bere-bereak dituen hotsak. Ez dute ezer berezirik ikusten eta, aldi berean, gauza gehiegi ikusten dituzte: landare bakoitza, zuhaitz bakoitza, harkaitz bakoitza, balizko etsai banaren gordeleku baita erdi ilunpe hartan.

Ertzainetako bati, ordea, inon duen etsairik gaiztoena agertu zaio aurrez aurre, gertu, oso gertu, amesgaiztoetan agertu ohi zaion bezala: suge handi bat, burua jasota, mihia aterata, txistuka, berari begira-begira!

Izuaren izuz, ertzainari izerdi zuria dario, eztarria lehortu zaio, gorputza kordegabetu, bihotza gelditu, adimena ezabatu... Sugea besterik ez du ikusten: sugea eta sugea.

Noizbaitean, ertzainari herio luze amaigabea iruditu zaizkion hamaika segundo eternalen ondoren, haren eskopeta sugeari tiroka hasi da, bere kabuz bezala, tiro eta tiro. Eta tiroka segi du munizio guzti-guztia agortu arte.

Eta tirabidean, hor beheraxeago, guardia zibilak egokitu.

Herriko kanpaia goizeko zortziak jotzen ari da.

---

–Kontuz! –dio guardia zibilen kaboak, zorrotz, goitik heldu zaien berun-zaparradaren ziplanaz jabetu orduko–. Gure aurka ari dira! Babestu autoen atzean, eta tiro! Tiro!

*Ta-ta-ta! Ta-ta-ta!* Hiruna tiroko sailean irteten dira balak fusil ametrailadoreen ahotik. Eta bederatzi lagun tiroka, den-denak aldi berean. Bederatzi, behetik gora ari direnak; eta orain goitik behera tiroka hasi diren zazpi ertzainekin, hamasei. Hamasei lagun elkarri tiroka, arma automatikoz, bazter guztiak zulatu beharrean! Ederki zapuztuko dituzte sasiak! Horrelako aihotzik, egundaino!

Tiroa tiroaren gainean, eta nahasketa nahasketaren gainean. Ertzainek uste dute, uste, behetik tiroka ari zaizkienak Txeroki komandokoak direla, autoz beren gordelekura etorriak; baina guardia zibilak izaki! Hauek ere beste horrenbeste uste dute, baina alderantziz: alegia, goitik tiroka hasi eta ari zaizkien horiek direla komandokoak; baina ertzainak izaki! Ez dute elkar ikusten eta ez dakite elkarren berri; baina hor ari dira, jo eta su, elkarren aurka.

Herriko kanpaiak goizeko zortziak joak izango ditu, azkenekoak entzuteko aukerarik izan ez bada ere. Halako tiro-hotsik!

---

-To! Txapelgorriak eta txapelokerrak elkarren aurka!  
-esan du Basajaunek, goikoen uniforme beltza ezaguturik-  
Hauxe besterik ez genian behar!

Gero, zutitu, arnasa hartu eta, egundalako irrintzia ja-  
regin ondoren, basoan barrena abiatu da, Ikerman atzetik  
duela.





## 15. Ezer ez, eta festa

---

Munizioak adinaxe irauñ du tiroketak. Ez oso gutxi ere: Araitz ibarreko jendea ikaratzeko adina, kazetariak ernarazteko adina, agintariak aztoratzeko adina. Zorionez, ez da inor zauriturik gertatu.

Aralarko mailoetan, berriz, tiroketan jardundako talde bietako bakoitzak bere aginduak jaso ditu irratiz nahiz eskuko telefonoz.

Ertzainak, eskumenik ez duten lurraldean legez kanpo dabiltzala eta, etorri bezain isil-gordeka joan dira, sastrakalanderdia lagun, eta Gipuzkoa aldera pasa, helikoptero gris-berdea agertu aurretik.

Guardia zibilak zeuden-zeudenean geratu dira, euren autoen babesean, harik eta lagun armatuak iritsi zaizkien arte: aurrena motoristak, gero autoak bete txapeloker, eta, goi aldean, saiak izutuz, helikoptero zelataria. Azkenerako, hura guardia zibil pila!

Indarra bildu direnean, ezker-eskuin zabaldu eta era-soa jo dute guardia zibil horiek. Hala ere, ia hamar minutu behar izan dituzte bidetik mina-zulora bitarteko berrehun metroak egiteko: ez lasai-lasai ibili izan balira! Mina-zuloaren aurrean, inor ere ageri ez. Kartutxo-azala bai, ugari; baina txoriak aspaldi ihes eginak, txori txapelgorriak.

Guardia zibilen kapitainak, mina-zuloko sarrera era-gozten duten harriak mugitu berriak direla ikusi duenean, argi eta garbi ulertu du (bere ustez) zer gertatu den han. Baina *Usteak erdia ustel*.

–Atzera! Atzera! –agindu die bere gizonei–. Terrorista horiek minaren barruan ezkutatu dira eta, ondoren, sarrera itxi dute harri pila honekin. Kontuz, barruan gordeta egongo dira eta!

Albiste hori eman die kapitainak bere nagusiei, eta albiste horixe iritsi da Madrileko agintarien bulegoetara ere: besteak beste, Barne Ministroaren bulegora.

DNikoek nahikoa izan dute kapitainaren ustezko albisteaz egazgutzea, hortik aurrera zer gertatuko den asmatzeko. Eurek aurreikusi bezala, terroristak egundainoko atentatua egitera doaz, noski, nazioarteko arreta berenganatu eta bake-negoiazioetan abantaila hartzeko. Eta horixe adierazi diete Barne Ministroari eta Defentsa Ministroari: terroristek Balerdi mendia leherrarazi nahi dutela eta Araitz ibarra harriperatu. Nekea duela sinesteak; baina egia dela, antza.

Barne Ministroak berak eman dio larrialdiaren berri Espainiako Gobernuko Presidenteari. Albistearekiko fidagaitzedo azaldu zaio; baina, aldi berean, terroristen asmoaren gaiztakeria nabarmentzeko aukera paregabea dela ikusarazi dio. Presidenteak baimena eman dio ongien deritzon bezala jokatzeko.

Barne Ministroak Iruñera deitu eta Nafarroako Babes Zibilaria agindu dio Araitz ibarreko jendea ebakuatzen has-teko berehala: armadako helikopteroak ere erabiltzeko, hala behar izanez gero; baita kamioi militarrek eta behar adina soldadu ere. Bestalde, Iruñeko komandantziaren esku utzi du, guardia zibilen esku, segurtasun-neurrien antolaketa. Gero, Propaganda saileko aholku-batzordeko kideak bildu ditu, DNikoak barne, kazetariei zer bazka eman, eta nola eman, erabakitzeko.

Goizeko hamaikak paseak dira ebakuazio-lanak hasi direnerako. Araitz ibarreko zoramena! Horko helikopteroen joan-etorria jende bila! Horko zarata eta iskanbila! Horko istiluak eta horko jendearen haserrea, gogoz kontra daramatzatelako! Horko aitona-amonen estuasunak, helikopteroetara igo nahi ezik! Horko haurren negarra, abereen marrua, motortzarren burrunba eta megafonoz emandako aginduen oihartzun beldurgarria! Horko borroka-abar la-

burrak eta atxiloketak! Horko etxez etxeko miaketa, ezkutatukoak aterarazteko! Horko etxe hutsa! Horko gerra-giro hutsa! Horko eromena!

Kazetariak enteratu dira, eta albistea bala-bala zabaldu da Europa osoan. Baina inork ezin du sartu Araitz ibarrean, guardia zibilez eta soldaduz osatutako giza hesi gogorak galarazten baitu sarrera, bai Lizartza aldetik eta bai Lekunberri aldetik.

Zazpi ordu luze, zazpi!, behar izan dituzte Araitz ibarra jendez hustutzeko: eskerrak ez zegoen egiazko arriskurik! Ilunabarrean bukatu dute ebakuazioa. Joan dira, ez itzultzeko, armadako helikopterotzarrak; baina soldaduak eta guardia zibilak bertan gelditu dira, zain-zain.

Gau luzea izan da, gau tristea. Etxeak hutsik: ez bizilagunik, ez surik, ez argirik. Etxe-abereak, denak goseak: horko kateko zakurren zaunka, ukuiluko behien marrua eta txerrien kurrinka, bordako ardien balaka eta ahuntzen bekerekea, oilategiko oiloen karaka eta usoen urrunga... Azkenerrako, asto gaixoa ere hasi da arrantzaka, eta larreko zaldiak erantzun dio irrintzika. Basoan, ia gauero bezala, hontzak uluka.

Biharamunean (ez nahi orduko, baina), argitu du egun berriak, eta Balerdi mendia zutik, osorik eta sendo! Hala bedi urte askoan!

Agintariek, luzetsita, agindu dute mina-zuloko sarrera libratu eta barrunbeak arakatzeko, kontuz-kontuz, Txeroki komandoaren bila, arma-fabrikaren bila eta lehergailu-biltegiaren bila.

Sartu dira, sartu, Madriletik beste zereginik gabe etorrarazitako polizia bereziak. Zer aurkituko eta... zakurraren putza! Ezer ere ez! Urte askoan inor ibili gabeko pasadizo hutsak. A zer ziria! Porrot lotsagarria!



## 16. Txerokiak denbora pasa

---

Ikerman eta Basajaun, tiroketari ihes egiteko, baso barruan ezkutatuta ibili dira, zuhaitzen babesean, Basajaun bide-erakusle delarik. Bordara doazela uste du Ikermanek; baina oker dago, baratzera iritsitakoan, Oteizaren eskulturaren ondoan gelditu baita Basajaun, harresiaren gainean eserita.

Ikermanek, ikusirik Basajaunek ez duela handik mugitzeko asmorik, baratzeko haritz tantaietako bat aukeratu du gerizatzeko.

–Atertu dira tiroak –dio Ikermanek.

–Bai. Bazen garaia!

–Zer egin behar dugu orain?

–Zuk lehenbailehen hemendik ospa egitea duzu onena. Baina mendiz joan beharko duzu; hor behean atxilotu egingo zaituzte, bestela.

–Mendiz?

–Jakina! –erantzun Basajaunek–. Mailoa igo, Elkomuts aldera, Baratzeango lepotik Igaratzara jo, handik Txindoki aldera, eta Larraitzera jaitsi. Lau orduko bidea.

–Eta zuk, zer egitasmo duzu zuk?

–Hemen geratuko naiz adiskideen zain, desagertuen zain.

–Zer!? –harritu da Ikerman–. Atzo esan ez zenidan, ba, zuk ez dakizula non den Martin Elustondo edota nora desagertu ote diren Endika eta biak?

–Ez baitakit. Egi-egiaz diotsut ez dakidala non diren edo nora desagertu diren –erantzun dio Basajaunek–. Badakit, ordea, non desagertu ziren: hementxe bertan, nire begien aurrean.

–Hemen!? Hemen, non?

–Oteizaren eskultura horren barruan, hutsunean.

Ahoa bete hortz geratu da Ikerman. Ezinezkoa da. Ziria sartu nahi ote dio Basajaunek? Ez dirudi. Burutik joaten hasia ote dago? Ez, noski. Beraz...

–Nekea du sinesteak, Basajaun. Ezinezkoa dirudi.

–Esango nuke. Baina hemen desagertu ziren biak. Hor, hortxe, nire begien aurrean.

Ikermanek arreta biziz begiratu dio orain Oteizaren eskulturari. Alde bakoitzak bi metro-edo dituen kubo edo kutxa hustua besterik ez du ikusi.

–Gogoratu zer izen ezarri zion Oteizak: *Denbora pasa*. Asmatu zuen, bete-betea asmatu zuen; Oteizak berak ez du jakingo, baina asmatu egin zuen: izen eta izan.

–Eskultura hori denboraren makina-edo dela sinestarazi nahi al didazu?

–Nik ez dizut ezer sinestarazi nahi! –oldartu zaio Basajaun-. Hor konpon! Nik dakidana da neure begiz ikusitakoa, ez beste.

–Eta zer ikusi zenuen, zehazki?

–Bordatik nentorren, mintegiko lanetik. Erreka pasa eta horko gaztainondo horren alboan gelditu nintzen, ikuski-zunari begira.

–Zer ikuskizun?

–Oso ikuskizun ederra: Martin eta Endika, biak, eskulturaren barruan sartuta, Axularren koaderno eskuetan zutela.

–Eta?

–Bat-batean desagertu egin ziren, tximista baino azkarrago, une batetik bestera. Desagertu, guztiz desagertu! Eta gaur arte.

–Nola liteke, baina?

–Jakin-jakin, ez dakit; baina esango nuke, ia erabat ziur nago, Axularren koadernoan irakurritako zerbaitek jarri zuela martxan makina. Abiatzeko botoia, botoi ikus-tezina, ustekabeen sakatu izan balute bezala. Bai azkar desagertu ere!

–Zer dio, bada, Axularren koadernoak?

–Ez dakit, nik ez nuen izan paleografoak gaur egungo idazkerara moldatutako testua irakurtzeko betarik. Badakit denboraren giltzak eta beste azaltzen dituela, baina hortik aurrerakorik ez dakit.

–Axular, euskal idazle bikaina, alkimista-edo izan ote zen?

–Itzala galdutako gizona ez da nornahi. Goi-maila era-kusten du horrek. Gogoan hartzekoa da gure Axularrek, etsai zaharraren kobazulotik ihes egitean, errainua galdu zuela, itzalik gabe geratu zela. Ikuspegi morala alde batera utzita, horrek esan nahi du, noski, alderdi iluna galdu eta gizon argia bihurtu zela, oso argia. Bestalde, gogoan hartu Mariren bi semeetako bat, Atarrabi, ongiaren eta argiaren ezaugarri dela; eta, hain zuzen ere, horixe dela Axularren izenbestea: Atarrabi.

–Bai, baina... –Ikermanek bereari eusten–; nora eraman ote ditu makinak Martin eta Endika? Zer aldetara? Edo, hobeto esan, zer alditara?

–Ez dakit, baina badut uste on nire adiskideen trebeta-sunean. Oso oker ez banago, hona itzuliko dira, orainaldira, nire bila eta makinaren bila. Eta oso oker ez banago, da-goeneko ikasia izango dute makinaren erabilera, eta gaur bertan itzuliko dira.

–Gaur? Zer dela eta?

–Gaur, urriak 28, San Simon eta San Juda eguna baita!

–Eta zer?

–Txerokion eguna dugula! Gaurko egunez beti-beti el-kartu izan gara ospatzeko, eta aurten ere larri ibili.

Hori eta besterik gabe, ahopean kantari hasi da Basajaun:

*San Simon eta San Juda,  
joan zen uda,  
eta negua heldu da.  
Ez baletor, hobe;  
bizi gara pobre  
eremu latz honetan;  
ez gara hain onak benetan.*

Ondoren, Ikermanek zergatik ez dakiela, hala dio Basajaunek:

–Ba al dakizu zer izen ezarri zion Gabriel Aresti zenak bere hirugarren alabari? Andere Bihotz.

Orain bai, orain Ikermanek zinez pentsatu du Basajaun joana dela: burutik joana edo joaten hasia. Izan ere, zer nahasketa darabil?

–Maldan gora abiatu eta mendiz mendi joatea izango dut onena –dio Ikermanek, atzenduta–. Beste horiek noiz-nahi hasiko dira ostera tiroka eta...

Ezin izan du hizketan segi, hor gertatu baita gertatu beharrekoa: ikuskizun harrigarria, ustekabekoa, ulertu ezin halakoa, naturaz gaindiko dirudiena.

Ikermanek ez daki zer-nola jazo den. Ez daki tximista beltza izan den edota haize-zurrumbilo isila, baina unetxo batean gertatu da miraria dirudiena: horra Martin eta Endika agertu Oteizaren eskulturaren barruan; eta agertu, hain zuzen, desagertu ziren leku berean!

Aho zabalik geratu da Ikerman, begien aurrean daukana sinistu ezinik, izututa bezala. Ez hala Basajaun! Honek, irribarre gozoz, besoak zabalik hartu ditu bere adiskide maiteak.

–Goazen, Joxe! –esan dio Endikak.



–Nora joaki haiz, Basajaun? –albotik, irribarrez, Martinek–. *San Simon eta San Juda, joan zen uda...* Asmakari gogorra, makina hau! Baina eskumenean zeukaat oraintxe eta kamioia bera baino seguruago menperatzen diat. Goazen, Basajaun!

–Goazen, Lukas! –oraingoan Endikak.

Basajaunek ez du erregutu beharrik izan. Aurrera egin eta hor sartu da eskulturaren hutsunean, denboraren makina halakoan, bere adiskideen ondoan. Hirurek elkar hartu dute eta, ez banoa eta ez banator, hor desagertu dira eskultura eta guzti.

Ikerman bakar-bakarrik geratu da, harri eta zur. Hiru lagunak horrela desagertzea harrigarria bada ere, halako eskultura puska une batetik bestera desagertzen ikustea ere ez baita mirari txikia! Hala ere, ez du izan lilurak jota gelditzeko aukerarik. Helikoptero gris-berdea bere gainean jira-biraka sumatu duenean, baratzea utzi, erreka pasa eta, bidezidorrez bidezidor dia-dia ibiliz, mendian gora tapa-tapa, ihes egitea lortu du, guardia zibilak atzetik dituela.



## 17. Gero gerokoak

---

ERTZAINZA, Gasteiz

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko ikerketa-taldeez arduratzen den ertzain-buruaren mahai gainean, besteak beste, idazki bat eta argazki bat daude: biak ere eskuratu berriak omen, biak ere «Txeroki» izeneko txosten nahasiari erantsi beharrekoak omen.

Idazkiak dio Ikermanek ondorengo mezu hauxe jaso zuela posta elektronikoz martxoaren 25ean:

«Kaixo, Iker! Gu, ondo; oso ondo! Eta zu, zer moduz?

Lazkaoko beneditarren liburutegira sekulako altxorra iritsi da, ezkutuan gorde beharreko altxorra: Axularren *Gero* liburuaren bigarren zatia; hain zuzen ere, denborari buruzkoa.

Antzinako gisako edizioa da, eta ez da imitazioa. Harrigarriena da, ordea, berri-berria dagoela liburu hori, inprentatik atera berria dirudiela, lauhun urteko jautzia instant batean egin izan balu bezala, denbora pasa egin izan balu bezala.

Denbora pasatze horrek izadiaren oreka hautsiko duen beldurrez, aldea eta aldia lotzen dituen uztarrria apurtu beldurrez, gorde-gordean eta isil-isilean daukate liburu hori, eta Lazkaokoei galdetzen badiezu beraren berri, irribarre atseginez erantzungo dizute esanez: "Ez, Axularren *Gero* liburuak ez du bigarren zatirik; idazleren batek asmatutako ipuinak dituzu horiek!"

Beste jakingarri bat: Martinen, Endikaren eta hiruron familiek hileroko soldata bat jasotzen dute, behar adina-koa. Denboraren makinari ateratzen zaio etekinik!

Azken kontua: gaur hasi da kantari kukua, gaur hasi da uda. Bihotz-bihotzez opa dizut urte askoan entzun dezazula kukua, eta ondo bizi zaitezela, ahalegina.

Ez adiorik.

Joxe, Lukas, Basajaun»

Argazkian, hiru lagun ageri dira, hiru gizonezko. Bata, musuzabal biboteduna, banjoa jotzen ari da, irribarrez, begiak bixi-bixi, diz-diz: Martin Elustondo dela dio argazki-oinak. Bigarrena, Martinen alboko bizardun betaurreko-duna, filarmonika ezpainetan duela dantzan ari den hori Endika Casares omen da, bigarren desagertua. Hirugarren gizona, berriz, zigarro-purua eskuan duela, kantari ageri da, eta, argazki-oinak galdera-marka eta guzti dioenez, gizon handi hori omen da, noski, Basajaun deritzona.

Argazkia Kuban ateratakoa da, isilpeko ertzain batek Kuban hartutakoa; zaintzapean baitauzkate uharte tropikal hartan exiliaturik bizi diren euskaldunak eta euren bisitariak, oporretan joaten zaizkien senitartekoak eta lagunak.

Hiru txeroki horiek, ordea, ez omen dira zehazki ez talde batekoak eta ez bestekoak; baizik eta Kuban, euskaldun koadrila batekin parranda-giroan topo egin izanari esker, ustekabean ateratako argazkia omen da. Hango lagunarte goxoa, noski! Hango mojito eta txikito! Hango bertso zahar eta euskal kanta berri! Hango *Goizean, argia hastean* eta hango *también yo estoy / en la región perdida, / ¡oh, cielo santo!, / y sin poder volar.*

Herrizaingo Saileko ikerketa-arduradunak, azkenik, poema gisako bat aurkitu du argazkiari erantsirik: hain zuzen ere, txeroki hirukote horrek abesten omen duen Xabier Leteren habaneraren zati birmoldatu hau:

*Tabako, ron ta kanelaz sukartutako ametsetan,  
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan,  
abanikodun mulatak gauari haize egiten,  
musiken aire nagiek odola erretzen zuten.*

*Jaio ginen, bizi gara, ez dugu ezer eskatzen;  
itsasontzia, astiro, kaiatik ari da urruntzen.  
Eusko txerokiok gizon, benetan eta txantxetan,  
ipuin hau idatzi dugu, norbaitek irakur dezan.*

AMAIA